

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Gabiria



Aurkibidea

Udalerria: Gabiria

Sarrera



Gipuzkoako lurraldearen erdialdean kokaturik dago, Goierri eskualdean. Herri hauek ditu mugakide: iparraldetik, Zumarraga eta Ezkio-Itsaso; hegoaldeetik, Mutiloa, ekialdetik Ezkio-Itsaso eta Ormaiztegi; eta, mendebaldetik, Legazpi. Nekazaritza eta abeltzaintza alde batetara utziak izan dira industrializazioaren ondorioz. Bertako biztanle askok inguruko herrietako industrian dihardute, nekazaritza eta abeltzaintza jarduera osagarriak baizik ez dira.

- **Biztanleak:** 493
- **Euskaldunak:** %94,6

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **13**
- Zintak: **12**
- Pasarteak: **98**
- Transkribatutakoak: **79**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **83**

Proiektuak

- Aitor Gurrutxagaren fondoa
- Badiako ikastola txikiak
- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak
- Legazpiko ahotsak
- Zegama, Urbia eta Aizkorriko artzaintza

Hizlariak

Nikolas Alustiza Gabiria (1925-2018)



1925ean jaio zen Oñatibiaundi baserrian, Gabirian. Gurasoak gabiriarrak zituen: aita Oñatibiaundikoa eta ama Bekoetxekoa. Eskolan Gabirian ibili zen Albizturko gizon bat maisu zutela. 16 urterekin arotz lanbidea ikastera joan zen Ordiziako "Muebles Ordizia"ra; gero Pedro Esnaolarenean eta Urretxuko zerra batean aritu zen lanean. Zumarragan anaiarekin batera tailerra izan zuen. Gabiriako Pasiotarren etxean zegoen Edersol lantegian ere lan egin zuen mosaikoak egiten. 1976an Gabiriako ostatua hartu zuten. Antzerkigintza betidanik atsegin izan du eta Gabiriako taldean ibilia da. Donostiako Lorentzo Salaberria apaizaren gidaritzapean aritu ziren herrian eta herritik kanpo antzezlanak taularatzen.

Bizenta Alustiza Lekuona (1924)



1924an jaioa Gabiriako Landate baserrian. Bost anai-arreba ziren sendian. Eskolan Gabirian ibili zen, Hernaniko maisu batekin. Baserriko bizimodua eraman izan du beti, ganadua eta soroko lanak izan ditu bizi osoan. Sagar saltzera Oñatira joan ohi zen azokara. Erromerietako, eliza munduko eta orduko zenbait kontu kontatzen dizkigu. Elkarriketan bere senarrarekin, [Antonio Igartzabale](#)ekin, batera azaltzen da.

Eusebia Etxeberria Amiano (1920-2014)



1920an jaio zen Gabiriko Urkiztegi baserrian. Ama bertakoa zuen eta aita Olazabalgoa, biak ere gabiriarrak. Eskolan Gabirian ibili zen 15 urtera arte. Eskola utzi eta neskame lanetan aritu zen auzoko etxe batean eta ondoren josten ikasi eta etxeko andrearen koinatu zen sastreari galtzak josten aritu zen. Mariatarren kongregazioko lehendakari izan zen. 28 urterekin ezkondu eta Legazpiko Telleriarte auzoko Errekaeta baserrian jarri zen bizitzen.

Antonio Igartzabal Otegi (1919-2013)



1919an jaio zen Gabiriako Aranburu baserrian. Eskolan Gabirian ibili zen oso gustuko ez zuen arren. Baserria eta basoa izan ditu ofizio. Itzain ibili ohi zen bere idiekin inguruko etxeetako lanak egiten, baita basoan egur garraioan idiekin ere. Aizkorri azpian aritu zen egur garraioan besteak beste. Sagasti handia zuten etxean eta azokara sagar saltzera behin baino gehiagotan joana da Oñatira. Gerra garaia gertutik ezagutu zuen, gudari ibili zen Amaiur batailoian, Gernikako bonbardaketan ere bertan suertatu zen. Elkarrizketan bere emazte den [Bizenta Alustiza](#)rekin batera azaltzen da.

Francisco Lasa Zumalakarregi (1925)



Gabiriako Orbeldi auzoko Zandategi baserrian jaioa 1925ean. Ama bertakoa zuen eta aita Madariaga Barrenekoa, 12 senide ziren familian. Eskolan Gabirian ibili zen, gerra garaia heldu eta maisua soldadu bidali zuten arte. 11 urterako aitari basoan laguntzen hasi zen, baserriko bizimodua gertutik ezagutu du beti. Etxetik kanpo Legazpiko Patrizio Etxeberria lantegian, Orbegozon eta Irizarren aritu zen. 27 urterekin ezkondu eta Zandategin bertan bizi da egun.

Emiliano Mujika Mandiola (1950)



Emi bezala ere ezaguna. Gabirian jaioa, ama bertakoa zuen. Aita, berriz, Albizturtik Gabiriara joandakoa, maisu (antzerki talde bat sortu zuen, ikasleekin euskaraz aritzeko). Emik 7 urte zituenean aita Eibarrera bidali zuten lanera, eta hara joan ziren bizitzera. Emik Fisika ikasi zuen, Zaragozan. Ez zeukan irakasle izateko asmorik, baina bi ikastolatatik bila joan zitzaizkion, matematikak emateko tituludun irakasleak behar zituztelako. Pasai Donibaneko ikastolan hasi zen lanean, 1974an. Pasaia-Lezo lizeoaren sorreran hartu zuen parte; Lizeoko lehenengo zuzendaria izan zen, eta bertan egin zuen lana erretiroa hartu zuen arte. Ikastolari buruzko elkarrizketa egin genion, Agustin Migeltorena lankide ohia ere bertan zela.

Juan Murua

Gabirian jaioa. Sei urterekin hasi zen eskolan. Mutiko zela harrapatu zuen gerrak. Baserriko bizimodua eta garai bateko erromeriak gogoratzen ditu.

Maria Murua Izagirre (1909-2011)



1909an Lazkaon jaio bazen ere, hamaika hilabete zituenerako eraman zuten Gabiriako Izarraundi baserrira. Aita Legazpikoa eta ama Lazkaoko Ondartxiki baserrikoa zituen. Sei urterekin hasi eta hamalaura bitartean Gabiriako eskolan ibili zen. Izeba bati eta aitari esker Tolosara joan zen irakasle ikasketak egitera. Donostian egin zuen irakasle izateko azterketa eta 23 urterekin moja joan zen; Tolosan, Bilbon, Donostian eta Azpeitian ibili zen, besteak beste. Moja izateko arra ume-umetatik zetorkion, etxean, aurreko gizaldietan, asko izan baitziren hala. 73 urterekin erretiratu zen eta elkarrizketa egin zitzaionean, bere azkeneko erresidentzian zegoen, Donostiako Aieteko komentuan.

Laura Pikasarri Arrieta (1934-2018)



Laura Gabiriako Baztarrika baserrian jaio zen. Gurasoak zegamarrak zituen. Bere jaiotetxea fonda ere bazen; eta, 14 urte zituela, eskola bukatu eta fondako tabernan hasi zen lanean. 19 urte zituela ezkondu eta Otzarten bizi izan zen, bere senarra zerga kobratzailea zen-eta. Lau urte Otzarten igaro ostean, Zumarragara joan ziren bizi izatera. Bere senarra bertso-saioetan gai-jartzaile eta epaile-lanetan aritzen zen. Laura senarrarekin joaten zen saioak grabatzera; izan ere, garai hartan oso ohikoa ez bazen ere, magnetofoi bat zuten.

Maria Teresa Pikasarri Arrieta (1917)



Zegamako Bekobentan jaioa 1917an. Gurasoak Zegamarrak zituen, aita Bentakoa eta ama Altamirakoa; sei anai-arreba ziren sendian. Zegaman jaio bazen ere oso gazterik joan zen Gabiriara, osabaren etxera bizitzera. Eskoan Zegaman eta Gabirian ibili zen. Baserriko bizimodua gertutik ezagutu izan du beti eta umetatik, Gabiriako apeaderora esnea saltzera eta Oñati, Zumarraga eta Legazpiko azoketara joaten zen etxeko jakiak saltzera. Pasaian neskame eta Zegamako okindegian lanean aritua. Gaur egun bizi den Baztarrika baserrian (Gabiria) taberna izan zuten eta bertan aritzen zen lanean.

Anita Zubizarreta Agirrebengoa (1929)



Gabiriako Ugarketa baserrian jaioa 1929an. Aita Ugarketakoa eta ama Ormaiztegiko Sasoagakoa zituen eta hiru senide ziren familian. Zazpi urterekin hasi zen eskolara. Etxean sagasti ugari izaki, sagar saltzera Zumarraga, Oñati eta Bergarara joaten ziren besteak beste. 13 urterekin aita hil zitzaion eta izebaren etxean egoten zen Eibarko Orbea etxean. Baserritik bizi izan da beti. 23 urterekin ezkondu zen Gabiriako Urkiztegira eta hiru seme-alaba izan zituen.

Pako Zufiria

Atagoiti baserriko nagusia. Atagoiti Gabiriako baserria da, baina Legazpiko kaletik oso gertu dago eta Gabiriatik oso aparte. Hizkeran nabaritu egin daiteke hori. Elkarrizketa bere semearekin batera egin zitzaion ([Andres Zufiria](#), Gabiria).

Andres Zufiria Audela Atagoiti (1941)



Atagoiti baserriko semea. Atagoiti baserria Gabiriako partean dago, baina Legazpiko kaletik oso gertu eta Gabiriatik oso aparte. Andres artzaina da eta urte erdia Urbian pasatzen du. Elkarrizketetako bat, artzaintzari buruzko ikerketa lan baterako egin zitzaion 2004an. Beste elkarrizketa aitarekin batera egin zitzaion 2005ean ([Pako Zufiria](#), Gabiria). Hitzun trebeak dira biak ala biak. [Legazpiko Zingizango aldizkaria](#)n ere azaldu izan da bere artzain lanbidea dela eta.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Ohiturak eta bizimodua

1.1. Sei urterekin eskolara

- **Hizlaria(k):** Murua, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):**
- **Erref:** GAB-002/001
- **Iraupena:** 0:04:15. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:04:15
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- **Laburpena:** Sei urterekin hasi zen eskolara. Lehenengo irakaslea erdalduna izan zuen. Gau-eskola zer zen ere probatu zuen. Eskolan ikasitakoak eta mutil bati gertatuak kontatzen ditu. Gaztelaniaz egiten zuten eta errespetu handia zieten irakasleei.

Transkripzioa

-Gaztetan eta, eskolako garaian, hemen ibili ziñen?

-Egoaldi ona zanen ondo, txarra zanen zakue buruti behera sartu ta, ordun ez zeoan oango zeaik.

-Kontau zazu zenbat urtekin hasi ziñen eskola, ze eitten zendun ta, ze ordutegi zendun ta hori dana.

-Ni sei urtekin eskola. Goizen aittekin eskola jun nittuan, aittek eaman niñun eskola, ta rekreoako irten nitzenen, han paete bat zeok, ta handik salto ein ta etxea etorri nittuan, goizen. Bi ordu bakarrik pasauko nittuan aurreneko eunen. Atsalden ez nittuan jungo ta.

-Egunero-egunero ez zineten jungo.

-Bai, egunero juten giñuztean. Egunero. Aurreneko maisue Don Cesareo izena zona, erdaldune huan, ta harrekin pixkaten. Ta gero hua jun ta besta bat. Hua hamabost eunen eo eon huan, Antonio. Ta harrekiñ. Gero ia, hasi zazpi urteti, eskola asko ez giñuztean jun baiño, geo erdeaz ta, asko ez giñuztean juten baiño, gau eskola ta. Geo maixu batekin, Albizturkoa, Mujika, Juan Mujika. Harrekin ibilli giñuztean. Hura maixu ona huan, euskaldune ta maixu ona. Guk erdeaz ez gendikiuan, ta harrekin entendittu giñuztean.

-Ze ikasten zenduen?

-Ikasi? Harrekin, matematika, o problemak izaten hittuan ordun, ta gero Don Quijote hori. Hortik benga! [...]. Don Quijote asko. Diktadoa eitten zian, harrek leitzen zian ta guk pizarran. Geo geografie ta. Mapa ta holako asko ez giñuztean, baiño kantau ta geografie asko.

-Buruz ikasi're asko, ezta? Ibaiek eta.

-Buruz. Probintzik eta buruz, horik danak. Buruz gehiena dotriñea.

-Erderaz o nola eitten zizuen?

-Erdeaz. Maixuk erdeaz eskolan. Enteintzen ez bazan, ba ordun euskeraz, esplikazio bat. Geo hurrana izaten genduan, beak premia jartzen zian, ta etxea koaderno bat ekartzen genduan. Koaderno bat izaten hoan: alderdi batetik problemak, bi o hiru problema, haak eaman behar izaten giñuztean etxen einda. Ta beste aldetik ejertzizioa. Ejertzizioa beak jartzen zian zekati hitz ein. Bat bahuan mutiko bat, jartzen zian igual, saski batek zeuzkela, zumekin eindakoa izaten zala, ertza zeukela, ta holakok jartzen zian. Beak erderaz. Baten behintzat hoan, xextokatik "mimbre" ta geo "borde". Ta hurrengo eunen batek hala eaman zioan: "borde, daukenak gorde, ez daukenak ke se jode". Maixui! Geo berotu zian! Ordun jo eitten huan e! Horrek ez zian asko jotzen baiño...

-Zuek beai gaiztakerik eta, asko?

-Maixui? Ez. Hor errespetoa zeoan. Maixue huan hura. Harri ez zeoan gaiztakeriik eitteik. Ona huan baiño, harrek eskolan...

1.2. Gau-eskolan ibilia

- **Hizlaria(k):** Murua, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):**
- **Erref:** GAB-002/002
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:04:15. **Bukatu:** 00:06:05
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- **Laburpena:** Hamabi urte zituela, gerra hasi berri zegoela, tarteka joaten zen eskolara etxean ere lana izaten baitzuten. Gau-eskolara hasi

zen, iluntzeetan ordu eta erdiko saioa izaten zen. Han ikasten zituzten gaiak aipatzen ditu; fabulak asko erabiltzen omen zituzten.

Transkripzioa

-Ta geo hola, hamabi urte. Gerrea hasi zanen hamabi urte. Etxeko lanak'e ein ein behar, ordun ez zeoan. Eskola batzutan juden giñutzean, beste batzutan ez ta... Gau-eskolaa, geo gau-eskolan pixkat.

-Zer zan gau-eskola?

-Gau eskolan hutse eitten gendun.

-Ordutegie zein zan?

Ordutegie, ordu ta erdi izaten hittuan, illuntzaan. Eskolan. Diktadue ordun'e, ta problema ta matematikako zea hoik pixkat eta... gaiñontzen. Liburue, entziklopedi hori izaten hoan, ta geo asko Iriarte ta Samaniegon fabula horik'e bai. Geo ordun eskolan bahoan, eskolak amerikano batek ein zittuan, Balentzategik dirue emanda, harren eskola jun giñtuan, eskola ederrak zerean, neskanak aparte izaten hittuan, mutillek eta neskanak aparte. Eta biblioteka bat zeoan, orduako liburu askokin. Samaniego ta, Iriarte ta, fabula zea horik. Horikin. Horik ikasi, asko buruz, ta esnezalen kontuk eta, "Cuento de la lechera" ta horik, horik danak buruz ikasi giñutzean guk. Holakok. Igela ta irie ta, holako horik. Horik onak dittuk, horik egik dittuk, gehienak. Otsoa ta ardie, errekan ude zikintzen ziola ta. Horik danak ordun ikasi giñutzean. Geo pentsatzen dek eta, zenbait egi bai, askotan aitzikie behar danen, eozein mouz billatzen dek.

1.3. Erromeria arratsaldeko argitan

- **Hizlaria(k):** Murua, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):**
- **Erref:** GAB-002/005
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:08:10. **Bukatu:** 00:10:48
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena:** Erromeriak ezagunak izan ziren Gabirian. Arratsaldeko argitan hasten zen soinujolea soinua jotzen eta iluntzen hastean, kanpaia jotzen zuten eta soinua isiltzen zen. Batzuk etxera eta besteak tabernara meriendatzera joaten ziren. Inguruko herrietara ere joaten ziren, Segurako prozesiora Aste Santuan, besteak beste. Urrutirako ez zuten joerarik, Tolosako inauterietara behin. Orduko pasadizo bat kontatzen du.

Transkripzioa

-Erromerik eta?

-Erromerik hemen, Gabirin, hoixe beti ezautu genduan. Gerra urte hartan, ordun ez hoan eon erromeriik. Baiño gero gerrea bukau ta ondoenen beti soinujolea herrin eoten huan. Atsalden argitan hasten hoan, negun lehentxeo, ta udan beandugo. Ilun ixtanten, aimarikok esaten huan, ez zekiat zer dien dakian, kanpaia jotzen zien ordun, elizan, ta errezau eitten hoan. Igurdin hamabitan'e bai, jotzen zien. Hamabitakoa esaten hoan. Ta geo illuntzaan kanpaia. Ta hua jotzen zonen soinue ixiltzen hoan, illun ixtanten, ta etxea. Etxea batzuk, eta beste batzuk taberna. Tabernan'e, meindatzea ta hola, ez hoan juden, gu bezelakoik ez. Pikun batzuk, ta ardoa erdi mindutakoa o erdi ozpindutako ardo pixkan bat, ta kakauexan batzuk.

Haak jan ta etxea. Geo, inguruko herrita're bai: Legazpia ta, Segura Aste Santun, Aste Santun prozesioa Segura juten giñuztean. Hemen, ingurukok. Zumarraga, Aztiria asko, Aztiri barrio horta, horrea asko. Hor soiñujolek eta eoten hittuan, Eskorta esaten zioena, Aizpeko bat huan, ta harrek udan beti jotzen zian soiñue, ta hautza. Koadrillan jun ta, atzea koadrillan etorri ta hola.

-Bestela, urrutia ez ziñeten jungo, Donostia ta holakoik.

-Karnabaleta behin, Tolosa, jun giñuztean. Lekuik ez trenen sartzeko.

Batzuk txintxilika, beste batzuk aurren jarrita jun hittuan, kanpon. Aurren jarrita. Behin, karnabaletan. Akordatzeneok, hantxe nahiko parre ein genduan, plazan zezen enbolatu hoitakok zerean. Han gendean ikusten, ta mutil kuadrilla batek zezen horri heldu zien isatsetik, eta bota ein zien, zezena lurrea. Agoazille jun ta makillekin jotzen ai huan mutille, ta zezenak atzetik etorri ta jo ta bea bota zian, hankaz gora. Nahiko parre ein zian jendek. Gaiñantzen, Santiotan Billafranka juten bahitzen, hori geroxeo. Ta Beasaiña urten behin, juten bahitzen... ez zeoan besteik.

1.4. Lehenbiziko irratia; euskaldunak Londresko BBC irratitik

- **Hizlaria(k):** Murua, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):**
- **Erref:** GAB-002/011
- **Iraupena:** 0:03:53. **Hasi:** 00:18:15. **Bukatu:** 00:22:08
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- **Laburpena:** Lehenbiziko irratia osabak Argentinatik bidalitako diruarekin erosi zuten. Aurretik, Gabirian bizi zen "amerikano" baten etxera joaten zen Juan irratia entzutera eta handik jakiten zituen gerraren inguruko kontuak. Francoren aldeko kontuak izaten omen ziren nagusi orduko irratietan. Londresko BBC ere entzuten omen zuten. Inguruko baserritar batek gerra garaian Ingalaterrara ihes egin eta BBC irratitik hitz egin omen zuen; inguruko denak batu ziren hura entzuteko. BBCtik hitz egiten zuen apaiz euskaltzale bat ere aipatzen du.

Transkripzioa

-Radioa ta?

-Radioa, hortxe, izan zanen, aurreneko radioa, diruik ez ordun, gerra ondoren ta, diruik ez erosteko. Gue aitte zanak, Amerikan osaba bat, bueno, nere osaba, aitten anaie, Amerikan, ta radioa ba nahi etxen, berriik jakittek, haek'e kartzelati etorri berrik ordun, Francon garaiko kontuak eta. Harri esan, ta harrek dirue bialdu radioa erosteko, Ameriketati, Argentinatik. Harrek dirue bialdu, ta radio bat. Paite zulon hor, paite zulo txiki bat ein ta hor. Enda, radiok, gehiena ordun aitzen genduna, hemengok danak kontu bat, oaingok bezelaxe, Francon aldeko kontuak danak, ta BBC Londreskoa, hura ondo aitzen zan. Beti illuntzaan hura. Hori baiño lehenau, berriz'e, etxen radioa baiño lehenau, hemen, Kuban eo Amerikan eon ta bazan amerikano bat, dirudun bat. Ta harrek bazon radio bat. Ta harrena. Ordun, azkeneko gerra mundial hortan, harrena jaiero juten nitzen. Harrek beak esaten zian, amerikano horrek, "etorri zaitz". Biok jartzen giñen, ta aitzen, zea danak. Nik ordun mapan danak eamaten nittun, nundik noa frente zeren ta. Hemen, desenbarkuk ein zittuenen amerikanok Afrikan, Romeillek

eta, Alamein eta, horko frenteko danak. Hemen'e bai, Rusiko Estalingradutio, horko zeak eta. Schmolenko ta ze general zien. Horik danak ordun. Harrena jun ta, hantxe. Geo geuk ekarri gendunen, etxeko horrekin, akordatzen naiz behin, gerra denboran hemen gerran ibili, aurrena Bizkai alden, hemengo baserrikoa zan, leitzen'e ez zon jakingo gaiñea segurona, oaindi bizi da, hemen izan zan, jun dan udaizkenen izango zan. Aurrena Bizkain gerran ibilli, eta gero hor harrapau-eo ein zuenen, beste aldea eaman zuen frentea, Francon aldea. Ta hor, Valentziko frenten ihes ein, ta Valentzia pasau zan. Geo ia aurea sartu zienen, frankista horik ia aurea sartu zienen, han ez dakit naranjakin o kargautako barkun bat Valentzin, ta han sartu polizoi bezela, ta Inglatera. Geo han mekaniko nabal eo ikasi izan behar zon harrek. Bageñikiun hitz ein behar zola, BBCti, ta akordatzen naiz nola eon giñen hemen, ingurukok eta etorri, beste radioik ez zeon hemen, honea etorri ta ingurukok nola eon giñen. Harrek hitz ein zon. Geo ordun, asko, harrek'e BBCti eitten zon, apaize, nola zan hura? Apaiz bat, hura izan zan hemen eutsi ziona, hemengo euskalduntasunei, ez dakit nola zan, apaize zan, oso famosoa zan hura, garai hartan, harrek eutsi zion hemengo euskaldunei ta, pixkat haize berritzen ta harrek. Harrek dotriñan ta politikan, harrek egie ibiltzen zon, ta horrekin eusten zion. Hola, radioa. Gero telebixioa, gerogoko kontuk beiz, ia, hemen. Ordun ez zeon kotxen ta, bakoitzek kotxe baten radioa ta, etxen bi eo hiru ta...

1.5. Eskolako jolas-orduan instrukzioak

- **Hizlaria(k):** Murua, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):**
- **Erref:** GAB-002/013
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:24:30. **Bukatu:** 00:26:43
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
 - Politika » Jarrera politikoak » Falangistak
 - Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza
- **Laburpena:** Eskola garaian, hamabi urte zituela, jolas garaian falangistek instrukzioak eginarazten zizkieten. Egurrezko fusilak ditu gogoan, haiekin egiten zituzten instrukzioak. Orduko pasadizo bat kontatzen du.

Transkripzioa

-Gerra garaian zer?

- Hamabi urtekin eo hola, eskola, gerrea irten zonen hamabi urte nik, ta eskolaa juten giñen. Ta, eskola lehen esan dean bezela, eskolako lan horik ein, ta rekreoa goizen izaten zan ordu laurden bate o ordu erdi bat, eta atsalden beste ordu laurden bat eo ordu erdi bat eo hola. Etorri zienen rekete o falangista o hok, sartu zienen, eskola jun ta maixui esan zien rekreoko denboran instrukziok eiñ behar giñutzela, guk, mutikook. Instrukziok. Napar bat zan aitzen zona, maixue're bildurtu eitten zan ordun, ta ekarri ziu en egurrezko fusillek eta korreajek. Gogon dauket. Fusillek eta baionetea, egurrezkoa, eta haekin ibiltzen giñen plazan, instrukziok eitten. Aurreneko eune eo bigarrena izango zan, eman ziu en bakoitzei korreajek eta bakoitzei fusil hori baionetekiñ. Esan ziu en: "beno, fusillek jaso horrea, eskola baztarrea, ta korreajek eaman etxea, eta bihar

ekarri". Hala, ekarri giñutzen etxea, ta hurrengo eunen jun, ta rekreokon formauta jarri giñutzen, plazan, eta bat zeon korreajeik bae. Esan zion horrek: "hik nun dek korreajea?". Ta mutille ixillik, ixillik mutille. "Hik korreajea nun dek?". Ixillik mutille. "Ez al dek aitzen, korreajea nun dean!". "Aittek astoi kabestruk ein dio", esan zioan atzea. Aittek, korreajekin, harrek astoi kabestruk ein. Harrek probetxue atea zioan. Ta geo berrik eman beharko zioan harri. Hola ibilli giñuztean gu instrukzion, soldadu juteako. `Cara al Sol` kantau, ta holakok.

1.6. Soldadutza denboran ospitalean, Burgosen

- **Hizlaria(k)**: Murua, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: GAB-002/014
- **Iraupena**: 0:04:25. **Hasi**: 00:26:43. **Bukatu**: 00:31:08
- **Gaia(k)**:
 - Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
 - Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak
- **Laburpena**: Soldadutza pasatu zuen denbora apurra ospitalean pasatu zuen. Burgosa egokitu zitzaion eta han katarroa harrapatu eta ospitalean egon behar izan zuen. Izeba moja bat zuen han eta hari esker bueltatu ahal izan zen etxera. Denbora gutxi igaro zuen arren, gosea pasatu zuten. Hango gertaerak kontatzen ditu. Herrikorik ez zen besterik joan berarekin, baina inguruko herrietako jendea bai. Haiek izendatzen ditu.

Transkripzioa

-Soldaduskan izango zinen zu?

-Soldaduskan, bai. Soldaduskan denbora gutxi pasatu nian, ta pasatu nittunak gehiena ospitalen. Martxon jun giñen, zuka o nola? Martxon jun giñen gu, eta urte hartan izugarritzko hotzak. Ni berrogeta bosteko kintoa, eta zerean ni juteako berrogeta bateko, bi, hiru, lau eta gu bost. Ni Burgosa Academia de Ingenieros, tokatu nitzen. Ez zeon danantzat ohik eta. Usok eondako ganbara batea eaman giñuzten. Elurre eitten zon, ta ganbaran teillak erdik hausita, usok eonda, hautsekiñ goizen ohiak eitten hasten giñenen ez zan ikusten alkar, hautse ta uso ziriñe eonda ta, harrapau non nik ordun katarro bat, bronkiotakoa o ez dakit ze, beste aldean jun behar detenen, Itsasokoa, hemen Zaldibikok eta asko giñen, Lazkaokok, eta Itsasondo, Zaldibikok'e bai hiru-lau, Aramakok'e bai. Ta hala, katarro horrekin, ta kalenturakin, Itsasoko hori, karnizeroa izatez, geo Bilbaon pueston eon zan, ta harrek esan zian, "ron dek oso ona katarroa pasatzeko, ron dek". Jun ta holako botilla txiki bat, nik ez dakit ze izango zan hura ordun garai hartan, ron izenen eozar gauza igual. Ean deu, ta hurrengo eunen ospitalea ni. Gau guztin ezta begiik bildu're. Ospitalea jun ta bronquitis neukela. Hautza juteako, ia hillabete bat bai, instrukziok eta pixkat eitten, eta geo behin hautza jun nitzenen, han izeba bat baneuken moja bat, ta han mojak zeren hospital militarren, ta izeba horrek haekin eon zan ta etxea bialtzeko modue ein zuen han. Papelak ein zittuen, eta etxea bialdu nittuen; abixauko ziela baiño gehiau ez die abixau. Ta hola, gustoa. Soldaduska ez non hartaiñoko, denbora gutxi, pasauko nittun, martxon jun ta ia maiatzen etxea etorriko nitzen.

-Zenbat denbora zan, bestela, garai hartan?

-Urte ta erdi. Baiño lau-bost kinta genden ta, goseek, goseek. Han nola

eosten giñun, kalen. Han etortzen zien, ogi erdikin ta, goseek eta, dirue ordun jun berrin bagenduken ta, haei ogie eosten giñun, diru asko bae. Han lehen zerenak, bat azpeitiarra, ta harrek nola esan zian: “horidi ez iek ogiik eosi, horik esken biltzen duen ogie dek hori saltzen duen hori. Hor esken ematen diena saltzen diek horik. Hoidi ez iek eosi ogiik”. Ta halaxe. Han taberna bat bazeon gertun, ta hautza jun, ta han eskabetxeko sardiñan batzuk, eta ardoa, ardoa bastante ona eoten zan han, ardo beltza, lodie ardoa, lodi-lodie, baiño ardoa. Ardokin eskabetxeko zerbaitt, dirue zeon arten. Oaindik baittut nik han, ordun, nik’e asko ez, ta gutxigo zonak eskau ta eman dirue, orduako duroa, ta oaindio atzea bueltauko ziala, baiño oaindi kobrau bekoa.

-Jende asko jun al ziñeten, inguru hauetatik, soldadu, zurekin batea?

-Bai, bai. Hemen, herrikoik iñor ez, baiño Legazpikok bai, nere lehengusu bat. Eta gero Aramakok bi o hiru bai, Itsasondokok’e bai, Itsasondokoa oain Ormaztegin dauna, bizi dana bat, Aramakok bi behintzat bai, Zaldibitti hiru ta hiruek Mendizabal, Mendizabalak zien. Lazkaotik’re bai, hura bat Murua, ni bezela, ta bestea... bestea ahaztu’re bai ia. Bestea Lapitzondo.

1.7. Lixiba nola egiten zuten

- **Hizlaria(k)**: Etxeberria Amiano, Eusebia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: GAB-004/010
- **Iraupena**: 0:02:52. **Hasi**: 00:10:40. **Bukatu**: 00:13:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- **Laburpena**: Lixiba egiteaz ari da. Etxean egindako xaboia erabiltzen zuten. Arropa zuria eta koloretakoa aparte jotzen zutela dio.

Transkripzioa

- Jartzen giñutzen bi barrika. Ordun, ba, erropea, hartu aston, dana eskun einda e! Eta beheko kamiñoko erreka.
- Ze izen zun erreka harek?
- Guk Santa Lutziko errekea esaten giñun.
- Aston erropak hartzen zittuzuen eta hauntza juten ziñeten?
- Bai, erropea aklatatzea.
- Gertun zeon erreka hori etxeti?
- Ez zeon hain gertun, baiño astokin, zenbait esango dizut ba nik? Hogei miñutu? Baiño, behientzako euki behar zan garbi, eta erropea jotzea, hautza.
- Erropak eamaten zittuzuen hauntza, errekaa, eta han nola garbitzen zittuzuen?
- Han jo eitten giñutzen. Banku baten, bankue eoten zan. Beste bezinenak o izango zien. Bankun jo, ta geo aston.
- Jaboiik o eamaten zenduen?
- Etxen eitten gendun hori. Etxen egosi eitten gendun. Lastoa jarri, garin lastoa, eta sutako hautsekin botatzen giñun agua templada, poliki-poliki-poliki, eta egosten gendun erropea.
- Nun eitten zenduen hori?
- Hori beheko sutan, sukalden.
- Baiño ontzin baten jartzen zenduen?
- Bai, tiña haundi baten, erropea. Tiña, hemen'e badau, ganbaran.

- Nola deitzen ziozuen? Lixiba?

- Lixibea, bai. Ta gero ixikitzen gendun, ze esango dizut ba? Ohi dananak, bost-sei ohi.

- Nun exekitzen zenduen erropa?

- Han, gure etxetik aurreago, karrill aldea. Oso leku edarra genduken, erropantzako.

- Ze eukitzen zenduen, soka bat lotuta?

- Bai, alanbrea. Alanbrea buelta guzin. Hantxe txintxilika.

- Erropak txurik eta koloretakok?

- Zurie. Kolorezkoa aparte hartzen gendun. Kolorezkoa jotzeko, etxe atzen ein ziun aittek beste potzu bat, eta hure aparte hartzen gendun. "Lo blanco sólo abajo".

- Izarak eta holako gauzak?

- Bai. Zuri-zuri-zuri irtetzen zon. Lejiaik eta ezer ez. Erropa zeantzako, igual ebaliko gendun, menudontzako, leja pixkan bat. Baiño "para bragas y así, sólo".

1.8. Talo ederrak nola egin

- **Hizlaria(k)**: Etxeberria Amiano, Eusebia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: GAB-004/018
- **Iraupena**: 0:02:27. **Hasi**: 00:24:22. **Bukatu**: 00:26:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena**: Taloak nola egiten diren kontatzen du. Lurrezko ontzian, irina eta ur beroarekin egiten zuen masa. Talo-burdina oraindik ere gordeta omen du. Egunero, gosaritan jaten zuten taloa.

Transkripzioa

- Euxebe, nola eitten zittuzun talok?

- Ba, eitten da, jarri harrizko ontzi baten, o kazuelea igoal da, baiño nik jenealen ebaltzen non "una cazuela de barro". Oain'e bauket haundi bat, hor gordeta. Jartzen zan, gatz pittin bat bota, ta ur beroa, eskue sufrittu arte. Eskuk sufritzen zonen, masea ondo-ondo kurau, eta gero "hacer bolitas". Gero, talaburnie, beheko sun jartzen gendun.

- Talo burnie nolakoa zan?

- Talaburnie, ganbaran dauket oaiñ'e.

- Nolakoa izaten zan?

- Un cacharro, de esto, ojalatea o ze izango zan. Hue jartzen gendun sutan, gaiñen. Eta gero parrillea, brasea etaa pixkat, eta han jartzen giñutzen talok. Harro-harro-harro. Talo batzuk!!

- Eskue hartu beharko zitzaion hari're, e?

- Bai, honbre! Hoixe hartu behar zikola. Ez gehiegi erretzeko ta. Ta labe sui'e bai.

- Taloa eguneroko jana zenduen?

- Bai, gure aittek bai, ta geo neuk'e bai. Goizen oso ondo ibiltzen nitzen, taloa ta esnea jan ta muy bien, egoardia arte.

- Gosaritako jana izaten zan?

- Bai, bai.

- Ala otordutan'e jaten zan?

- Ez, otordun ez guk. Beno, gauetan batzutan, aittek nahi izaten zon, eta

aittekin batea, ba, neuk'e igual jaten non bat. Baiño jeneralen goizen, zeatio gaueako're da astune, un poco pesado.

- Taloa zekin jaten zenduen?
- Esnekin.
- Eta bestela, beste zeoze sartzen ziozuen?
- Gaztaiakin'e bai, eta zea're bai, gaintxarrea, txoixoa...
- Hura bai earra, besteik ez zanen!
- Riquísimo. Oso da ona.

1.9. Jende asko elkartzen zen taloak egiteko

- **Hizlaria(k)**: Etxeberria Amiano, Eusebia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: GAB-004/022
- **Iraupena**: 0:03:28. **Hasi**: 00:34:27. **Bukatu**: 00:37:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- **Laburpena**: Txorizoa, gazta... jendeak eskatutakoa jartzen zuten taloan. Jende asko egoten zen lanean: taloak egiten, jakiak prestatzen, kobratzen, etab. Herriko jaietan nahiz inguruko herrietan ibiltzen ziren, baina Eusebia bera Legazpin bakarrik aritzen zen. Lan neketsua zen oso. Gaur egun, eurei ikasitako talde batek jarraitzen du herriz herri.

Transkripzioa

- Aukera ematen ziozuen jendei txoixokin jan, o hirugiharrekin jan... o zuek jartzen zenduen?
- Ez, ez, eak eskatzen zuen zeekin nahi zuen. Zeati eoten zan txistorra, queso, eta geo beste zea eoten zan. Hortako beste bat eoten zan aparte, haak preparatzen. "Aquella se interesaba de la gente". Geo beste batzuk entradak ematen, kobratzen... Askok eoten giñen, asko. Danantzako lana.
- Edarie're jartzen zenduen?
- Ez, edariik ez. Solo talo. Zeatio edarikin, mucho jaleo era.
- Permison bat eskatu behar izaten zenduen, puestoa jartzeko?
- Ez, guk esaten gendun: "baltzen bagaittue, ba alde eingo deu".
- Noiz aitzen ziñeten, festatan?
- Bai.
- Eta festatetik kanpoa, beste herrin baten o ibili ziñeten?
- Ni neu ez, baiño gure koiñata ta bai. Kilometrokon, Zumarran, Bergaran... Baiño ni juten banitzen gizona bakarrik uzten non, ta pena ematen zian. Eta esan nion "ez". Zeati hemen eitten gendun "de seis a nueve y media". Ta uzten nion afarie pronto, ta beak afaldu eitten zon, ikulluko lanak eindakon. Baiño kanpoa jun ezkeo, eun guzin bakarrik, eta esan nien: "ez, ni kanpoa abitzea ez noa". Gaiñea asko nekatzen zan. Hau hola, hurrengo eunen muittu ezinda.
- Zenbat urten segi zendun talo eittei?
- Ni urte askon, askon, askon segi non. Bai.
- Gero beste talden bat sortu zan zuen atzeti?
- Bai, ta oain harek seitzen do. Donostiraiño juten die.
- Zuek eakutsi ziozuen hairi?
- Bai. Santo Tomasetan'e, oaiñ'e juten die. Oaiñ'e seitzen due. Zea're bai, Mirandaola're juten dia, "cuando hay algún evento", rezibimentu bat

datorrenen eo.

- Kilo bat iriñekin zenbat eitten zittuzuen?

- Hoixe da sekulan...

- Hamasei-hamazazpi bat nao ni aittuta.

- Ez gendun sekula kontuik eaman horrekin. Ez. Zeatio zaku haundi baten eamaten gendun iriñe. Iriñe Lazkaotik ekartzen gendun. Ni eon nitzen bittarten Gabiriti, lehen esan dizuan leku hortatio, komentu ondo hortatio. Oso irin edarra eitten zon, oso ona. Ta gaiñea esaten nion: "Herrin talok eitteko dek e! así que te voy a dar fama. Famea eman behar diat".

1.10. Laborea oso gustuko

- **Hizlaria(k)**: Etxeberria Amiano, Eusebia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: GAB-004/023
- **Iraupena**: 0:02:22. **Hasi**: 00:37:55. **Bukatu**: 00:40:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- **Laburpena**: Gabiriako eskolara joan zen umetan. Arratsaldero laborea egiten aritzen ziren eta oso gustuko zuen bordatzea. Etxerako arropak bordatzen zituzten eskolan.

Transkripzioa

- Etxen hainbeste lan eitten zendun, ta eskolako astiik izan al zendun? Ibili al ziñen eskolan?

- Bai, hamabost urte arte.

- Nun ibili ziñen?

- Gabirin. Oso maestra ona genduken. Doña Martina.

- Bertakoa zan?

- Ez. Ez dakit nungoa izango zan hue. Gizona Vitorikoa zon. Urte askoon. Eskutako neon, ez neuk esaten dealako baiño, para bordar y eso...

- Eskola ematetaz aparte, laborea eitten zenduen baita?

- Atsaldetan laborea, goizetan eskolea, ta atsaldetan laborea. Bordatzen ta... Me encantaba.

- Nola eitten zenduen bordatzea?

- Bastidorekin.

- Nolakoa izaten zan bastidorea?

- Hola, erredondoko zea bat. Han sartu, eta geo eukitzen zon planetatxo bat, mantalen hartzeko. Bankutxo bat jartzen ziun maestrek ate ondon, bordatzen ein behar gendunai, zeatio argie behar zan. Ondo, ondo. Arreon ekarri nittun neuk eindakok. Neuk eindakok.

- Euxebi, bordatzen batzuk aitzen ziñeten, eta beste batzuk beste lan batzutan? Ala danak ikasi zenduen danetan?

- Ez, beste batzuk ba beste josten klase batzuk. Ni bordatzen, ta bestelakon'e bai: punto cruz, incrustación, y de todo. Oaiñ'e eingo nuke, bai.

- Ze bordatzen zittuzuen, zuen erropak?

- Bai.

- Etxetik eamaten zittuzuen erropak?

- Bai, bai. Eaman nittun bi juego, de cama. Bat bordau non rosa, ta bestea azul. "El azul le ponía al marido".

- Harik beak ematen zizkizuen?

- Ez, ez, geuk.
- Zuek erosten zittuzuen?
- Bai, dana geuk.
- Nun erosten zittuzuen?
- Zumarratik eamaten zittun amak. Dana geuk. Baiño, ni eskulanean... asko gustatzen ziten, asko.

1.11. Euskaraz hitz egiteagatik zigorra

- **Hizlaria(k):** Etxeberria Amiano, Eusebia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** GAB-004/025
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:41:02. **Bukatu:** 00:43:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Erdaraz ikasten zuten. Irakasleak ez zekien euskaraz eta zigortu egiten zituen euskaraz entzuten bazituen. Zigorrak nolakoak ziren kontatzen du. Goiz eta arratsalde egoten zirenez, amak bazkaria bide erdiraino eramaten zien hasieran. Gerora, "sekretarioaren" etxean prestatzen zieten bazkaria: indabak eta kafesnea.

Transkripzioa

- Eskolan, laborea eittez aparte, goizetan ematen zenduen.
- Bai, goizetan eskolea ta atsalden josten.
- Euskeraz ikasten zenduen, Euxebi?
- Ordun anilloa ematen zuen, "a la que hablaba en vascuence". Ze gaizki daun hori e! Zeatio maestrek ez zekin euskeraz, ta erderaz ein behar gendun, "si no te venía el anillo".
- Anillo bat ematen zizuen?
- Bai, ta harekin kastigue zeon.
- Jantzi eitten zizuen anilloa?
- Bai.
- Zenek jazten zizuen, maestrak?
- Bai. Maestrak. Aitzen baziun. Baiño ez gendun eitten, maestrea zeola ez. Bestela bai e!
- Lagun arten bai?
- Bai. Baiño maestra zeola ez. Rekreakon ta hori bai.
- Anillo hue jartzen zon garaien, ze kastigu izaten zan?
- Batzutan, ez dakit ze ematen ziun: eskola lehenau jun beharra, o gero go irten beharra. Gero go irten beharrak'e pena ematen zon. O rekreakon pe... "no sé, no sé lo que sería".
- Eskola hortan, neska ta mutil?
- Ez, neskak bakarrik. Besten mutillek. Bi zeren, bi eskola. Edarrak gaiñea. Oaiñ'e han dare.
- Ze eoten ziñen eskolan, goiz ta atsalde?
- Bai.
- Ta bazkaldu bertan?
- Bazkaldu, etxea etortzen giñen batzutan. Beste batzutan amak biden erdia etaatzen ziun. Eta gero, sekretarion etxen hasi giñen bazkaltzen, zeatio oso gaizki ibiltzen giñen, eta sekretarion etxen preparatzen ziun. Indabea eamaten gendun etxetik. "Entonces no había otra comida". Indabea urdaiekin, eta gero katillukara kafesne. Baiño ondo eoten giñen.

Han jaten gendun. "Nos quedaba tiempo para jugar".
- Sekretarion etxen esan dezu. Zenen sekretarioa zan?
- Hure, Aramatik uste det etorri ziela. "Más bueno era... y ella!"
- Zenen sekretarioa zan?
- Herrikoa. Bernardo Garciandia. Eta andrea're, "una mujer buenísima".
Eusebia. Buenísima.

1.12. "Bost errealdik behera, ez!"

- **Hizlaria(k)**: Etxeberria Amiano, Eusebia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: GAB-004/027
- **Iraupena**: 0:01:17. **Hasi**: 00:47:00. **Bukatu**: 00:48:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: Inork ikusteko beldurrez, errekan ez ziren bainatzen. "Karrileroak" egoten ziren inguruan eta baserritarrak izateagatik burla egiten omen zieten. Haiekin gertatutako anekdota kontatzen du.

Transkripzioa

- Erreka etxeti gertu zeukezuen. Ta bañuk hartzea juten ziñeten erreka? Bañatzen ziñeten?
- Ez, ez, ez. Errekan ez. Iñok ikusita're.
- Zer ba? Zer zan pekatu iñok ikustea?
- Han karrillerok asko ibiltzen zien. Eun baten, belarrakin netorren, aston, ta esan zian, lanen ai zienak: "oye, casera, ¿qué hora es?". Y le digo: "bost errealdi behera ez! Atzo're arrautzea ein zuan ta gaur'e moko-mokoan dauka!". Ta esan zion launek: "mira, si te hubieras callado, no hubieras oído".
- Parre eitten zizuen, baserritarrak ziñetelako?
- Bai, burla, burla. Desgraciados. Beak gosek akatzen igual eongo zien. Bai, burla.
- Makiña bat aittu beharreko izango zittuzuen.
- Bai, asko, asko. Burloso jendea're asko zeon.
- Eskolan'e baserritarrak izango ziñeten danak.
- Bai, danak, danak.
- Kaletarrik ez zan jungo zuen eskola.
- Ez, ez. Danak baserritarrak, danak baserritarrak, bai.

1.13. Ezkion Ama Birjina azaldu zenekoa

- **Hizlaria(k)**: Alustiza Gabiria, Nikolas
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: GAB-006/018
- **Iraupena**: 0:03:44. **Hasi**: 00:29:34. **Bukatu**: 00:33:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Maiz, Aimar

- **Gaia(k):**

Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

- **Laburpena:** Eskolan hasi zen garaian, Ezkioko Ama Birjina puri-purian zegoen. Jende asko etortzen zen, Ama Birjina azaldu zela sinetsita. Arratsaldean, eskolatik Ardantzara joaten ziren, Santiago azalduko zelakoan. Ardantzan harri bat zegoen. Kataluniatik autobusak etortzen ziren Ezkiora.

Transkripzioa

-Ni eskolan hasi nitzen garaian, ez dakit ba, treintaitres, treintaicuatro, hor, Ezkioko Ama Birjiñe zeon ordun puri-purin. Ama Birjiña azaldu zan ba, hor, Ezkion? Huraxe zeon ordun. Zenbat jende etortzen zan horrea!

-Nola azaldu zan? Ze pasa zan hor? Historie badakizu?

-Bai, historie, historie... ba, hori, ni ez dakit, preputako gauzan bat izango zan. Hor, nik ezautu nittun, ezautuko ez nittun /enittun/ ba, Ezkion Bazterretxe esaten zioen etxea, hor bat, bi, hiru taberna o lau illaran bazien hor, garai hartan, ta gerogo're; oain bate ez dau. Ta taberna batekok zien horik, ta bi mutiko, anai-arrebak, eta etxeen batea, haik eak ez det uste eukitzen zuenik, gaiñea, zerik, tabernea bai baiño ganaduik eta hola, ta han inguruko etxen batea, iluntzan eo ez dakit ba, esnetaa, handik ekarriko zuen esnea etxeako, haidi agertu omen zitzaiera, iluntzan baten, Ama Birjiña hori. Handik hasitakoa. Hola izan zan. Kriston... Hor jende pilla onak izaten zien, ni horrekin gogoratzen naiz. Milagrok'e ein behar zittuela ez dakit zer santuk eta ez dakit zer ta... Santiago're, Santiago apostoloa're, zaldi zurin gaiñen azaldu behar zola egun baten ta... Gu eskolan gebiltzen ordun, ta maixuk, jo, danak beste kontuik ez zan aitzen ta, atsalde baten, Gabiritik, eskolatio hemen ezkeraldeago dao puntu bat Ardantza esaten zitzaion lekue da, ta handik frente-frenten Ezkion ikusten zan lekue, Ama Birjiña horren toki hori. Ta atsalden, eskolatio maixukin, mutiko danak Ardantza, leku horta etorri, ta hor liburun batzuk hartu ta hor leitu ta ikixiko gendula, zeatik Santiago hori azaldu behar emen zola ta, gere begikin han beida, han noiz azalduko zan. Han ez zan ezen arrastoik azaldu, ta atzea etxea!

-Ardantzako hortan harrin bat edo zerbait dao?

-Bai, baiño ez det uste oain... etaa ein zuela uste det eta... Gabirira eaman zuen, han plaza ingurun, ta ez dakit nun daukien oain jarrita. Hor zan harri bat, bai. Oain plazan eongo da, Gabirin. Ardantza hortan zan hori bai. Hori Euxebiok o holakon batek esango zizun.

-Ez, irakurrita dauketelako.

-Irakurrita daukezu?

-Bai.

-Ardantza toki hortan baserrin bat zan, edo izen hori nundik zetorren?

-Ez dakit. Nik baserriik ez det ezautu hor. Beraxegon dare, Ardantzati beraxeo dare Zandatagoiti, bi bizitza die. Baiño Ardantzan hor baserriik izan danik sekula ez zat zeatu.

-Eta zuek handik egon ziñeten begira?

-Hautza jun ta handik eon giñan atsalde guztin beida, noiz azalduko Santiago hori, baiño ez zan azaldu. Oaindik etortzeko eongo da.

-Garai hartan fede handie egongo zan, gaiñera, holako gauzatako, ezta?

-Ene ba, ene ba! Ta hor, Kataluñatik eta, Bartzelona aldetik eta, ze jende pilla. Autobusek-eta, garai hartan pillak eoten zien hor. Hemengo etxetatik egunero juten zan jendea horrea e, atsalden e!

1.14. Ama Birjinarekin hitz egiten zuen neska

- **Hizlaria(k):** Alustiza Gabiria, Nikolas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** GAB-006/020
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:34:42. **Bukatu:** 00:36:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- **Laburpena:** Inguruko baserri bateko neskak Ama Birjina ikusten zuela esaten zuen. Neska hark Nikolasen anaiari esan zion sendatuko zela, baina ez zen ezer gertatu.

Transkripzioa

-Hor zeon neskea, neska gaztea, ta harek'e ikusten zola...

-Eta nolakoa zala esaten zuen?

-Bai, batek ikusi zola, baiño ez zuen sekula ezen zeaik... Ama Birjiñea han azaldu omen zala, hoi zala baiño... ba! Nolakoa zanik sekula ez zuen esaten. Ta, ordun, gure anai hori, nola zan hori... inbalido nola zeon, hue bere muleta horikin azkar ibiltzen zan, e! Joe... iditaa ta... Bea askotan jun zan hura Ezkiora, Ama Birjiña toki hortaa. Eta horrek, ikusten zola esaten zon horrek, ikusi ez dakit ze eitten zon, neska horrek esan ein zion egun baten, Ama Birjiñek esan ziola sendatuko zola nere anaie. "A bai?" Ta "bai", ta egune ta danak izendauta. Lehen esan deana, egun hori allau zan, ta mutikoa, hure fin, bueno! Fedea ta, etxekok eta danak. Lehen esan dizut ba hemen eon zien pasiotarrak, oain fabrikea eo dau, geo alde ein zuen hemendik. Hor elizea, ta gu mezeta ta horrea juten giñen, parrokia jun bittartez, gora jun bittartez, gertugo ta horrea. Milagroa ein behar zion eun hortan, goizen jaiki, ta jun horrea, ta aitortu, ta jaune hartu, ta danak ein, ta zean, ta atsalden sendatuko zola ta hautza jun ta... Bai, sendau bai... bai, gero bai, sendau zon bai, hil ein zan ta.

1.15. Oiloz mozorrotutako sorginaren istorioa

- **Hizlaria(k):** Alustiza Gabiria, Nikolas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** GAB-006/022
- **Iraupena:** 0:03:34. **Hasi:** 00:36:56. **Bukatu:** 00:40:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak
- **Laburpena:** Amonak kontatutako istorioa kontatzen du. Amonaren anaia argaltzen ari zen eta ez zekiten zergatik. Ohea omen zen gaitza, eta koltxoia kendu eta erretzeko esan zioten; bidegurutze jakin batean erre behar zuen, ordea. Erre eta gaitza joan zen.

Transkripzioa

-Zer istori zan hori? Zuri amonak kontatu zizun hori, ezta?

-Bai, bai, bai. Hori, istorie...

-Benetan gertatutakoa?

-Benetan gertautakoa hemen, etxe hontan.

-Baiño zuri amonak kontautakoa.

-Amonak kontatu zian nei hori. Ba, hemen... Oain ez dakit, amonan bean

anaie zan, edo lehenaukotakon bat zan, mutil gaztea, ta hemen koartok eta, bai, nunbait koarton bat o zea bai, ta geo ganbaran lo ein behar. Ta mutil horrek ganbaran goien lo eitten emen zon. Ta, mutille, jateko gauza asko ez zuen izango, baiño ordun behintzat jango zuen, baiño oso flakutzen, oso flakutzen ai emen zan. Flakatu. Ia oso flakatzea etorri omen zan, ta ze eingo ote zuen, ta hau ta hori ta; meikuik'e nik ez dakit eongo zan ordun. Behintzat, ebanjeliok eo etaatzen zitzaiera eta Olaberrin behintzat, hautza jun eta han nik ez dakit apaize eo zerbait behintzat, hori, ipuie, sendatzeko ze ein behar zon, ta hau ta hori, ta holakok eta... Jun die behintzat, harrena, hautza jun die. Apaize izan behar zon, hori eitten zona. Ikusi zon garaian, mutille, esan emen zioen ordun, aber nun lo eitten zon mutil horrek. Zean, koltxoi zean bat, oillon lumakin eindakoa emen zan koltxoi hori, ta haren gaiñen eitten zola lo. Ba, han zeola gaitze, esan emen zioen. Ohian zeukela, han eongo zala, ta hura, koltxoi hura kendu eta erretzeko, baiño erretzeko bidegurutze baten. Ba, bide bat horrea, bestea horrea, bestea horrea... Ta bidegurutze hori hortxe, hor goien dau; lehen esan dizut ba, aldekoa hor daola, horrea juteko biden, hortxe, ta izena zon leku horrek Intxaurtxo. Hor zeon baserri hortaa, aldekoa juteko, ta beste bide xenda bat, gora, Korta jatetxea dau, Zuazola, hautza juteko. Hori auzokok, hor bidea. Bestea honea etortzeko. Ta hori bidegurutzea. Ta horrea eaman omen zuen, ta hor eman emen zioen su. Eta kandela bedeinkatukin noizik behin botatzeko tantonak su hortan, ta erretzeko. Ta han erre zuen garaian, luma arten zea bat, bitxo bat bezelako gauza raro bat azaldu omen zan, hola oilasko tipoko zean bat omen zan. Han salto eitten omen zon gaiñea harek, salto eitten zola erretzen ai ziela, esaten zon, ta makillekin joz ta joz han erre zuela danak. Ta mutil hori handik sendau zala gero. Hori nik Garmendiai kontatu nion hori, Gabiriko Ostatu baten. Ta geo harek idatzi ein zon.

1.16. Eskolako maisu ona gerrara joan izanaren pena

- **Hizlaria(k):** Alustiza Gabiria, Nikolas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** GAB-006/026
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:43:06. **Bukatu:** 00:45:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 Euskara » Euskararen egoera
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena:** Eskolan Albizturko maisua izan zuen. Oso maisu ona zen hura; gerra iritsi zenean, soldadu eraman zuten, eta itzuli zenerako, Nikolasi pasa zitzaion eskolara joateko garaia. Neskak eta mutilak aparte egoten ziren. Gaztelaniaz gaizki moldatzen zen Nikolas.

Transkripzioa

-Nikolas, eskolan esan duzu hemen Gabirian ibili zinela. Maisu, pasiotarrak ziren?

-Ez, ez. Maixue hemen, Albizturkoa. Ni harekin ibili nitzen, ta geroztik'e harek ein zittun hemen, ez dakit ba zenbat urte eingo zittun. Gero Eibarra jun zan, zeak eaman zuen Eibarra, Alfaa eaman zuen gero hor. Ona zan oso. Gero, jublatu ta Donostin bizi zan, ta hil zan. Andrea ere oaindio... Andrea hemengoa zon, gaiñea, hor baserri batekoa. Joan Mujika Iturrioz.

Albizturkoa zan, maixu ona, jatorra zan. Baiño, geo ditzosozko gerra hura sartu zan ta soldadu eaman zuen hori gure eskolan gabiltzela. Ta gero han soldadu pasa zittun urtek, eta handik etorri, ta klaro, handik etorri zan garaien berriz'e hemen eman zon eskolea, baiño, gu eskoleik ikasi be hemen, lanea, garai hartan, hamahiru-hamalu urtekin, eskolea ikasi behar gendun garaien, ta geo eskolaik ikasi ez, hori pasau zikun.

-Neskak eta mutilak aparte?

-Aparte, bai. Nik aparte ezautu izan dittut beti. Been maestrea, neskak. Eskolak hemen zien, ba, oain daren eskolak. Etxea, oaingo etxea da, oain barrutik eta berrittuta daude. Baiño neskak beren aldetik, eta mutillek beste aldetik. Dana bete-bete einda, hoixe, horrea besteik ez zan juten. Egunero ezta jun'e ez giñen eitten, klaro, etxen beti izaten zan ba lana. Ta behin egun bat galtzen bazendun hurrengo egunen juteko gogo gutxi. Hola izaten zan gure eskolea, hori pasatzen da.

-Eta erderaz zer moduz moldatzen ziñen?

-Gaizki. Sekula ez det ikasi nik erderaz. Ta hori penagarrie da e! Eesango deu, euskerea ta, bai, ta hau ta... baiño, joe, erdere, erdere... zuek, gazte batek. Gaur ez, gaur aurrerapen haundik dare, ta gaur ikasi, baiño gure garaien... Ni soldadu jun nitzen garaien nik erderaz ez nekin. Ta zenbat sufritzen dezu, holako leku batea zoatzen garaien?

-Pixkat defenditzen jakinez gero, gutxiñez.

-Ezin ordea defendittu! Zuk gogoan zenduken gauza bat, zure superiorai ta hango jendei esplikatze gaitasunik ez baldin badaukezu, ixilik tragau behar! Bakizu zer dan hori? Buenooo. Erderaz gaizki. Guk sekula hemen erderaik ez gendun. Guk beti hemen euskerea ebali deu hemen, beti, gaztek, gere lagunarten eta danen, euskerea.

1.17. Bainuetxea komentu bihurtu eta komentua lantegi

- **Hizlaria(k):** Alustiza Gabiria, Nikolas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** GAB-006/027
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:45:35. **Bukatu:** 00:47:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- **Laburpena:** Pasiotarrek bainuetxea erosi eta komentu bihurtu zuten. Bainuetxe zen bitartean, ur beltza (ur sufretsua) zegoen, oso dotorea zen. Gaur egun, lantegi bat dago bertan.

Transkripzioa

-Hemen pasiotarrak egon zien baita, ezta?

-Bai, pasiotarrak eon zien. Geo hemendik Urretxura jun zien.

-Pasiotarrak zer zeuken etxeren bat hemen?

-Komentue, hemen. Baiñuetxea zan hori, geo hori erosi ein zuen.

-Lehenbizi baiñuetxea zeon hor? Nun zegoen?

-Bai, bainuetxea. Hortxe dao. Oain ez da ikusten. Oain'e hor dao.

-Gabiri ala Ormaiztegi zan hori?

-Gabiri. Ormaztegin'e bazan e, Ormaztegin beste bat zan. Ormaztegin, han, zubie pasatzen dan azpin zan. Nik Ormaztegiko balnearioa funtzionatzen ikusi non nere denboran.

-Gabiriko ezautu zendun?

-Ez, ez, ez. Gabirikoa nik ezautzeako pasiotarrak hartuta zeukien.
 -Zer izen zun baiñuetxe horrek?
 -“Baños de Gabiria” esaten zioen. “Baños de Gabiria”.
 -Horko urak zer eukitzen zun, zer berezitasun zun?
 -Horko udek, oain’e hor badao, hor barrun itturrie, “agua sulfurosa”. “Ur beltza” esaten diou guk, ur beltza. Arrautza ustelan gustoa eo eukitzen don ura da hori. Hori omen zan. Oaindi hor dao itturrie, baiño hori baiño gehio, beste batzukin nahastuta hola. Izugarritzko baiñuetxe elegantea emen zan hori e!
 -Gaur egunen zer dao, lantegin bat hor?
 -Bai, hor Edersal dao. Mosaiko txiki hori eitten due hor. Ni, neu’e ibili nitzen ni hor lanen.
 -Oseake, dotorea zan.
 -Izugarri, hor lokal batzuk... Ni pasiotarrai aittuta nau, ikaragarri. Garai haitan, ez dakit ze garai izango zan, ikaragarri dotorea zala. Onenetakoa zala.
 -Pasiotarrak egon zien, ordun, gero, hori erosita.
 -Bai. Hori erosi zuen. Badet nik hor, liburun bat bada, ze urtetan erosi zuen eta dana, zenbat diru pagatu zuen eta dana. Nik oain burun ez dauzkat. Pasiotarrak eon zian, bai.

1.18. Pasiotarrak Gabirian

- **Hizlaria(k)**: Alustiza Gabiria, Nikolas
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: GAB-006/028
- **Iraupena**: 0:01:28. **Hasi**: 00:47:37. **Bukatu**: 00:49:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- **Laburpena**: Pasiotarrek ikasleak ekartzen zituzten, beren kongregazioko fraide izan zitezen. Pasiotarrak euskaldunak ziren, nahiz eta hasieran kanpotarrak izan eta horregatik eztabaidak egon ziren herrian.

Transkripzioa

-Pasiotarren berezitasuna zein zan? Pasiotarrak ze eitten zuen?
 -Pasiotarrak, ikaslek eukitzen zittuen, ekartzen zittuen, baiño been kongregazioako. Ekarri eta gero fraile segitzeko. Hori zan, hori hortako komentue zan. Hor ehun eta gehiago ikasle eoten zian, garai haitan. Danak ez zuen segiko, baiño askok hor ikasten zuen, gero mezea ematen zuten, eta bat Ameriketara, bestea ez dakit nora, hortik zabaldu zien danak. Hortarako izan zan hori.
 -Hemengok zien pasiotarrak?
 -Bai, euskaldunek zian. Aurreneko zean, hori martxan jartzeko ta, kanpokok’e izan behar zuen, ta eztabaidak-eta haundik ebaltzen zittuen. Liburu o rebista bat badet horren gaiñen, ta han nau ni leittuta. Eta, ebaltzen emen zuen, ba, diferentzik kanpoko jendek, ta hau ta hori ta, urte txarrak pasau izango zittuen. Baiño gero behintzat hor asantau ta hor... nik asko ezautu dittu hemen. Hor pasatu dien frailek, asko; bizkaitarrak, eta nafarrak, ta Arabakok. Bizkaiti asko, ta Gipuzkoatik’e bai. Hemen pasau dienak.

1.19. Gabiriako parrokoaren eginkizunak

- **Hizlaria(k):** Alustiza Gabiria, Nikolas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** GAB-006/030
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:49:29. **Bukatu:** 00:51:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- **Laburpena:** Gabiriako elizan zeuden parrokoek buruz eta haien eginkizunei buruz hitz egiten du.

Transkripzioa

-Hemengo elizan pasiotarrak ematen zuen meza?

-Ez, hor apaize parrokoa eoten zan. Eske, garai hortan, ni esaten ai naizen garai hortan, hiru apaiz eoten zian hemen. Beno, hiru ez zian hemen eoten. Parrokoa eoten zan hor bertan, gero koajutorea esaten zitzaiona, bi tokatzen zitzaion, ta bat eitten zon pasiotarrak, eta bestea eitten zon, Santa Marinan zeon bestea ta. Baiño horik, Gabiriko parrokon mende eoten zien bi koajutore horik. Parrokoa izaten zan nagusi, ta hiru horik izaten zien. Ordun, igandetan e....

-Hemen ingurun zein zien: Aztirin, Gabirin, eta?

-Gero beran dao Alegi.

-Alegin´e bazan ermita?

-Alegin´e badau, baiña Alegin dao Itsasoko parten, eliza ta hori. Barrion Gabirik´e badauke partea. Errekek ebagitzen do, harek banatzen dittu, ta errekez beste aldeti dau. Ordun, Itsasoko apaize eoten zan. Hola zien hemengo kontuk. Ta apaize, Aztirin eoten zana, ia kasi igandero etortzen zan handik Gabirira, mezea laguntzea, ta eittea. Han eman, ta hemen mezea ematea eo, igandero oiñez, hemendi pasatzen zien horik danak, hau zan bidea ta.

1.20. Antzerki-taldean sartu eta lehenengo pausoak

- **Hizlaria(k):** Alustiza Gabiria, Nikolas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** GAB-006/040
- **Iraupena:** 0:04:04. **Hasi:** 01:07:13. **Bukatu:** 01:11:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
Aisia » Kultura » Zinema
- **Laburpena:** Antzerkigintzan ibilitakoa da Nikolas. Lehenengo antzerkia 1949an egin zuten, soldadutzatik etorri berri zela. Antzerkigintzan zergatik sartu zen azaltzen du. Eskolako maisu izandakoa izan zuten antzerkiko maisua. Ehun dukat izan zen beren lehenengo obraren izena. Mutilek bakarrik hartu zuten parte aldi hartan. Antzerkia ikasteko, eskolan elkartzen ziren iluntzeetan. Gerora, antzezlan gehiago egin izan dituzte, neskek eta mutilek denek batera. Garoa antzezlanean Nikolas izan zen protagonista.

Transkripzioa

-Zu antzerkigintzan ibili ziñen.

-Bai.

-Zer urtetan hasi ziñen antzerkigintzan?

-Beida, ni, lehendabiziko antzerkie guk hemen ein gendun... Cin...

-Cuarenta y ocho?

-Ez, ez. Cuarenta y ocho baiño geroxeo. Cuarenta y nueve? Ba, hor, hor, hor. Berroeta... bai. Hori esan dizu baten batek nik baiño segurogo.

-Bai, irakurrita dauket hemen Gabirin 48n izan zala lehenengo antzerkie.

-Berrogeita zortzie al zan? Balitteke. Ni soldaduskatik ordun etorri nitzen. Ni cuarenta y seisko kintea naiz. Ni jun nitzen, esto... ni soldaduskatik lizentziau nitzen berrogeta zortziko irailen, eta hurrengo urten eingo zan, cuarenta y nueven izango zan hemen lehendabiziko antzerkie. `Ehun Dukat´ ein gendun lehendabizikoa.

-Nolatan hasi ziñen antzerkigintzan?

-Hemen apaiz bat zeon, ordun parrokoa, Donostittik etorritakoa. Aurretik zeona, aurretik eon zana, kanbiau ein zittuen, eta hori etorri zan Donostitik, Donostiko San Bizenten zeon hori, hemen eon zana. Bizkaitarra zan bea izatez. Eta gaiñea politika gorabeherak'e bazien ordun, ta kastigu bezela're pixkat herri txikin batea uste det horreatik bialdu zuela. Oso jatorra zan. Dono Lorentzo Salaberria. Handik etorri zan. Hori zeon hemen apaiz. Horrek, eta gero lehen esan diana maixue, gure eskola maixue, Iturrioz, Albizturkoa, hure zan gero lan haundie ein zona. Apaiz hau hasi zan, lehendabiziko horrek erakutsi ziun, ta eskolan ein gendun guk lehenengo antzerkie, ta zan `Ehun Dukat´. Bere zea zan, Manuel Lekuona, Oiartzungo apaize, harek eindakoa zan hori. Oiartzungo zean zeon einda, baiño oso ona zan. Mutillek bakarrik eitten zuen. Hue zan lehendabizi ein genduna.

-Mutilek bakarrik?

-Bai.

-Eta, antzerkia ikasteko non elkartzen zineten?

-Hantxe, eskolan, illuntzatan ta. Han. Ez zeon beste lekuik eta. Tokie bazeon, oain saloi parrokiala dan leku hortan, baiño tokie bai baiño gaizki.

-Eta, Nikolas, zeatik mutillek bakarrik?

-Bueno, hori mutillek bakarrik... Antzezlan hue hala zalako. Gero ein dittugu mistok alkarrekin, hoixe. Ta ze lanak? Ze obrak hemen ein die? Ez pentsatu e! `Garó Usaia´ bat, `Garó Usaia´ bat, Euskal Herriko bizitza guztie, baserriko bizimodu guztie erakusten dona, `Garoa´tik hartutako zera da, `Garoa´ nobelatik hartutakoa da. Izugarri ona, zoragarrie. Han protagonista izan nitzen ni, aurreneko aktore izan nitzen. Eta hogeitaka lagunek genden.

-Zer ziñaten, danak edade igualtsukok?

-Bai, bai, bai. Danetakok. Tokatzen zan, ba, klaro, mutikok-eta lan ein beharrekok bazien, baiño neska eta mutil, ba, hor edade modutsu hortakok, neska eta mutillek.

1.21. Gabonetako kanta abesten

- **Hizlaria(k):** Alustiza Gabiria, Nikolas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** GAB-006/057
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 01:38:31. **Bukatu:** 01:40:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Gabon kantan
- **Laburpena:** Gabonetako kantan asko gustatu izan zaizkio Nikolasi.
Kantu haietako bat abesten du.

Transkripzioa

-Nikolas, Gabonetako kantuk-eta zuri asko gustatu izan zaizkizu.
-Gabonetan hemen'e hor'e makiña bat ibilli ein gendun, Gabonetan'e.
Jesuusss. Eta kantuz, kantuk eta. Orduko kantu zahar bat. Oaiñ'e, hemen
etorri zitan, etorri zitan eo, ez, ez, Gabirin sozidaden izango giñen gaiñea,
nola zan ta hori ta. Hoi kantatzen due hemen kanta hure, zea, guk
kantatzen gendun hura.

-Zer kantu zan? Atrebentzie ez bada.

-

"Goazen, goazen guztiok
bertatik Belena,
adoratu dezagun,
Jesus haurtxo jaio dana".

Holako modutsukoa zan. Gero... Bi estrofa dittu.

"Jose eta Maria,
Belengo herrian,
ostaturik eziñik,
gauaren erdian.

Argiturik honela..."

Ez, baiño hori baiño lehenao dauke beste bat, oso zea dauke horrek.

-Eta, gaiñantzean, koplak edo.

-Oain abesten due hori. Hemen, bastante, oain gaiñea zea bat dau bizitzea
etorritta, Barriola, Xabier Barriola, musikoa, lehen Legazpiko koru baten
diretore ta organista ta... oain bizi da hemen, hemen pixue erosi zon ta,
hori ibiltzen da oain hemen dirijitzen. Bi aldiz eo eon izan da hemen honea
etorritta, lehenaoko holako kanta zahar batzuk jasotzea.

2. Baserria

2.1. Garia egin eta sagarrak saldu

- **Hizlaria(k):** Murua, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):**
- **Erref:** GAB-002/004
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:06:50. **Bukatu:** 00:08:10
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena:** Garai batetik honako aldaketa aipatzen du. Ogia jateko
garia egin behar izaten zuten. Sagarrak saltzera ere joaten ziren,
kuadrillan, astoa hartuta, oinez Bergarara, Oñate eta Legazpira,
esaterako.

Transkripzioa

-Garai haitatik honea diferentzie haundie?

-Garai hartati honea, diferentzie ikeragarrie, ikeragarrie. Ordun ogie jango bazan garie ein behar zian. Ta artoa jango bazan, artoa eo, taloa jateko. Oaiñ horik etxea einda ekartzen zituek. Geo sagar garain sagarra bildu ta, hori're bai. Sagar saltzea ni gazteik juten nittuan, Oñatia hemendik oiñez. Hamabost bat urtekin jungo nittuan ni Oñatia, goizen bosteterditan astokin irten, eta beatzitan o hola allatzen giñuztean hautza. Bosterditan irten ta beatzik aldea. Koadrilla juten giñuztean, igual hamar-hamabi laun, bakoitze bere astokin, sagarrakin. Oñatia ta, Bergara're bi aldiz eo jun nittuan, oiñez hemendi Bergaraa. Ta Zumarragaa ta Legazpira astero, ia astero. Aitte-ta ez zerean etxen, gerran horti aurea junda hittuan, Bizkai alden, ta aittona ta amonakin, ta ama. Gu mutikook. Ahal zan modun. Ordun ez zeoan, dirua ekartzu eta afaltzea jun behar det eta, holakoik!

2.2. Esnea saltzera Ormaiztegira eta Zumarragara

- **Hizlaria(k):** Murua, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):**
- **Erref:** GAB-002/008
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:12:09. **Bukatu:** 00:14:00
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- **Laburpena:** Ganadu asko izan dute beti eta etxeko esnea Ormaiztegi eta Zumarragara saltzen zuten. Orduan garaiz jaikitzen ziren. Gaur egungo eguneroko bizimodua eta irakurketarako duen zaletasuna aipatzen ditu.

Transkripzioa

-Goizetik gauea zer eitten zenduen?

-Goizetan, lehenau, guk ganau asko euki izan deu beti, eta ia hogeit urten esnea. Behiek etxen jetxi, eta etxeko esnekin Ormaztegia ta Zumarragaa. Ia hogeit urte. Goizen jeiki ein behar ordun, ordun ez zeoan lo eitteik nahi zan arte. Oain berriz, oain lasai. Oain goizen zortzik aldea arte o aspertu arte. Ni jekiko nitzekena, baiño jeikita're ze ein haundiik ez ta. Geo, bi o hiru behi're badauzkeu, ta haek pixkat jana eman, ta haek pixkat kaso ein. Egoaldi ona baldin badau basoti buelta bat ein, bason pixkat piñuk o zuhaitzek nola daren beittu, ibili pixkat. Ta apetittu ona ta bazkaltzeko pronto. Bazkaldu ta geo siesta, eunero siesta pixkat. Ta gero, leittu. Nei leitzea asko nola gustatzen zaten, beti leitzen det, beti leitzen det nik. Andrea ta aspertu arte, ez omen diot kasoik eitten, beti leitzen aitzen omen naiz ta, nik ez omen diot kasoik eitten ta. Baiño leittu asko. Ta ohia garaiz, beatzik aldeako ohia, ta lo seittun. Geo, goizen lauek alden, jenealen orduako nahiko lo einda esnau, ta ordun radioa jarri, ta ze berri daun eo pixkat zeatu ta. Jeikiko nitzekenen, behin seiek o zazpik ezkiu, jeikitze gogokin.

2.3. "Barreñoia", putzuak eta karburoa

- **Hizlaria(k):** Etxeberria Amiano, Eusebia

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: GAB-004/009
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:08:35. **Bukatu**: 00:10:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana
- **Laburpena**: Urik ez zutenez, bainuak terreina ("barreño") handi batean hartzen zituztela kontatzen du. Bi putzu ba omen ziren, bata ganaduarentzako eta arropak garbitzeko bestea. Sukaldea karburoz edo kandelaz argizatzen zuten. Madrildik etorritako langile hantusteeek kapelak kendu eta galtza motzetan, gozatu egiten omen zuten baserriko bizimodu harekin.

Transkripzioa

- Zuek, baserrin, esan dezu komuna zulo batekin. Eta baiñuk-eta nun hartzen zittuzuen?
- Barriñoian, barriñoi haundi baten. Komunen sartu, ta barriñoian.
- Argie ta ude beti izan zittuzuen etxen?
- Argie're jarri zon gure aittejaunek. Eukitzen gendun, bestela, nola aittek eitten zon karrillen lana, zan gauza bat karburue esaten ziena, hola, katxarro txiki batekin. Eta karburu hori jartzen gendun tximinin, beheko suko tximinin, ta eoten zan formidable sukaldea, oso edarki. Geo, habitaziotan, pentsaizu nola ibiliko giñen; kandelakin. Gure aittejaun horrek, "ez, iñun zeaik baldin bada, ekarriko diñat ba nik argie!". Klaro, Madrilgo jendea etortzen zan, Bilbaokok'e bai, en Babcock Wilcox lana eitten zuen, "iban de sombrero a trabajar," eta haak gure etxea etortzen zienen, si les ves? Haak gozatzen zuena. Haak gozau eitten zuen e! Jartzen zien praka motzakin ta kamixetakin, "allí no había ni sombrero ni corbata".
- Ohittu gabe hala ibiltzen.
- Bai. Haak gozatzen zuen ona! "Si nos vería nuestra madre", decían.
- Eta ude beti euki zenduen?
- Ude're ez, ez.
- Nundik ekartzen zenduen ude?
- Ude, ba, geure potzuk zeren han, bat behientzako ta bestea erropea jotzeko. Fiestatako barrika pare bat ekartzen giñutzen. Oso leku onen dau gure etxea, oso leku edarren. Ikusten da Ezkio, Itsaso... oso edarki.

2.4. Ahizparekin segan

- **Hizlaria(k)**: Etxeberria Amiano, Eusebia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: GAB-004/015
- **Iraupena**: 0:03:03. **Hasi**: 00:17:32. **Bukatu**: 00:20:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak
- **Laburpena**: Aitak eta anaiak kanpoan lan egiten zutenez, andrazkoek egin behar izaten zuten segan. Ahizparekin aritzen zen segan. Apaizak ere harrituta begiratzen omen zien. Belar eta garo hura behien azpiak egiteko etxera eramaten zuten gurdiz. Segak pikatzea gizonezkoen lana omen zen eta aitak egiten zuen.

Transkripzioa

- Segan eitten zendun?
- Bai, gizon batek bezelaxe.
- Nolakok zien orduko segak?
- Oain bezelakok. Garo saille izaten zan txikigoa. Juten nitzen, eon nitzen tenporada baten presidenta de la congregación, eta bi ahizpak ai giñen segan. Klaro, anaiek fabrikan lan eitten zon, aittek karrillen, ba emakumak ein behar. Eta, esaten emen zion, neskei; “osea, tenía sirvienta, yo no sé qué sería, o prima, o criada o lo demás”. La cosa es, beakin bizi zala, eta esaten emen zion: “ikusi ez banu, ez nun sinistuko hau'e. Ez nun sinistuko. Neska hok balio due e!”. Eta eon emen zien, neskea ta bik, guri beida, segan nola eitten gendun. Esaten emen zuen: “Increible. Nik, ikusten ez baet, ez nun sinistuko”. Geo tokatu zan berriz'e altarea jaztea jutea, eta esan zian: “fuerte zare e!”. Esan nion: “zer bada?”. “Fuerte. Lehengon segan ikusi ziñuztan”. “Ta kasoik eñ ez?”. “Bai, berriketatako gogoa zenduken. Fuerte ai ziñeten!”. Gu saille ebaitzeko, gere saille hartuta.
- Segan zenbat lagun aitzen ziñeten?
- Ahizpa ta biok.
- Han'e sekreto beharko zun ba, ondo ebakitzeko?
- Ez, zulo-mulok'e earrak bazeren. Baiño haak, bueno, pixkat erremindu eo ez dakit ze eitten gendun.
- Ta belar hue nun pillatzen zenduen o ze eitten zenduen?
- Hure etxea, azpittako. Behien ohiak eitteko.
- Nun eamaten zenduen?
- Gurdin. Behie lotuta, gurdin.
- Garotan'e aitzen ziñeten, ordun?
- Bai, enee! Gero labe sue're etxen eitten gendun.
- Garotan ta belarretan berdin eitten zan?
- Bai, gurdikin. Belarra're, oain askoz xamurrago da, enpaketatzen makiñak, ebaitzen makiñak. Baiño ordun dana segaz, dana eskuz.
- Segea pikatzen jakingo zendun ordun?
- Ez, hori aittek eitten zon. Hortan ez non ikixi. “Era más cosa de hombre”.
- Aittek jartzen zizuen ordun?
- Aittek jartzen ziun.

2.5. Etxeko arto eta gariarkin taloak eta ogia

- **Hizlaria(k)**: Etxeberria Amiano, Eusebia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: GAB-004/017
- **Iraupena**: 0:02:17. **Hasi**: 00:22:05. **Bukatu**: 00:24:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 - Baserria » Baserriko lanak » Garia
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena**: Amak erakutsi zion oraindik umea zela labe-sua eta taloak egiten. Etxeko artoa eta garia Gabiriako komentuaren aldamenean zegoen errotara eramaten zuten. Bide luzea zegoen bertaraino. Lana bai, baina goserik ez zuten inoiz pasa. Gerraostean bai ordea, artoa eta garia kentzen zizkieten eta orduan ezin iritsita ibiltzen ziren.

Transkripzioa

- Euxebi, baakit zu talo eitten ta ibilitakoa zeala.
 - Bai. Soberbiok eitten dittut.
 - Nolaz hasi ziñen talok eitten? Nun ikasi zendun?
 - Ba, amak, amak eakutsi zian. Labe sue eitten'e bai. Amak garaiz eakutsi zian, zeati gure aittei asko gustatzen zikon taloa. Ta talo ta esnek zeuken alimentu haundie. "Hasi behar den". Ta esan nun, "Hasiko naiz ba". Ta labe sukin'e bai. Zeatio ni makal geauko banitz, urdun hautza ez zan panaderoik juten. No había pan, ta jan behar zan zortzi euneko ogie. Gue umei eman behar oaiñ! Uuuuu! Zortzi euneko ogie. Eta ikixi nun daneti, daneti.
 - Iriñe ordun bazenduen etxen. Artoa ta garie eitten zenduen etxen.
 - Bai. Ni "una mujer preparada" ezkondu nitzen.
-
- Errota nun zenduen, Euxebi?
 - Errotea, Gabiriko komentue bakizu nun daun? Ormazteitik gora, convento pasionistas, Lurdes, haetxen ondon. Menudo viaje e! Hautza juten giñen iriñe ekartzea. Bai arto iriñe, ta bai ogiriñe.
 - Etxen nahiko artoik izaten zenduen?
 - Bai, bai. Ondo eoten giñen. Goseik ez gendun ikusten. Goseik ez. Oain, lana're bai. Baiño, halaxe behar zala ta.
 - Ez zenduen sekula estraperlon hartu behar izaten iriñe? Izaten al zan nahikoa etxen?
 - Kendu ziuén, geo hasi zien gerrate ondon, kentzen. Ordun ez giñen allatzen, eta ordun kristonak pasau behar. Ordun gosea, ordun bai. Gerrate ondon gosea pasau gendun.

2.6. Sagar motak eta haien berezitasunak

- **Hizlaria(k):** Alustiza Gabiria, Nikolas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** GAB-006/005
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:07:43. **Bukatu:** 00:10:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Maiz, Aimar
- **Gaia(k):**
 - Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
 - Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
 - Baserría » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak
- **Laburpena:** Sagar urteak zirenean, sagarrak saltzera joaten zen Nikolas. Sagasti handiak eta sagar onak izaten ziren lehen. Lehen sagar mota asko egoten zen. Sagar mota bakoitzaren berezitasunak aipatzen ditu. Sagarrak hainbat herritan saltzen zituzten lehen. Nikolasen ama ostiralero joaten zen Legazpira, eta sagarretatik lortutako diruarekin etxerako behar zituzten gauzak erosten zituen.

Transkripzioa

- Nikolas, esplikatuko dittuzu banan-banan bakoitzak zer berezitasun zituzten sagar horiek? Errezila nolakoa da?
- Errezilla da sagarretan, nik esango nizuke, ba, errezille da erreta jateko, konpota einda jateko, eta bera gordiñik jateko're, baiño utzi ein behar zaio pixkat, bittu ta seittun goorregie izaten da gordiñik jateko. Baiño bere garaie etortzen zaio. Zeatik, sagarrak biltzen dia, udara atzenen, urrie, urriñ azkena, Santu Guztinhetako, hortxe bittuta hor izaten dia. Ordun errezil

sagarra eoten da, bittu berrin gordiñik ez dau, baiño erretzeko bai, konpota eitteko're bai, ta geo, menbrillu bezela dultzek eitteko ta. Errezil sagarra kategorikoa da. Ta, gero, lehen esan deana, gordiñik jateko ia otsaille, marso aldea eo. Hemen goiko zea hontan, hau goi hori holako altura baten dana beteta eukitzen gendun guk hemen saarez. Usai bat botatzen zuen... Saldu eitten zendun: Oñatia, Legazpira, Zumarraga, Ordizia... danea sagarra. Ordun, hortik. Sagarra eamaten zon, merkadua juden zana Leazpia, gure ama zana Legazpia, hure ostirelero juden zan astokin, hemendi aurea. Gaiñea gustatzen zikon gauzak ondo ta. Etxen behar zian gauzak eta hori dana beti Leazpitik ekartzen zittun. Ordun, sagarran diruk hartu ta etxen behar ziñuzen gauzak eta, han eosi, ta hola moldatzen zien. Ta hortako izaten zan hori.

2.7. Lehengo zuhaitzek, batere zaindu gabe, sagar onak ematen zituzten

- **Hizlaria(k):** Alustiza Gabiria, Nikolas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** GAB-006/007
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:12:46. **Bukatu:** 00:15:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Maiz, Aimar
- **Gaia(k):**
 - Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
 - Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
 - Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak
- **Laburpena:** Hainbat fruta-arbola izaten zituzten etxean. Garai hartan ez zegoen zuhaitzak zaindu beharrik, onak ateratzen baitziren berez. 1935ean zuhaitzei botika botatzera etorri zen mutil bat aldunditik, baina ordurako sagarrak oso onak ziren. Sagar mota bakoitzaren zaporeari buruz hitz egiten du. Sagar gezak eta gaziak. Sagar geza sagardoa egiteko izaten zen.

Transkripzioa

-Beste fruta-arbolaik bazenduen?

-Bai. Fruta-arbolak? Oain guk eztauku frutaik, baiño. Aran garaian aranak, keiza garaian keizea, eta danetatik fruta.

-Zein ibiltzen zan fruta-arbolak zaintzen?

-Zaindu! Zaindu! Garai hartan ez zan zaitzen arbolaik, e. Nik ez dakit oain. Oain dana zaitzen ez bazu ez daukezu ezer. Sagarrak guk hemen, eta guk bezela gehiagok hemen hartzen zien sagarrak. Ni gogoratzen naiz urte baten, bai, tratatu bat eman zitzaiola. Treintaiseisko gerra hasi baiño urtebete lehenau izango zan. Diputaziok ipini zon zean bat, arbolai emateko jeneroa ekarri zon, ta ni gogoratzen naiz hemen mutil bat, baserriko mutil bat izendatu zuen, ta botika botatzeko tresna hori bizkarren hartu ta hemen nola ibili zan inguruko baserriko sail danai botatzen hori. Baiño gaiñantzen ez zitzaion ezer ematen arbolei, ez adarrik kendu're. Baiño ze sagarra izaten zan! Ez dakit ba nik hor zer gertatu dan.

-Gaur baiño komeri gutxigokin hazten ziela.

-Bai. Baiño jenero ona gaiñea. Ta gaiñea, esaten nizuna, zenbat sagar klase zeren. Gazilokea ere bazan, zuri-zurie. Gazilokea esaten zitzaion, ta gazi xamarra zan. Baiño bitzen zendun, ta ekartzen zendun ganbaraa, gora, ta gero handik bittu ta hillabete batea eo hue gordiñik jateko, bueno,

mantekea bezelakoa izaten zan, zoragarrie. Txori sagarra, txori sagarra zan gozoa, sagardoa eitteko ta ibiltzen zana, baiño jateko're ikeragarri gozoa. Txori sagarra. Mokotxoa; hori ia beranduagoko, mokotxoa, mokotea, hori zan goorragoa, hori ia azkeneako izaten zan, baiño hue're ona izaten zan. -Gozoa?

-Gozatzen zan gero're, baiño hain gozoa ez. Hori ia zien, esaten giñun, sagar "gezea", gozoi esaten zitzaion "gezea", eta bestei esaten zitzaion "gazie". Gezea ta gazie. "Hori gezea dek", esango zizun, "hori sagar gezea dek, hau gazie dek". Gezea hori izaten zan jeneralmente sagardotako, sagardotako izaten zan hori.

2.8. Sagarrak saltzeko trikimailuak

- **Hizlaria(k)**: Alustiza Gabiria, Nikolas
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: GAB-006/008
- **Iraupena**: 0:03:36. **Hasi**: 00:15:19. **Bukatu**: 00:18:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Maiz, Aimar
- **Gaia(k)**:
 - Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
 - Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
 - Baserría » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak
- **Laburpena**: Jendeak etxean jateko erosten zuen sagarra. Sagarra orduan dozenaka saltzen zen. Sagarrak saltzean, onenak saski gainean jartzen zituzten; haiek saltzen zituztenean, ordea, okerragoak gelditzen ziren, eta orduan erostunekin tratua egin behar izaten zuten saldu nahi bazituzten.

Transkripzioa

-Jenealen jendeak zertako erosten zun sagarra? Etxen jateko?

-Jateko, jateko.

-Erreta jaten zan o gordiñik?

-Gordiñik igoal. Mutikoxkorrak eta zeren lekun ez zeon /etzeon/ janik eta, handik emango zioen koxkorren bat eo, meindatzeko eo, ogie eo. Ogiik'e ez zan /etzan/ garai haitan ta! Jateko.

-Gogon daukezu ze prezio zun sagarrak ordun?

-Joe, nik ordun... Preziok... hoixe ez dittut ba nik ondo jaso, zenbat... Nik, esto... Klaro, dozenaka saltzen zan, dozenaka. Orduko mentalidadea, gaur kiloka eitten da, baiño ordun dozenaka, kiloka ez zan /etzan/. Guk beti dozenaka saltzen gendun sagarra. Ta, lehen esan dizut, bi zexto izaten zien, asta-zextok esaten zitzaion, xexto espezialak izaten zien astokin ibiltzeko, luze antxekok. Geo erdin, lehen esan diana, esku-xextoa esaten zitzaiona, hure. Sagarra, beti, hemen ama zanak eo, nik sekula ez saltzeko sagarrik jarri baiño, ama zana ta beste batzuk sagarra, hak jartzen zuen, xexton lehenengo azpin txiki xamarrek; geo pixkat haundixea; ta gaiñen, haundiñak. Ikusi zezala ona. Sagarra itxurazko ona nahi zona, hure beti goizago jungo zitzatzun erostea, eta harek, klaro, onenak eamaten zittun, paatu're bai, ta gero handik behera txikigok eoten zien ta komerik. "Bai, hori, prezio hori, onenak eaman dittu horrek. Hor txikigoa dau". Tratue ein behar izaten zendun. Tratue, buenoo. Ta, gero, Oñatin, hautza juten giñen ta, geo handik onea sobratzen bazazun ezin ba, nola ekarriko ziñuzen ba sagarrak atzea, lehen etxen sagarra besteik ez zenduken /etzenduken/ ta.

Eta han andrak ibiltzen zien, beida beti, azkeneko zea horik, merkego emateko. Ta hala esaten ziuuen oñatiarrak han ibiltzen zienak: “zematian, zematian”. Ba, hainbesten. “Eeeee! Ez, eman beharko dezue /beharkozue/ merkego, hamabixak dia ta”. Hamabik ziela ta, ia hamabik-hamabittarditako bukatzen zan ba, merkaue, ta “hamabixak dia ta, eman beharkozue, merkeago, eman beharkozue”. Hala izaten zan. Beharko eman, geo, azkeneako. Hala izaten zan. Garai hartako kontuk horik zian. Ta, zuk esaten dezu /esatezu/, prezioa. Dozenaka izaten zan, ta ze sagar zan, nola zan. Ni akordatze naiz, aston lehen esan dittuan sagar horik hiru duro, hiru durotik, hor, o lau duroa bittarten, hola izango zan. Astokin junda hautza. Dirue zan garai hartan e, duro bat dirue zan ta. Zuk esango dezu, hiru durokati, aston eamanda, e? Hor ibiliko zan. Oaiñ, lehen esan deana, sagar onak baldin bazian, ba, haik, Gabon ingurun ta, haik dirue ondo. Garai hartako bizimoduako sagarrak asko salbatu giñuzen gu hemen. Sagarrakin, diru asko. Bo, asko, garai hartaako behintzat.

2.9. Etxeko abereak eta haien zereginak

- **Hizlaria(k)**: Alustiza Gabiria, Nikolas
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: GAB-006/014
- **Iraupena**: 0:02:23. **Hasi**: 00:22:50. **Bukatu**: 00:25:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Maiz, Aimar
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Lehen etxearen egitura nolakoa zen azaltzen du. Abere ugari zituzten: txerriak, oiloak, untxiak, astoa, behiak... Lehen behiak erabiltzen ziren lanerako, ez idiak. Behi haiek gogorrak izaten ziren, eta ez zuten esne askorik ematen.

Transkripzioa

-Nolakoa zan etxea?

-Hau etxeordekoa da. Etxea, hori. Ba! Nolakoa izango zan ba? Neargarrie. Oain'e ez dao zean, baiño, ba! Oain behintzat arreglauta ta... hola. Neargarrie. Hor, hor eukitzen giñuzen, ukuillue hor zan, ta behiek, hiru behi, lau, hola. Lau, hiru. Badauket hemen gertatutakoa. Ta hau zan etxeordekoa, ta hemen eoten zien txerrie, txerritegie, txerrie, urteko txerrie, bat o bi o, gizenduta, zerbait etxekok jateko behar zendun garai haitan ta, txerri onak hazten zien hemen ordun, baserri danetan e! Jana're ematen zitzaiona sana zan, ta ona.

-Urte guztirako txerriak?

-Bai urte guztiako! Asko ez zeon jateik! Egunero... Hue jateko zenbat ba? Oain esaten due, “bai, txerriak ez da komeni, jateko ez da komeni!”. Ez, ordun'e ez zan komeniko, baiño ordun iñoi ez zion gaitzik eitten, garai hartan. Eta... esango dizut... hemen, txerritegie, gero han atzea pasau gendun, baiño hementxe zan, hor, txerritegie. Oillok'e hemen eoten zien, konejuk'e bai, astoa're hemen eukitzen gendun, aska batzuk-eta hor lotuta. Gero, behien bat eo erosi ein behar izaten zendun. Klaro, zaharra kendu, berrie ekarri ein behar, zerbait eitteko. Zeatik, behiekin uztarrin'e... Idik, ia geroxeo, lehenau hemen nik ez non ezautu iriik. Gero bai, gerora, ze esango dizut ba nik, el año... berroeta bosten eo hola, ordun iriik, laneako iriik ekarri zien. Bestela, behiekin ein behar izaten zan hemen

lana're, haik uztarrin lotu ta zeak eitteko... Ta, hortaako, klaro, gaur behiek esnea saltzeko ta, jendek hortako ebaltzen dittu, o bestela haragitako eo, okelatako, gizentzeko. Baiño ordun laneako behar izaten zan behie, ta laneako behi hori pixkat gogor antzekoa behar izaten zan, ta harek esne gutxi ematen zun. Harek ez zon esneik ematen. Emango zizun ba zeeze bai, etxeko pasarea eitteko zerbait emango zizun.

2.10. Behiaren esnea eta astoaren egarria

- **Hizlaria(k):** Alustiza Gabiria, Nikolas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** GAB-006/015
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 00:25:13. **Bukatu:** 00:28:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Maiz, Aimar
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** Behi berria ekartzean, 8 egun aparte egon behar izaten zuen. Corpus egun batean, ama eta anai-arrebak etxean zeudela, behiaren lanak egitera bidali zuten Nikolas; jetzi zuen esne guztia, baina, astoak edan zuen ezkutuan.

Transkripzioa

Ta behi berrie ekarritakon, beti bildurre izaten zan, ba harekin gaitzen bat ekarri igoal eitten zendun. Berrie ekarri behar zendun noabait junda, tratantek esaten ziten, ibiltzen zien saltzen, ta haikin tratue ein ta behie ekarri ta, hola. Behintzat, behi bat nere anaiek ekarri zon berrie, akordatzen naiz gaiñea nun. Ordun, behi hue aparte, zortzi bat egunen eo aparte euki behar zendun. Ta ukuillue han zeon, baiño behi hori, aparteko behi hori, hemen eoten zan. Corpus eun bat zan, akordatzen naiz, ez dakit ze urte izango zan, ordun Corpus eune jai haundie izaten zan, bueno!; ez zan lanik eitten, ta meza nausia jun ta eliza jun ta holakok. Behintzat egun hortan genden etxen ama, arreba —klaro, danak soltero—, arreba, ama ta nere arreba eta hiru anaie egun hortan etxen. Anaie zarrenak esan zian goizen, “hi, hik eintzek etxeordeko esto... —behi bakarra hemen eoten zan —, hik eitzak harren lanak. Jatxi zak, janak eman, ta... —azpik esaten zioen eitte, etzateko ta, garoa ta ipini ta, garbittu ta...— ipinitzek hari danak. Guk eingo zittuau hemen ikulluko lanak, beste anaiek eta biok”, eta “bale, ondo!”. Etorri naiz ni honea, hortxe, hor frigorifikoa daoneko inguru hortan o hor eongo zan behi hori. Ekarri baldea, ta jatxi non. Esne asko ez zon eukiko baiño, bazeuken esnea. Eta, nere ama zanak, Corpus egune nola zan, ba postren bat eo ein nahi zon esne harekin, egun hartan. Balden esnea, jatxi, ta utzi det hor, eskiñan, janak eman behiei ta, gero eamango nola sukaldea; janak eman, behiei bere etzateko ohia... bai, azpik ein, jarri ta, “bo, ein zittuat”. Jun naiz esnea hartzea, esnen tantonik ez. Milagroa hori da e! Esnen tantonik ez. Astoa eon aldamenen han, kateittik lotuta baiño, hure allau eitten hautza! Dana ean! Ean! Ean! Astok esnea ean? Nik ez nekin orduarte. Tanton bat utzi be. Eta hotsik’e bate etaa be ean zon harek. Dan-dana ean zian.

-Earki gerau zan hue!

-Jun naiz sukaldea. Eneee! Amak eta arrebak: “Hi, hi inuxente bat besteik

ez haiz! Hori nola ein leikek? Nola ein leikek?”. Bi anaiek, haak parre eitten zien. “Ze ingo ba? Hak ean baldin badio?”. Astok ean zian esnek. Baiño astok esnea ean? Ikusi be ez non siñistuko. Ezta arrastoik’e, hotsik etaa be. Ikeragarri gustatzen zaio.

3. Herria, azpiegitura

3.1. Autobusez Ordiziako azokara

- **Hizlaria(k)**: Murua, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: GAB-002/006
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:10:48. **Bukatu**: 00:11:38
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena**: Azokara Ordiziara joaten ziren. Autobusa bazuten eta hark behiak ere eramaten zituen. Gehienetan amona joaten zen azokara erosketak egitera.

Transkripzioa

-Ta peria?

-Peria, Billafranka bai, Billafranka feria. Baiño, autumubille bazan, Barretxe esaten zioena, hemen aurreneko autubusetakoa hura izango huan. Autubuse huan, baiño harrek txahalak eta dana eamaten zetuan. Gaiñen hankak lotuta igual, ta beheran’e igual lekue baldin bazeuken jende arten, ta txerrikumak eta dana. Baiño, peria gehienen amona jutun huan. Ordun ez huan etortzen honea zeaik, eta asteako ta behar zana o, hamabosten behin eo, kafea o, txokolatea o, zerbaitt, etxen behar zana. Zai eoten giñutzean, amona peritti etorri zai. Harrek txokolate pixkat o ekartzen zian, ta hola.

3.2. Hainbat kontu

- **Hizlaria(k)**: Zufiria, Pako; Zufiria Audela, Andres
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ikastola, Haztegi
- **Erref**: GAB-003/006
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:03:15. **Bukatu**: 00:04:50
- **Transkribatzailea**: Gurrutxaga, Aitor
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Hainbat konturi buruz hitz egiten dute: "Camino Real", Atagoitiko baserria, inguruko baserriak eta etxeak...

Transkripzioa

- Noiz sortu zen Atagoitiko baserria?

- E? Noiz eindakoa dan?

- Bai.

- Hori nere aittonak’e hola ezautu zola ta nere aittonan aittonak’e baitta.

Jainkok, Jaungoikok jakin noiz eindakoa dan.

- Nork sortu zuen?

- E?

- Nork sortu zuen?

- Noiz?

- Nork!

- Nork hartu zuen?

- Nork sortu zuen!

- Ez dakiat, ba, nik zeñek.

- Zenbat pertsona bizi dira?

- Hemen personak hemen ba... hemen ba... hemen batzutan asko eta beste batzutan oso gutxi.

- Noiztik bizi zareten hemen?

- Ni beti hemen.

- Zeintzuk dira inguruko baserriak?

- Hemen gertuenekoa bat Irazola baxerrie, ta hemen daona hau, beste txalet hori, hoi gaiñea.

- Ze zatitan dago Atagoiti: Legazpin edo Gabirin?

- Gabirin.

- Motxorra eta Atagoiti bitarteko errepidea zergatik deitzen da "Camino" reala?

- Hori, hori nik esan ezin daikena; ni mutikua nitzeneti holaxe ezautu nola ta holaxe aittu nola ta nik ez dakiala nundi etortzen dan hori, Kamiñu Real izen hori.

- Zenbat kilometro ditu?

- Honek? Motxorroti hasitta Gabiriko kruzea nik ez dakit, ba, beatzi bat o zemañt eongo dien.

3.3. Biderik ezaren desabantailak

- **Hizlaria(k)**: Etxeberria Amiano, Eusebia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: GAB-004/005
- **Iraupena**: 0:01:26. **Hasi**: 00:04:30. **Bukatu**: 00:05:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
Baserria » Baserriko lanak
- **Laburpena**: Nahiz eta behiak izan, ez zuten esnerik saltzen. Zumarragaraino astoz eramatea ez zen probetxuzkoa bide luzeegia zelako. Pentsua erosten zutenean ere, bide ondoko baserrian lagatzen zuten gero handik etxera gurdiaz baliatuz igotzeko.

Transkripzioa

- Euxebe, zuek baserrin behiek bazeuzketzuen, esne saltzen ibiliko ziñeten.

- Ez, ez gendun saltzen esneik. Txahalai ematen zien gure aittek. Zeatio jun behar zan Zumarrañño, astookin, ta ez gendun eukitzen gogoik. Guk esaten gendun, nahiago deu beste lan bat eittea. Bai ba, astokin, Jesus! Oiñez, nik ez dakit zenbait bide ebaliko zan. Tres horas? O gehiau igual.

"Entre que vas y vuelves"...

-Gabiritik Ormazteira jetsiko ziñeten?

- Ez, Ormazteia ez. Oain nola dao zentralan zean, una retonda, hautza. A la retonda.

- Zentralea etaatzen ziñeten?
- Bai. Gure bigarren etxea han kamiño ondoko baserri hure da. Han eukitzen giñutzen pentsuk-eta hola dana. Ta gero gurdikin jaso behar, behi ta gurdikin. Una vida, pues, muy retrasada. Oso atzea. Klaro, kamiñoik ez zeon ta. Gero kamiñoa ein zuenen ez, tratorek eta gauzak baiño. Kamiñoik ez zeon bittarten, gure bizimodue hala jun zan.

3.4. Oñatirako bidea = Oñatibi?

- **Hizlaria(k)**: Alustiza Gabiria, Nikolas
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: GAB-006/004
- **Iraupena**: 0:01:47. **Hasi**: 00:05:56. **Bukatu**: 00:07:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Maiz, Aimar
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena**: Oñatibi izena "Oñatibi bidea"tik datorren susmoa dauka Nikolasek. Gabiriatik Oñatira joateko beste bide bat erabiltzen dute, ordea, gaur egun. Bere aita egunero Legazpira lanera oinez joaten zen.

Transkripzioa

-Baiño Oñatibi, nundik datorrela, lehenago aittatu didazu zeoze.
- Baiño nik Oñatibi...
-"Oñati bide" edo zeoze esan didazu, ezta?
-Nei pasiotarrak esan zien, "Bai, Oñatibi... Hori Oñatibia, Baiña hori izango da, horren izena etorriko da Oñati Bidea, Oñatiko bidea dalako". Hortik etorriko ote dan.
-Garai batean hemendik zen pasoa?
-Bai, hoixe, oain dala urtek. Hemendik esan dizut nola zan pasoa horko barria, Santa Marina, bakizu, zu hor eonda eongo zea Santa Marinan... Hemendi zan bide hori. Ta, ordun, hoi Santa Marinakoa, bai, beti hemendi ezautu deu, baiño Oñatia juteko hemendi bidea izango zan garai baten, baiño guk sekula ez deu hori erabili. Ni Oñatia oiñez junda nau hemendik e, sagarra saltzea, astokin, etxe hontatik. Baiño bide hortatik ez, hemendik Leazpirako bidea, Kamiño Zarra esaten diu guk, Leazpikok eta horik Camino Real esaten dioe, hor dau kamiñoa. Hortik luze xamar eitten da oiñez juteko, baiño hor zan ataju bat, zeatik hemendik, nere aitte zana're bai, Leazpira lanea juten zien Patrizio Etxeberria fabrikaa, eunero oiñez e, taka-taka hortik atajutik gora. Atagoiti bakizu nun daun?
-Bai.
-Ba Atagoitia irteten zuen hor, atajutik, Atagoititi geo horti behera. Ordun, Oñatia sagar saltzea juten giñen garaien bide horretati juten giñen. Atagoitia jun, Atagoiti Motxorro, ta Motxorrotik gero kamiñoa hartzen zendun, ta kamiñoz kamiño, taka, Udanatik behera ataju batzuk ein ta astokin sagar saltzea Oñatia. Beaje asko einda nao ni, e, hemendik.

3.5. Bergarara sagarrak saltzera joaten zirenekoa

- **Hizlaria(k):** Alustiza Gabiria, Nikolas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** GAB-006/006
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:10:34. **Bukatu:** 00:12:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Maiz, Aimar
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak
- **Laburpena:** Errezil sagarrak balio zuen gehien. Bergarara ere joandakoa da Nikolas sagarrak saltzera; hara sagar hobeak eramaten zituzten, han jende aberatsagoa baitzegoen. Bergarara oinez joaten ziren astoarekin, bide luzea izaten zen.

Transkripzioa

-Errezille esan dezu bat...

-Errezille, baiño zenbat klase zeren ordun. Lehen esan dizut ba? Errezille zan ia azkeneako gelditzen zan, hue sanoa. Diruik gehiena harek balio izaten zon. Gabon ingurue, sobretodo gabonetan ta, garai hartan, gose urtek'e bazian, eta postrek, konpota eitteko ta, izugarrizko zea izaten zan. Baita Bergara're junda nao ni sagar saltzea. Bi beaje ein nittula uste det. Baiño nere arreba ta horik askotan Bergara. Ta Bergaran sagarra beti hobexegoa eaman behar izaten zan hautza. Oñatin baiño diru gehiau hartzen zan, jendea dirudun gehiau zeon Bergaran garai hartan. Ai naiz esaten milla beatzirehun ta berrogei ta bat, berrogeita bi, horko kontuk ai naiz esaten.

-Begarara nola joaten zineten?

-Oñez, astokin. Hemendik horti aurea, camino real eo esaten dion hori kruzatu, eta juten giñen al cruce de esto, Bergara ta juteko kruzea badau han, Urretxutik...? Hautza. Hari garai hartan deitzen zitzaion Eliasenea, nik ez dakit nundik zeuken izen hori, baiño Eliesenea irten da. Hautza irten, ta geo handik kamiño, Deskargatik Antzuolatik Bergara. Beaje luzegoa Oñatikoa baiño hori.

-Aldiko zenbat sagar eamaten zenduen?

-Aston zenbat eamango ziñuzen. Bi xexto, bi xexto dezentek aston, ta geo erdin beste bat, esku-zextoa esaten zitzaiona, bere kirtenakin ta. Hemen badare oaindio. Hor eongo die. Halakoa erdin. Haikin astoa. Astok'e, batzuk astok onak bazien basarri batzutan. Nolako astoa zan. Asto txikie bazan indar gutxi ta, hemendik Bergara-ta jun ein behar zan. Baiño Bergaran sagar onakin dirue hartzen zan garai hartan.

3.6. Eskola utzitakoan, "Muebles Ordiziara" lanera

- **Hizlaria(k):** Alustiza Gabiria, Nikolas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** GAB-006/032
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:51:58. **Bukatu:** 00:53:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**

Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-
mugimenduak
Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

- **Laburpena:** 13-14 urte zituenerako, eskola utzi zuen Nikolasek. 16 urte zituela, arotzeria ikastera joan zen Ordiziara. "Muebles Ordizian" hasi zen lanean; hara bizikletaz joaten zen. Soldata baxua zen, eta etxean lana soberan zegoen.

Transkripzioa

-Nikolas, esan dezu hamahiru-hamalau urteako zuk eskola utzi zendula. Nun hasi ziñen lanen?

-Lanen? Hemen, basarrin ein behar izaten zan lana, baiño, hor hamasei urtekin eo, ez dakit ba zenbat euko nittun, arotzerin ikistea, ebanisterin ikistea Ordizia, Muebles Ordizian hasi nitzen ni lanen. Hemendik hamabi kilometro dare, hemendik egunero bizikletan hautza. Han lana ein, ta atzea buelta honea, ta etxea etorritakon hemen makiña bat lan eitteko. Hola izan zan. Muebles Ordizian pasau nittun, ez dakit zenbat denbora pasau nittun han. Eta, gero, etxen'e lan asko zeon hemen, ta pagau're... Lehenengo jun nitzen garaien han... ez dakit ba ze urte izango zan, cuarenta y uno, o cuarenta y dos, hor, tres-noventa, hemendi junda. Astok bezela lana eitten gendun. Ofizioa ikixtea jun, bai, ofizioa ikixi... Tres-noventa. Geo etxen esaten zien, "bai, apretatako lain ez dek ezer eitten. Etxen lana besteik ez zeukiau. Hola ibilli bae, etxen'e, oain behintzat". Halaxe kontue hartu non. Ordun, nik han kontue hartu nonen bost pezta uste det pagatzen ziela gero. Geo, etxen sartu non, udara bat eo, hemen baserrin lan asko eoten zan ta, ama ta anaiik zarrena zeren bakarrik eta; arreba, bestea.

3.7. Bizimoduaren aldaketa

- **Hizlaria(k):** Alustiza Gabiria, Nikolas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** GAB-006/061
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 01:48:02. **Bukatu:** 01:49:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena:** Bizimodu gogorra izan arren, gustura bizi ziren, besterik zegoela pentsatu ere ez baitzuten egiten. Autoa erabiliko zuenik ez luke sinetsiko Nikolasek garai hartan.

Transkripzioa

-Bizimodu gogorra ordukoa.

-Bai, bai, bai. Pasa zien. Bueno, hala're gustoa ibiltzen giñen, e!

-Errazago konformatuu, gutxiagokin.

-Besteik zani pentsatu're ez gendun eitten. Hala zalakon.

-Ez zenduen pentsauko gaurko bizimodue izango zani, garai hartan.

-Nola pentsatuko non ba? Bizikletaik'e ez genduken ta! Bizikletea bai, ia bagendun bizikletea, baiño gerotxo, gerotxo hura're. Nola pentsatu nik ordun... ni kotxekin ibilli behar nola neonek, hemen, esan bazizuen, "ixilik eon hai!". Ta kotxekin zenbat beaje ein dittuan nik. Ostatun gendela're...

Lehen esan dizuan Luzio Gabiria andrekin, ta neu andrekin, hamazazpi-hemezortzi egun hor pasau giñutzen, hemendio zeara jun, Malagaa jun, Malagan han ezaun bat genduken, hemengoa. Han, Malagati Granada hortik buelta guztie einda. Neuk eballi non kotxea. Pentsaizu! Ta gero pentsatzen jartzen naiz ta, “ni nola ibilli nittuan han hola?”. Gaur ia, ez. Gaur ia ez det balio. Hemen ibiltzeko bai, hemen ibiltzen naiz; Beasaiña, Ordizia, Leazpia... hola, kotxekin ibiltzeko. Baiño nei garai hartan esan balie hori, “ixilik eon hai, tontokerik esaten ai haiz ta!” esango nion. Egie da, egie da ta. Nola sinistuko dezu ba, ze kanbiok ein dittun? Bueno!

4. Familia eta harremanak

4.1. Neska-laguntzak

- **Hizlaria(k)**: Murua, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: GAB-002/007
- **Iraupena**: 0:00:31. **Hasi**: 00:11:38. **Bukatu**: 00:12:09
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- **Laburpena**: Neska-laguntzak egiten zituzten eta herriko neskek kanpoko mutilak nahiago izaten zituzten sarritan, harrika ere hartzen zituzten inoiz herrikoak.

Transkripzioa

-Ta neska-launtzeik eta?
-Neska launtzak eta, eitten hittuan, ordun. Harrika eman'e bai, mutillei. Neska launtzea jun ta harrika igual. Askotan, kanpokok baldin bazien, herrikok, kanpoti etorritakok neska launtzea juten bazien, herrikok zaitu ta harrika igual ematen zien. Ta hola. Neska launtzak, batzuk izaten hittuan beti juten zienak, ta beste batzuk beti taberna juten zienak. Neska-launtzaik eitten ez zuenak.

4.2. Komunaren itxurak arduratuta

- **Hizlaria(k)**: Etxeberria Amiano, Eusebia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: GAB-004/007
- **Iraupena**: 0:01:27. **Hasi**: 00:06:30. **Bukatu**: 00:07:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura
- **Laburpena**: Errentan bizi ziren jabeak ez zielako sekula etxea saldu nahi izan. Sestaoko izeba-osaben bisita jasotzen zutenean, baserriko komunaren itxurak arduratzen zituen. Garoz estalitako zuloa zen azken finean.

Transkripzioa

- Zuen etxea zeona zan ala erreterok ziñeten?
- Gu erreterok, erreterok. Ez ziun saldu nahi izaten.
- Zenena zan etxea?

- Azpeitiko... “¿cómo era? ¿cómo era el apellido?” Irizar? Oain ez dauket hoixe gogon. Matrimonioa bakarrik bizi zien, ez zeukeen umeik, eta ez ziuen saldu nahi izaten. Ta gure etxea, festatan, jendea etortzen zikun, Bilbaoti, zeati aman anai bat eta ahizpa zana're bai —ahizpa geo hil ein zan—, Bilbaon bizi izan zien, en Sestao. Anaiek zauken tienda de ultramarinos. Eta, zer nijon esatea?

- Ez zizuela saldu nahi etxea.

- Ez ziuen saldu nahi izaten. Eta, klaro, guk bai, esaten gendun, horik datotzenen, baiñuk eta gauzak, porque había... baserrikoa.

- Nolakoa zan kumuna?

- Ba, nola esango dizut ba? Beheran garoa botatzen zon gure aitte zanak, y nada más.

- Zulo bat, eta handik.

- Bai. Hemen'e halaxe zan.

- Garai baten, etxe ia danetan.

- Bai, danetan, danetan.

4.3. Etxean egindako koltxoiak

- **Hizlaria(k)**: Etxeberria Amiano, Eusebia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: GAB-004/013
- **Iraupena**: 0:01:11. **Hasi**: 00:15:35. **Bukatu**: 00:16:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura
- **Laburpena**: Koltxoiak etxean nola egiten zituzten kontatzen du. Eitzatik (Zumarragako auzoa) ekartzen zuten artilea eta orratz handi batekin josten ziren.

Transkripzioa

- Urdun eitten zan, oain ez nuke bela loik eingo nik halakon. Ordun eitten zien koltxoiak'e etxen. Koltxoiak, hola, hari batzuk, behin josita. Ni oain koskorakin ez nuke loik eingo.

- Nola eitten zittuzuen? Ze sartzen ziozuen koltxoiai?

- Lanea, ardi illea.

- Eta ardi ille hoi nun sartzen zenduen?

- Eitzan zeon trapero bat, eta harek saltzen zon. Baiño, hala behar zalakon, baiño oain ez.

- Eta nun sartzen zenduen? Fundan bat zeukezuen?

- Bai, bai. Koltxon azala. Eta koltxon azalen zeuzken, hola, "así, tenía cuatro agujeros en cada eso". Handi holako orratz haundi batekin josi, ta lotu fuerte, ta arre! "Hasta el año".

- Gero astindu ein behar izaten zenduen hue, ezta?

- Hure, buelta eman behar izaten zikon hari're. Buelta eman ta hola, eskukin harrotu.

4.4. Neskek eta mutilek aparte jolasten zuten

- **Hizlaria(k)**: Etxeberria Amiano, Eusebia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber

- **Erref:** GAB-004/026
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 00:43:46. **Bukatu:** 00:47:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena:** Umetako jolas eta jostailuak nolakoak ziren kontatzen du. Eskolan, lagunekin jolasten zuten. Mutil eta neskek ez zuten elkarrekin jolasten.

Transkripzioa

- Zuk eskolako ordutatikan kanpoa, launarteik izango zendun. Launekin ibiliko ziñen?
- Bai. Tortoloxetan jolas eitten gendun.
- Zertan? Tortoloxetan?
- Tabak. Bakizu zer zien tortolaxak? Haakin. Beste batzutan, con esto, hari nola esaten giñun izena're... hola, palillo bat ta makilla batekin jotzen gendun, ta hura harrapau behar gendun, ta hure harrapatzen ez bazan, ez dakit ze eitten gendun.
- Galderon, o txirikillak o, nola esaten ziozuen?
- Kalderon eo hola zan, bai. Kalderonketan, bai. Ta geo diabolokin'e bai. El diábolo. Han goora botaz.
- Nolakoa zan, egurrezkoa?
- Gomazkoa.
- Normalen jolasak lagun arten ala ahizpakin?
- Ez, ez, lagun arten. Bai, eskolan.
- Neskak eta mutillek alkarrekin jolasten zenduen?
- Ez, motillek aparte. Motillekin, nada.
- Diferentek izaten zien mutillen eta neskan jolasak?
- Motillek trakutsagok zien. Más burros.
- Zertan ibiltzen zien mutillek?
- Haak jeneralen baloian ta, geo hola, makurtuta jarri ta salto eitten ta.
- Apustuik eitten al zenduen?
- Ez, ez, apustuik ez gendun eitten.
- Gaiñeantzen, muñekaik eta trapuzkoik eo?
- Ez, horik ez. Ez genduken hortako zeaik.
- Eta pelotan o ibiltzen al ziñeten?
- Tampoco. Horik, iruitzen zikun danak motillenak ziela.
- Eta izan zendun sekula bizikletaik zuk?
- Bizikletaik? Ez. Gure etxen iñok ez. "No había dinero". Anaiek'e ez. Klaro, ordun bizikletea alperrik zan, ez zeon kamiñoik eta. Bizikletaik ez zeon juteik bason gora. Holaxe, pendiente-pendientes juten giñen, dana arbola arte, piñu arte. De miedo.
- Euxebia, jolasetan kantuik bazenduen?
- Hoik danakin ez naiz akordatzen. Zeoze izango gendun.
- Ez zea akordatzen umetako kantuan batekin?
- Ez naiz akordatzen. Guk jenealen tortolatxetan, kaldeonketan, diabolon... Kantukin ez naiz akordatzen. Klaro, urte asko die ta. Bakizu, noventa añoekin hola eotea zer dan? "Es algo terrible".
- Baiño ondo zaude, sasoiko zaude.
- Bai, bai, bai. Ondo nau, oso ondo.

4.5. Beste bizitzakoei "etxekoanekoa"; gertueneko baserriari "aldekoa"

- **Hizlaria(k):** Alustiza Gabiria, Nikolas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** GAB-006/001
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Maiz, Aimar
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Bere burua aurkezten du: izena, non eta noiz jaio zen, baserriaren izena... "Aldekoa", "auzokoa", "etxekoa" hitzei buruz hitz egiten du.

Transkripzioa

-Beno, hasteko esan behar dizkidazu zure izena eta abizenak.
-Nikolas Alustiza Gabiria.
-Eta, noiz jaio ziñen, Nikolas?
-Milla beatzirehun eta hogeita bosteko iraillaren hogeta hirun.
-Non jaio ziñen, Nikolas?
-Hementxe, Oñatibin. Esaten due hemen jaio nitzela, oain, ni ez nitzen gogoratu jaio nitzenen egunen baiño... hemen, hemen, hemen. Palazio hontan.
-Oñatibi Haundi?
-Oñatibi Haundi, bai.
-Hemen bizitza bat baiño gehiago ziren?
-Bai, bi bizitzakoa da. Beste aldetik dauke, hemen, Pavimentos Arrondo. Pavimentos Arrondo're hemen jaiotakok die horik, oain hor kamiñon ondon daukate etxe berri haundi hori eginda, han bizi die, baiño beste aldeko bizitzea horiña zan. Hemen jaiotakok die horik'e.
-Ta beste bizitzak zer izen du, Oñatibi Txiki?
-Hau da Oñatibi Haundi, e. Bizitza bat hemengoa, ta beste aldetik beste aldea, bi bizitza. Ta Oñatibi Txiki dau beste baserrie hortxe, ezkerren. Hori Oñatibi Txiki da. Guk beti horri, etxeik gertunenekoa nola dan, beti deittu izandu diu "aldekoa", "aldekoa". Aldekok esan nahi do bertan daola. Baiño, gaur ez deu geuk ebaltzen hitz hori e! Goorra da, e! Galtzen dijoakiu. Eta penagarrie da. Aldekoa. Eta beste bizitzakoi, Arrondonekoi, "etxekoane", "etxekoanekok", "etxekoanekok". Hori zan, beti hitz horik erabili dittuu. Ta gero, ba, izaten da ingurue, auzoa, auzotarrak, auzokok, gertueneko etxek izaten die ba, "auzoa", horri "auzoa" esaten zaio. Oaiñ'e auzoa asko ebaltzen da, "etxekoane" gutxi ibiltzen da, ta "aldekoa" re gutxi.
-Igoal "aldekoa" gutxiago "etxekoanekoa" baiño.
-Gutxigo, "aldekoa". "Etxekoanekoa", akordatuko zea, gehiagok esango zizuen.
-Nik ere hala ibiltzen det eta.
-Zuk'e ebaltzen dezu hori. Bai? Etxekoane. Baiño hori, aldekoa. Etxekoanekoa, lehendabiziko gertuneko etxea, bizitza. Ta hurrengo etxea, guretzako gertuneko, hori, Oñatibi Txiki, aldekoa.

4.6. Aita eta amona Oñatibia Haundi baserrian jaioak

- **Hizlaria(k):** Alustiza Gabiria, Nikolas

- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** GAB-006/002
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:02:38. **Bukatu:** 00:04:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Maiz, Aimar
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena:** Bere baserriaren izena Oñatibia Haundi da, eta izena nondik datorren azaltzen du. Aita eta amona baserri horretan jaiotakoak ziren. Amandrea eta aitajauna esaten zitzaizen lehen aitona eta amonari Gabirian. Amonaren aita Itsasotik etorritakoa omen zen.

Transkripzioa

-Eta, Nikolas, Oñatibi Haundi, nundik dator izen hori? Badu esplikazioren bat horrek, ezta?

-Nik ez dakit ba. Hemen Oñatibiai asko etorri die, hemen Urretxun dare hor Oñatibiai, famili batzuk zea daukete, esto... botika, farmazia dauke zea batek. Beste batek “clínica de esto, dental”, holokok dauzke. Ta horin aitte medikue zan, nik ondo ezautzen non, hemen askotan izandakoa hoi. Hoik oiartzundarrak zien, beak honea askotan etorri die, Oñatibiai die horik eta, hemengo jatorrie. Hori nundik datorren? Ez dakit ba. Hemen behintzat, etxe hau, nere gurasok, nere aitte hemen jaiotakoa zan, eta nere amona’re bai. Hemen guk “amona” esaten diu, baiño guk garai hartan “amandrea”. Hori aittu dezu? “Amandrea”.

-Hori Oñatikoa ez al da, “amandrea”, hitz hori?

-Guk hemen “amandrea” izan deu beti.

-Baiña Gabirian bai, ala zuek etxean?

-Gabirin ta hemen danen “amandrea” zan, bai. Gaur ya “amona” esaten da. Ta aitonai aittejaune. Amandrea ta aittejaune. Ta ordun amandrea, nere amandrea, amona, hura zan hemen jaiotakoa, baiño aitte zon harek Itsasotik edo etorritakoa emen zon. Ama hemen jaiotakoa, Oñatibia. Oñatibin jaiotakoa ta apellidue, abizena emen zon Oñatibia, Teresa Oñatibia emen zan. Nere amonan ama. Oaiñ, baiño hori, nik eztakit ba, etxe hau behintzat besten batena zan...

4.7. Errenta ordaintzean egiten zuten ospakizuna

- **Hizlaria(k):** Alustiza Gabiria, Nikolas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** GAB-006/003
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:04:31. **Bukatu:** 00:05:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Maiz, Aimar
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena:** Bere aita jaio zen garairako etxearen jabe zen familia, baina lehenago erreterero ziren. Etxeko erreterero zirenean, urte hasieran ospatu egiten zuten etxea beraiena zela urtebetean behintzat.

Transkripzioa

-Zuek erretererok ziñeten?

-Erreterok emen zian. Nere aurrekok erreterok. Ni zeatzeako... Nere aitte jaiotzeako're ia etxea bereganauta euko zuen, baiño herentzin utzitakoa, "herencia", utzi emen zien. Zeati, lenau, karo, errentan zeren, ta urteko erretea ez zon /etzon/ asko izango beharbada, baiño behintzat patu ein behar izaten zan. Ta urten hure paatzen zuen garaien, esaerea, nik amandrei, amonai aittu izandu nion hori, kontu asko esaten zittun —pena earra bauket nik hari ez jasoa gauza asko, joe, harek zezkin gauzak eta—, harek esaten zon ordun, urteko errenta hori ordaintzen zuen garaien, bi etxetako familik juntatu, eta een arrantxotxo eitten omen zuen, urtebeteko etxea berriz beena zuela behintzat eta, poz horrekin. Hori aittu izandu nion. Eta gero eztakit ba nik ze urtetan izango zan, hau heredau zuen, hemen bizi zien bi etxetako famili, heredatuk.

4.8. Gabiriako ostatua hartu bitarteko gorabeherak

- **Hizlaria(k):** Alustiza Gabiria, Nikolas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** GAB-006/034
- **Iraupena:** 0:04:25. **Hasi:** 00:55:34. **Bukatu:** 00:59:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- **Laburpena:** 1976an Gabiriako ostatua hartu zuen, enkantean atera baitzen. Ostatua hartu bitarteko gorabeherak azaltzen ditu.

Transkripzioa

-Gero, setentaiseis, hirurogeita seien, Gabiriko Ostatur hartu gendun. Hemen bizi giñen, ta Gabiriko Ostatur. Gabiriko Ostatur lehenau euki zuen horko famili batek, gero Beasaiñea jun zien, Iruin. Eta, ba, hor zeon Ostatur, baiño de mala muerte. Janik'e ez zioen hola iñoi asko ematen, ta edarie ta zeon. Klaro, etxea-ta erosita zeuzkien Beasaiñen, baiño ez zien juten, zeati gurasok hemen eon nahi izaten zuen. Gero, gurasoa, aitte hil in zan, ta aitte hil zan garaien semek eta alabak eta horik, ba, ez zuen hor segi nahi, ama bizi zuen baiño. Utzi in ziuen horri. Hori herriko etxea da, herriko ostatur.

-Subastan ateratzen zan?

-Bai. Lehen'e subastan ateatzen zan. Ta hor bizi zienak subastan ateata zeukien. Baiño urte asko eaman zuen hor. Gero lege bat kanbiau zan Francon garaien hor, behintzat horrek urtek zemartzen, ta beak nahi izan balo hor segiko zon igual. Lege bat bazeon hor, ni ez naiz asko horrekin... ez dakit nola zan, baiño hola zan.. Baiño utzi ein zioen, dana dala. Lehenau antigualeko zeon zeon, eta gero bi urten itxita eon zan, eta ein zittuen obrak, renobau ein zuen dana. Ordun zeon alkate, lehen esan dizut ba sagardotegie, Goia, hoi zan dentistea, zuk ez zendun ezautuko baiño, horrek dentistatzen ikaragarri lanak ein zittun, Pasaian ta. Izugarri. Etxen'e bai, hemen bertan, igandetan hemen aitzen zan etxen, igande goizetan-eta lanen. Ikaragarri lanak eitten zittun horrek. Ta hori zeon alkate, horik utzi zioen garaien. Bi urten, ordun, itxi, eta berrittu ein zuen dana, setentaiseisen. Horik utziko zioen setentaikuarto o hola. Bi urten itxi, eta dana berrittu in zuen. Gero, klaro, herriko etxea zan, ta klaro alkatek nahi zon, ba, famili bat, herriko famili bat hautzako, hori eamateko. Susbastaik

eta holakoik, guk ez gendun subastaz hartu hori, ez giñen jun. Guk genduzken seme-alabak, lau alaba ta semea, gaztek, zaharrenak zenbat urte eukiko zittun ba? hamabost-hamaseien bat urte. Pelukera ikasten zabillen gaiñea, pelukera da Ordizin, pelukerie daukie, zaharrenak eta gaztenak, bik, calle Urdanetan. Hori zan zaharrena, ta bestek eskolatan zebiltzen. Andrea, nere andrea da jostune izatez, ofizioz. Josten-eta eitten zon hemen. Zegamarra da, Zegamatik etorri zan honea. Ni makiña bat aldiz harrittu naiz, nere andrekin Zegamatik etorri ta hemen nola etsi zion. Eta hala, alkate hori, Goia hori etorri zikun, nola bukau zan zea hori, ta famili bat nahi zukela hautzako ona, ta guk gendukela, gaztek zetoze ta, hautza juteko. Nik “hi” esaten nion gaiñea beai. Ni baiño lau urte zaharragoa zan. “Baiño ze? Gu nola jungo gaittuk ba? Ez zeukeau esperientzin arrastoik, tabernako lanak nola eitten dien. Nere andrea, sukaldaritzan bai, bazekik etxeko zea eitten, baiño jostune nola...”. “Bai, baiño, hi, hemengo gorabehera eitteko...”. Eske lehenau zerenak ez baizuen ezer eitten. Benga berriz’e ta, gehiao, kontzejalak’e bai, hor lagunek neuzken, ta “zuek daukezue horrutzako moduko familie ta zuek etorri behar dezue” ta. Azkenen, behintzat, esan diu baietz, jungo giñela ba.

4.9. Gabon-eskean ateratzen zirenekoa

- **Hizlaria(k)**: Alustiza Gabiria, Nikolas
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: GAB-006/058
- **Iraupena**: 0:02:49. **Hasi**: 01:40:10. **Bukatu**: 01:42:59
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- **Laburpena**: Gabon-eskean ateratzen ziren lehen; gazte-kuadrillak izaten ziren, 20 urtetik beherakoak. Egun guztian izaten zen. Behin herriko soinu-jotzaile batek egindako meritua kontatzen du.

Transkripzioa

-Gabon esken ateratzen ziñeten?

-Gabon esken ateatzen giñan! Oain’e hemen koadrillak ibiltzen die, bi o hiru o lau o... koadrillak. Baiño haundik! Oain automobilletan ibiltzen die ta.

-Gazte koadrilak izaten zineten?

-Gaztea, gu gazte, bai. Baiño hogeitertietatik azpiratik bittarten, hogeitertietatik gorakok ya, gutxi.

-Ze izaten zan, egun guztin?

-Egun guztin. Goizen hasi. Behin, gogoratzen naiz, egunez ez giñen hasi, bazkalondo baten hasi nitzen, hasi giñen. Lehen esan diana, gendun soñujotzaillea Arzelus hori, Arzelus oain semea dauke horrek ona. Hue bea hil zan. Ta harek erakutsitta harek soñukin, ta haekin irten gendun. Ta harek Beasaingo fabrika lan eitten zon, ta Gabon egune, ta goizen lana eitten zan, ordubik arte eo. Goizen lana ein, hue handik etorri, ta ez dakit ba nik, ordubik, ordubittardik alden, hemen, Kamiñokutza esaten diu guk, — kamiñoa hor, kurutzea, hor gora hartzen da kurba Gabiria juteko; besteak aurrea segitzen do ta horrek do Kamiñokutze, Kurutze. Hor juntatu giñen. Bere nazimentue zeon hemen, gu baiño lehenagokok hemen

eindakoa zan, hemen Arrondonekok eta horik einda, gerra aurretik einda. Oso nazimentu earra. Eskutan eballi behar zon, baiño, bere baterie ta guzti argik eitteko, gauen ta, gaueako. Katxarro horrekin hor irten ordubik alden ta hemendik goora, han gora Santa Mariña, oiñez hor beheti gora. Han hasi, Aztiriko barrio hure pasatu, gero hor beste aldea, lehen esan diana, nere aman jaiotetxea, Behekoetxe, handik hortik, horik danak, hok danak pasatu, hor goi... herri guztie, ta gauen hamabittan pasiotarran elizaa, mezetaa, gabon gauen, rekorrido horik danak einda. Ze giroa, ze giroa. Dana oiñez. Lokatzea, ze egoaldi zan, argikin, linternak... Halaxe gustoa ibili! Gu hola ibiltzen giñen. Gaur automobilletan ibiltzen die dana ta ondo ibiltzen da.

-Ordun hanka onak zittuzuen ta. Beharko euki, gaiñea, hanka onak!

-Bai, hoixe onak. Oain ez dauzket oso onak, baiño ordun bai, ordun bai makiña bat ibilli eindakoa naiz. Ta, hola.

4.10. 3 kilo babarrunen orde, litro bat olio

- **Hizlaria(k):** Alustiza Gabiria, Nikolas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** GAB-006/060
- **Iraupena:** 0:03:58. **Hasi:** 01:44:04. **Bukatu:** 01:48:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena:** Amona gaixo zegoenean, bisitan zetozenei amak zerbait eman nahi izaten zien. Horregatik, behin amak Nikolas Legazpira bidali zuen gauz olio bila: 3 kilo babarrunen trukean litro bat olio lortu zuen.

Transkripzioa

-Zea bat badauket, haxe esan behar dizut /beaizut/, zeati ondo dau jakittea. Ba izango zan hori're, milla beatzireun ta berrogeta bi inguru hortan. Lehen esan dizuan amona, hemen bizi zan, ta laurogei urteti gora zeuzken ordun, eta behintzat udaitzenen beti, hola, garai jakin xamar baten, izaten zon bere gaizkialdixoa izaten zon. Ordun, behintzat, urte hortan hemen, ba, ordun'e gaixotu eo zerbait ta ohian. Ta, klaro, bere alabak eta kastak eta bazeuzken kanpon, ta danak etorri eitten zien bixitatzea, [...]. Gauza gutxi zeon zeatzeko, ordun ezer ez zan eoten, baiño zerbait eskiñi eo ein behar ba etortzen zanai! Ta zerbait behar, ta ama, nere ama zana... ta udatzen baten, urrie izango zan, bai, oktubre azken aldea eo hola zan, izango zan. Ia illuntzen hasteko zeon zeon. Ta amak esan zian: "Hi, Legazpia jun behar dek", esan zian. "Legazpia ni oain? Jo, ia illuntzea dijo". "Bai, jun behar dek, zeati olioik ez zeok". Dana razionauta zeon, ta ez zeon ezer. "Olioik ez zeok, eta jun behar dek Legazpira, ta Legazpiko Ixidrane". Ixidrane zan denda bat. Ta lehen esan dizut, nere ama ostiralero juten zan hautza merkadua. Ta, ordun, enkarguk ta behar zittunak denda hortatik ekartzen zittun. Amistade haundie zeukan han. Ta, "ze ein behar det ba nik?". "Eaman behar dittuk hiru kilo babarrun". Hiru kilo babarrun. Hiru kilo babarrun die lakarie. Lakarie da. Entzunda eongo zea, lakarie. Lakarie, neurrie, hoi pasatzen da ba, hue're gauza hue...
-Lauki itxurakoa izaten zan, ezta?

-Bai, koadratu bat izaten zan, ta lakarie eukitzen zon hiru kilo hartzen zittuna. Eta, gero, beste aldeti eukitzen zon kiloa hartzen zona. Beste

aldeti, neurrie. Kiloa ta hiru kilo. Ta hiru kilo izaten zan lakarie. Ta, ordun, hiru kilo babarrun eman zian amak boltsan. “Jun hai Ixidraneia”. Ta litroko olio ontzie, ta hiru kilon ordeztu litro olio bueltan. Dirukin ez zon balio, estraperloko gauzea zan ta. Hiru kilo babarrun, litro olio, ekarri non, harren ordeztu etxea. Aber, gaur litro oliok zenbat balio don, eta babarruna kilok zenbat balio don. Etaa kontuk. Babarrunak ez dakit zenbait eingo don, bi milla peztu eingo dittu, igual, e?

-Ez dakit zenbat izango dan.

-Ez dakizu zuk'e. Nik'e ez dakit seguroik. Hor ibilliko da, e, hamabi euro, nunbait, uste det, hola. Pentsaizu, ba, zenbat zien hiru kilo babarrunak gaurko prezio zenbat zien; sei milla peztu litro olio. Diferentzie. Ordun hola zeon gauzak. Jo, hoi ez zat ahazten. Ni hemendik hara juteako, oiñez, illunpetan gero hor. Argie izango non, farola o zerbait. Hautza jun, ez non gaiñea nik ezautu're eitten bea. Han, “ze, zer da?” ta, hola ta hola, holako ta holakok bialdu nau honutza, honekin zeon, ta “a, bai, bai, bai”. Hartu babarrunak eta han barrua, denda barrua. Litro ontzie bete olio, ta atzea “hamen ba, hemen daukezu” ta segi, “vuelta a casa”. Holako zenbat gauza? Bueno!

5. Aisia

5.1. 'Lazkao Txiki'rekin bertsotan Lazkaon

- **Hizlaria(k)**: Murua, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: GAB-002/009
- **Iraupena**: 0:01:23. **Hasi**: 00:14:00. **Bukatu**: 00:15:23
- **Gaia(k)**:
Aisia » Kultura » Bertsolaritza
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- **Laburpena**: Gaztetan bertsolaritzarako zaletasun handia zuen. Hogei urte inguru zituela Lazkao Txikirekin Lazkaora bertsotara joateko deia ere egin zioten. Hastea kostatzen zitzaion izugarri, lotsatu egiten baitzen, baina gero nahiko txukun moldatzen zen. Ehiza ere gogoko zuen baina ezkondu ondoren lan ugari izan du eta baztertu egin behar izan zituen.

Transkripzioa

-Ta bestelako afizioik? Pelota eo.

- Pelotan ez, ez afizioik, eta balio're ez asko. Gaztetan, pelotako, ez, afizioik... Gaztetan bertsotan, pixkat. Bertsotan bai. Aztiria ta juten giñenen, gaztetan, hogei bat urte eo inguru hortan, bi aldiz abixau zien nei Lazkaotik, Lazkao Txikikin batea bertsota juteko. Bai. Lazkaokok, gure zerbait pariente eitten zana, bat Beasaiñen maixu zeon, herriko maixu, ta harrek bi aldiz abixau zian. Lazkao Txikik'e poliki eitten zola, ta esan zioela nik bertsotan oso poliki eitten nola ta, San Prudentziota juteko. Nei bertsotan hastea kostatzen zat izugarri, behin hasi ezkio, behin lotsa hori bota ezkio, geo kitto. Baiño hasi ezin, iñola're. Herrin'e bai, plazan ta iñoiz, hola, baiño ezin hasi. Ta geo kitto. Behin ezkondu nitzenen... Ehizeako nik afizio pixkat, ta ehize ta bertsok, ezkondu nitzenen kitto. Lana, lana besteik ez. Dana lana.

5.2. Ehizan, erbitan eta oilagorretan

- **Hizlaria(k):** Murua, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):**
- **Erref:** GAB-002/010
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:15:23. **Bukatu:** 00:18:15
- **Gaia(k):**
Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- **Laburpena:** Ehizan, erbitan eta oilagorretan ibiltzen zen gehienbat. Ehizako kontuak kontatzen ditu. Ezkondu aurretik Palentziara joan zen ehizara autobusez. Eper harrapaketa ibili ziren eta berak bota zituen gehien. Usotan ez ziren askorik ibiltzen. Kartutxo gutxi izaten zen eta tiroa kontuz bota ohi zuten.

Transkripzioa

-Oain ehizeako?

-Ehizeako oain'e afizioa, afizioa bai. Oain ia kasi pena ematen dit, hok ehizen ta. Lehenau, txori bat ikusi ezkie, etxe inguruan ez zan ezer geatzen. Baiño oain zozo bati hola tiroka eittea, oain pena. Oain beste modu batea. Lehenau oilagorretan gehiena, ollagorretan gehiena. Ta erbitan'e bai, iñoiz. Txakurrekin ta, hemen auzokoa, harrek afizio haundie erbitta, ta. Baiño nik ezin. Esan, hementxe eon hai, bide-kurutze hontan, eon hai, eo eon zaittez, eta hemen geldi eon. Ni, denbora pixkat pasatzen zanen ezin eon, ezin, ta aldein, ta geo "nun hitzen ba?". Ni alde einda. Erbie han pasau ordun, baiño.

-Irteeraik eo eitten al zenduen?

-Bai, kanpoa, ordun garai hartan, ezkondu aurretik, bi eo hiru aldiz. Palentzia, Osorno. Hori ze urtetan izango zan? Berroeta hamarren eo, hola, berroeta hamar-hamabin eo hola. Osorno. Lehen esan dean autobus hori hartu, ta jun giñen hautza Osorno. Han eperra asko zeon, eper asko. Gu berrogei laun eo berrogeita bi jun giñen, ta gehiena nik bota nittun, hamalau eper. Hamalau eper, gehiena. Bota ez zuenak'e bazien, ta danakin zozketa ein, ta danak berdin. Ta bikin etxea, hamalau botata, bikin etxea. Gaiñantzen, usota ez. Behin Aizkorrondoa, ta ordun haizek ia eamanen, ta ezer ez, uso bat'e ez gendun bota ordun. Gaiñantzen, hemen bertan, pixkat. Oilagorretan bai, txakurrekin ta ibilli dexente. Hemen bertan. Ordun nola ez zeon ehiztariik. Eskupeta bai, baiño kartutxok'e kontauta. Dozena erdin bat eo uzten bazien, haek tiatzeko bildurrez. Atzo leitzen nion, atzo izango zan, periodikoi, bueltako uso horikatio bazekarren, ta harek'e hala esaten zon, gartzetan kontauta, ta ondo jartzen zanai tiroa, ta besteik ez. Hola gartzetako gure ehizek eta.

5.3. Txirrindularitzarako zaletasuna, baina bizikletarik ez

- **Hizlaria(k):** Murua, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):**
- **Erref:** GAB-002/012
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:22:08. **Bukatu:** 00:24:30
- **Gaia(k):**
Aisia » Kirola » Txirrindularitza
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

- **Laburpena:** Orduko txirrindulari ezagunak aipatzen ditu. Eurak ez ziren gehiegi ibiltzen bizikletan; reketeeek bizikletak kendu omen zizkieten. Normalean oinez ibiltzen ziren batera eta bestera; ondo zimeldutako mutilak omen ziren.

Transkripzioa

-Ziklismoa ta segitzen zenduen?

-Bai. Buelta Frantzia ta, orduko Gallardo ta, Trueba ta, Cepeda ta. Onak. Ordun zienak, belgak eta bazien, onak. Nola zien hak? Belgak eta ordun hor ibiltzen zienak, onak. Ricardona ta, horik hemengo zeak. Ezkerra. Geroxeo berriz, Bermit eta horik. Bai. Nik leitzeko beti gogoa, ta periodikoik eo izaten banun, beti karrerea zerbait. Hori bai, nola zebillen eo. Gero ikustea ta, hola. Ta ibilli're bizikletan oso gutxi. Bi bizikleta giñutzen, gerra denboran. Beno, osabak, bi bizikleta zittuen, eta eak horti aurea jun zien, eta reketek eaman ziuén bik, eta gu bizikletan ibilliko giñenen, eta han ibiltzen zien eak, gure bistan, gu eskola juten giñenen, plazan bueltaka, gure biziketan. Beti harrapau ta etxea, harrapau ez, gerek zien, harrapatzea ez zan, "etxea eaman zetuau hok", ta hola esaten gendun, baiño behin'e ez giñen atrebittu. Bat ibiltzeko gauza ez zanen utzi ziuén etxea ekartzen, ta bestea're halamuz. Hondauta bik.

-Lehen, karreteraik eta ez zan garaian, dana mendiz. Hemen karretera noiz ein zan?

-Karreterea nik hemen beti ezautu det. Etxe ondón. Ormazteiti kamiño hau, oso ona ez ibiltzeko, baiño ba, bizikletan ibiltzeko lain bai, hemendi Motxorroako hau'e bai. Hori beiz hau baiño lehenau eindakoa, beheko hori. Ta gero hau, hemendi Gabiriako adar hau, hau gerogo. Neu bizikletan. Baiño Zumarragaa ta Legazpia ta oiñez, oain baiño kilo gutxigokin ta goorrigo. Ta udan segan, latz. Ta kilo gutxi, baiño ondo zimelduta.

5.4. Mutila etxera laguntzen baino nahiago linterna eta makila

- **Hizlaria(k):** Etxeberria Amiano, Eusebia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** GAB-004/036
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 01:02:59. **Bukatu:** 01:04:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** Gabiriara joaten ziren erromeriara igande arratsaldetan. Bueltatzerako, ilun egoten zen eta farola batekin argi eginez itzultzen ziren etxera. Horrekin lotutako pasadizo bat kontatzen du.

Transkripzioa

- Eusebia, Gabiria erromeria juten ziñeten ordun. Noiz eitten zan erromeria, atsalden?

- Bai, atsalden. Ta geo gauen illunpetan, farolakin. Jai baten bagatoz, ta gentotzen, bi, lau, sei neska. Gu bi ahizpa, geo beste baserrikoa ta bestekoa. Ta esan nien: "Farola hau baiño, linterna haundi batek hobetogo argi eingo liuken ba e. Askoz hobe den makilla fuerte bat ta argi bat ona zenbait motil txakal ondón baiño". Hori hitzein non, ta nun pasatzen zaiun gizon bat. Jo gendun garraxi bat. Gizona pasau zikun. Ta esan nien: "Zein

gendunan hori? Madre mia. Sálvame Dios”, esan nien holaxe. “Hau Euxebi —eitten zien—, hauxe Euxebi! Hau daillen lekun ez zeon behintzat tristuraik”. Ta hala, segi!

- Gauez bildurre're pasauko zenduen, etxea biden.
- Bai. Nei bildur haundie ematen zian. Bakarrik baldin baneon ez nitzen juten. Zeatio basa bide asko etorri behar zan ta.
- Ez zendun mutillik izaten etxea launtzeko?
- Ez. Nada. Mejor no.
- Neska launtzak ingo zittuen ba mutillek?
- Bai, eitten zuen. Baiño zenbaittekin ez zeon fiatzeik. “Si vas en grupo, sí”. Baiño... ez. Ni oso bildurtie izan nitzen.

5.5. Gabiriako erromerian dantza lotua libre

- **Hizlaria(k)**: Etxeberria Amiano, Eusebia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: GAB-004/037
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 01:04:57. **Bukatu**: 01:06:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena**: Gabirian dantza lotua libre zegoen. Horri esker, bertako gazteak ez ziren kanpora joaten. Neskak ez ziren tabernara sartzen, kanpoan edaten zuten limonada.

Transkripzioa

- Erromerin, dantza libre al zan Gabirin?
- Agarraue're bai, bai. De todo. Libre ez dakit izango zan, ein behintzat bai. Ormazteiko parrokok hala esan men zion behin, Gabirikoi. Ez dakilla nola soportatzen zon hue, esan men zion. “Ormazteiko gazte jendea nun da?”. “A, ez dakit ezer”. “A, ba, nik, herriko gazte jendea dana herrin dao”. Iñor ez zan kanpoa juten, danak herrin.
- Gabirin, erromerie eitten zan tokin, esan dezu udaletxe azpin eitten zala, tabernaik bazan?
- Ostatue, oaiñ dauna. Ostatue dau oaiñ'e. Bai .
- Zuek taberna sartzen ziñeten, neskak?
- Ez, guk kanpoa etaatzen gendun. Limonada. Hola, bazon, goien zeatxo bat, una bola. Halako bat. Kanpoa etaa ta kanpon edan.

5.6. Telleriarteko erromerian senarra ezagutu zuenekoa

- **Hizlaria(k)**: Etxeberria Amiano, Eusebia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: GAB-004/038
- **Iraupena**: 0:02:49. **Hasi**: 01:06:02. **Bukatu**: 01:08:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Legazpira ezkondu zen 28 urterekin. Telleriarteko estankora etortzen zen lanean laguntzera eta horrela ezagutu zuen

bere senarra. Errekaeta baserrian bizi da orduz geroztik. Bost seme izan zituen eta beti geratu da alaba bat ez izanaren penetan.

Transkripzioa

- Honea, Legazpia, noiz etorri ziñen, ezkondu ta geo?
- Bai, ezkondu nitzenen.
- Noiz ezkondu ziñen?
- Diecisiete de abril.
- Zenbat urte zittuzun zuk?
- Veintiocho. Ta beak veintinueve.
- Nun ezautu zendun gizona?
- Hementxe.
- Eta zu honea zertara etortzen ziñen ba?
- Hemen genduken neska lagun bat, tabernan. Hemengo tabernan, Telleriarteko tarbarnan. Ta horrek zeuzken tiok gure bestekok. Eta, Gabiria juten zanen, beti esaten ziun, “aber noiz juten zeaten, ni nun bizi naizen zeatzea”. “Jungo gaittun ba halako baten”. Ta, jai baten jo deu. Ordun zeon hemen soiñujole bat. Fundamentu haundiik ez baiño, hola, gaztetxo batzuk. Gero gure hori, ta geo besta bat. Esan nun: “vaya chico más majo”, esan nun nere arten. Hala, atsaldea pasau gendun dantzan. Hasi giñen bi ahizpak pareja horrekin. Bueno. Gero, hemengo laun honek, ezer behar zon guztin, hotsein eitten zian, hola, ezen launik behar zonen eo. Hor'e konfiantza haundikoa behar izaten zan, porque todo el dinero, a la vista. Había estanco. Esan men zon: “iñor asko ez det eaman nahi. Hemen konfiantzazko bat behar da”. Ta, hala, ni etortzen nitzen.
- Estankoa etortzen ziñen?
- Bai.
- Ze lan eitten zendun zuk?
- Ordun lan danak, taberneron lan dana.
- Kamarera bezela ibiltzen ziñen.
- Bai, todo, todo. Ta, geo, hortik aurrea hasi giñen.
- Tarteka etortzen ziñen ordun zu honea lanea.
- Bai. Y a tirar.
- Ezkondu eta hemen jarri ziñeten bizitzen?
- Bai.
- Nola izena du etxe honek?
- Rekaeta.
- Errekaeta?
- Bai.
- Zenbat seme-alaba euki zittuzun?
- Bost. Bost motil. Neskaik euki baeko penea. “Una pena interminable”. Bai. “Hasta que viva”.
- Neskea nahiz zendun?
- Bai. Nik beti neska baten inbirie.

5.7. Gabiriako ostatuak urteekin lortutako arrakasta

- **Hizlaria(k):** Alustiza Gabiria, Nikolas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** GAB-006/035
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:59:59. **Bukatu:** 01:03:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**

Aisia » Taberna giroa

Lanbideak » Negozioak, dendak

- **Laburpena:** Ostatua ireki zutenean, hasiera gogorra izan bazen ere, lan asko egin zuten, jende asko etortzen baitzen. Euskara ikastera etortzen zen jendea ostatuan gelditzen zen. Ostatuan adiskide handiak egin izan dituzte. 20 urte egon ziren ostatuan lanean. Ostatuan bizi handia egoten zen festetan.

Transkripzioa

-Hemendik, baserritik jun giñen gu Ostatua, ostatu esaten diu, ocho de agosto del setentaiseis. Eta hamabosten festak izaten die, ta zortzin jun giñen. A ze preparatiboa genduken guk festatan-eta ibiltzeko. Jun gea, behintzat, harutza. Bedeinkazioko eguneako ta preparau ta...

-Otorduk-eta ematen zittuzuen?

-Bueno, zenbat otordu eman deu guk gero, zenbat lan ein gendun geo guk hor? Increible zan, urte haietan, ze jendek euki giñuzen guk han. Ta ez euki esperientziik. Ez pentsa urte earrak pasau giñuzenik aurreneko zeak, e! gero bai, gero bai ia, umek hazten ai zien, ta andrek'e esperientzie hartu zon ta...

-Bai, baiño hasiera hartan hutsetik hasita...

-Hemen? Guk hori hartu, ta hurrengo urten hemen, bi urtetan'e bai, donostiarrak etortzen zien hemen udan euskeraz ikastea, eta gure etxen jaten zuen. Lo eskolatan eitten zuen. Jende heldue, karrerako jendea, euskeraz ikastea, kajaorrosetan-eta lanen zeon jendea eta. Zenbat jende holoko.

-Baiña ean borondatez ala nunbaittetikan?

- Ean borondatez. Etortzen zien organizauta, ean maixukin ta. Baiño lekue nahi zuen, nahi zuen herri txikie, euskeraz ikasteko ta, euskeraz aitzen zan tokie. Ta hemen eoten zien.

-Eta zuek etxen eukitzen zittuzuen?

-Jana. Bazkarik eta otorduk gure etxen eitten zuen. Lo eitteko ez genduken, lo eitteko eskolatan eitten zuen lo, eren literak o jarrita hor eitten zuen.

-Garai hartan Ostatua zen herrin zegon taberna bakarra?

-Bai, gaur'e hala da. Gaur'e hala dau, bakarra. Garai hartan hori zan bakarrik, bai. Baiño guk izugarrizko lanak ein giñuzen hor. Joee. Zenbat otordu eman gendun guk hor. Ta, gero, ze ezaupidek gaiñea eitten dittuzu batekin ta bestekin. Zenbat aldiz etortzen dien oaindik bakarren batzuk. Igandero etortzen zienak bazien hemen Zumarragako hiru matrimonio gaztek. Bat, Vitoriaa jun zan, andrea hil zan, oaindik Zumarragan-ta, haik esan'e eitten due, "joe, zenbat aldiz gustora eon gean hor". Hola. Hogei urte ein giñuzen hor. Bai. Ez gendun osatu hogei urte, gu agoztun sartu giñen, ta agoztuun hogei urte ein behar giñuzen agoztun zortzin, baiño irten gendun aurreko marson. Marsotik agoztua bittartekoa falta izan zikun hogei urtek justuk osatzeko. Hor eon giñan. Gero nei pena eman zian, ta nere andrei gehiau, hori uztek, baiño gure gaztek ez zuen nahi. Klaro, loturea're bada. Baiño, ooooo, hor ein zitteken lana.

5.8. Ostatuko ordutegia bezeroaren arabera

- **Hizlaria(k):** Alustiza Gabiria, Nikolas
- **Elkarriketatzaillea(k):** Otegi, Aitziber

- **Erref:** GAB-006/037
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 01:05:29. **Bukatu:** 01:06:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Taberna giroa
Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- **Laburpena:** Ostatuko ordutegiaz hitz egiten du. Gauetan lan egiten zuten, jangelan gehienbat. Askotan taberna itxi nahi, baina bezeroak joan arte zain egon behar izaten zuten.

Transkripzioa

-Tabernako ordutegia zein izaten zan? Egunero egoten zineten gauetan´e?
-Goizeko hiruek aldea arte eo, lauek aldea arte eo. Bai, gaue gehiena ordun´e.
-Hori festatan. Eta festetatik kanpora gauetan´e egoten zineten?
-Bai, bai, bai. Gauetan bai, eitten zan, bai. Klaro, herri txikitan gero, gauez ez dezu eitten barran hainbeste lanik ez dezu eitten ordun; ordun eitten dezu jangelan.
-Jokurako-ta egongo zan afizioa baita...
-Baita, bai, musen ta. Agoantau ein behar. Gaur ez da hola agoantatzen e! Gaur, komedorek-eta, hau ta hori pasatzen dienen, ras itxi ta fuera. "Hik hartu behar badittuk hemen hartuitzek zeak", baiño...
-Orduko premie egon bazan, gaur´e egongo zien...
-Bueno, hoixe baietz. Zenbat ordu galdu gendun guk hor? Koadrillak, bertako jendea. Zerbait esaten baziezun txarra ziñen. Ni're askoz geo amorra einda zerbait esan eta "bai, hi holakoa izango haiz, bai!". Haek han segi, haidi beida eon zaitz han. Hurrengo egunen, igandea baldin bazan, goizen... Gaur hamaikatan eo hamabitan irikitzen dizue herriko ostatue. Guk goizeko zortzitardik beatzitako igandero han irikitzen gendun e! Saldea ta, gosarik eta, danak eitteko.

5.9. Antzerki-taldearekin egindako zenbait antzezlan

- **Hizlaria(k):** Alustiza Gabiria, Nikolas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** GAB-006/041
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 01:11:17. **Bukatu:** 01:12:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Kultura » Zinema
- **Laburpena:** Antzerki-taldean egin zuten lehenengo lana Ehun dukat izan zen, eta, gerora, beste hainbat egin zituzten: Seme hondatzailea, Iparragirre, Bixente, Iziartxo, Garo-usaina, Ramuntxo...

Transkripzioa

-Zein izan zan lehenengo egin zenduen obra?
-Horixe, Ehun Dukat hori. Esan dizut, ba? Mutillek bakarrik.
-Txilibitu ez al zan lehelena ein zenduena?
-Ez, ez. Lehenengo ein zana Ehun Dukat izango zan. Gero etorri zien beste horik, Txilibitu ta. Hori neskak eitten zuela uste det e. Txilibitu Miragarria edo ez dakit nola zan, e? Hola izango zan nolabait. Horik ez nittun nik ondo ezautzen. Baiño hemen asko ein dia zeak. Baiño nik neonek eindakok: hori, Ehun Dukat hori, gero hurrengo eingo gendun Seme Hondatzailea,

Iparragirre're bai, Bixente're bai, Iziartxo're bai, ta gero Garo Usaia, ta gero Ramuntxo're ein zuen. Nik ez non Ramuntxo ein. Ramuntxo antzezlanak latza da e! Ramuntxo, joe.

5.10. Antzerkietako zentsura

- **Hizlaria(k):** Alustiza Gabiria, Nikolas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** GAB-006/042
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 01:12:18. **Bukatu:** 01:13:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Kultura » Zinema
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
Politika » Euskara eta politika
- **Laburpena:** Antzerkiak euskaraz izaten ziren eta ez zuten arazorik izaten, baimena bai baitzuten hartarako. Apaiza zorrotz xamarra zen neskak eta mutilak elkarrekin zebiltzalako antzerki-taldean: antzeztan batzuetan musu batzuk kendu egin behar zirela esaten zuen. Hala ere, antzerkia egiteko askatasun guztia izan zuten.

Transkripzioa

-Nikolas, antzeztan euskeraz. Euki zendutn arazon bat horrekin?
-Bueno, ez, arazoik ez gendun euki, ez gendun euki. Beno, klaro, gezurre're pixkan bat esan behar izaten zan, ta... Baimena bagenduken gauza horitako. Oain, eozar gauzatan'e ez zeon ibiltzeik. Apaize're hemen ordun gogor xamarra zeon; bueno, ez politika aldeti, baiño bestela, alkarrekin neska ta mutil ta eitteko ta kontu horrekin pixkat sartzen zana zan.
-Sekula debekatu zizuen antzerki obran bat eittea?
-E?
-Antzerkin bat ittea debekatu zizuen?
-Ez, ez, ez, ez. `Ramuntxo´ hortan, eztabaida batzuk, lehen esan dizuan apaizekin, zeati `Ramuntxo´ hortan, klaro, neskei o baten bati musu're eman behar zitzaioa, ta ezetz, hori kendu ein behar zitzaioa ta, holako huskeri batzuk bai, baiño gairantzen debekatu, ez ziun debekatu hemen antzerkie eitteik. Antzerkie eitten askatasun guztie izan gendun.

5.11. Apaiz berria, saloi berria

- **Hizlaria(k):** Alustiza Gabiria, Nikolas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** GAB-006/043
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 01:13:29. **Bukatu:** 01:15:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Kultura » Zinema
- **Laburpena:** Gabiriako eskolan egiten zituzten entseguak. Apaiz berria etorri zenean, saloi berria jarri zien antzerkirako. Hura inauguratzeko "Iziartxo" antzeztu zuten.

Transkripzioa

-Jeneralen, nun eitten zenduen hemen Gabirin antzerkie itten zenduenen?
-Esan dizut, ba, eskolan. Baiño, gero, apaiz hori jun eta beste bat etorri zan. Ataungoa zan, gaztea. Nere edadekoa zan ordun, garai hartan. Gero irten in zon apaizgintzatik, ta ezkondu ein zan, ta hil zan, gaiñea. Lehen esan dizut tokie nola zeon, oain saloi parrokiara daon hortan, ta hori oso dezidittue zan, gaztea, etorri ta pin-pan hasi zan, ta han ein behar zala saloia. Bati hau ein, ta beste hori ein, saloi berrie. Bueno, lekue han zeon, baiño berrie ein zan.

-Hori noiz izan zan? Zenbat urte zittuzun zuk hori in zanen?

-Nik hori jun zanen nik zenbat... Lehen esan dizut, cuarenta y nueve ingo gendula aurreneko antzerkie... cincuenta, cincuenta-cincuenta y uno hor ingurun. Akordutzen naiz, nola ein zan, bere eszenarioa ta, garai hartako zea, ta hue inauguratu zan garaian han ein gendun 'Iziartxo', zan antzezlan, hori neska ta mutil eindakoa zan. 'Iziartxo'. Han ere bai, han'e aurreti nitzen.

5.12. Maisuak eman amore antzerkian sartzeko

- **Hizlaria(k):** Alustiza Gabiria, Nikolas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** GAB-006/044
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 01:15:04. **Bukatu:** 01:16:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Kultura » Zinema
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena:** Irakurtzeko zaletasuna beti izan du, eta maisuak antzerkian hasteko animatu zuen. Antzezlanak handik eta hemendik ateratzen zituen maisuak.

Transkripzioa

-Nundik etorri zitzaizun zuri hortako zaletasuna?

-Irakurtzea-ta asko gustau itten zitzaian, ta maixuk, "hik hau ein behar dek", eta hola. Baiño nik baiño lan gehio indakok asko die hemen, Gabirin. Nik asko in non, baiño nik baiño gehiao indakok badie. Eta gero, lehen esan dizuana, 'Garro Usaie' hemen neretzako hori izango zan hemen in dan onenetakoa.

-Eta antzerki obra hoik nundik ekartzen zittuzuen? Berak ekartzen zizuen nunbaitetik?

-Maixue, esan dizut, ba, maixue? Horrek etaratzen zittun handi ta hemendik eta... Bera ikaragarri zalea zan. Asko balio izan zon. Gero, apaiz hori lehen esan deana, hue bialdu zuen... Bialdu... Bai, ordun bakoitze bere probintzitako zeak eta kanbiatzen zijon gauzak. Hure bizkaitarra zan ta bizkaitarrak Bizkaira, ta Gipuzkoakok Gipuzkoa. Hor jarri zien ordun. Ta hure Bizkaira jun zan. Ta ordun etorri zan lehen esan dean ataundar hori, gazte berri hori. Horrek ein zon gero hab saloia ta horik danak ein zittun. Bea ez zan hola, antzerkik eta eitteko, harek ez zon bate entenditzen, baiño "vía libre" uzten zon dana, e, dana libre. Harekin ez zeon zeaik, uuu, lasai. Ta, ordun, maixue gendun direktorea.

5.13. Antzezlanak ikasteko denbora eta emanaldiaren eguna

- **Hizlaria(k):** Alustiza Gabiria, Nikolas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** GAB-006/045
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 01:16:30. **Bukatu:** 01:17:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Kultura » Zinema
- **Laburpena:** Antzezlanak paperetik ikasten zituzten. Garo-usaina antzezlanak ikasteko, negu osoa pasa zuten. Gero, jende asko etortzen zen antzezlanak ikustera. Sarrera kobratu egiten zen, eta diru hura hobekuntzak egiteko erabiltzen zuten.

Transkripzioa

-Papeletik ikasten zenuen?
-Papeletik dana.
-Eta zer jartzen zuen, izenez bakoitzak esan behar zuen pusketa?
-Bai.
-Zenbat denbora pasa zeikezuen antzerki obra bat ikasten?
-Joe, 'Garo Usaie', esan dizuan hori, negu osoa pasa gendun guk. Neguko igandetan, atsaldetan, zenbat aldiz juten giñen gu hautza, saloia orduko einda zeon, ta han, hotzak, berotasunik ez, hori ikastea. Pentsaizu nola. Neska ta mutil, han. Ta gero, illuntzan, ba, handik irten ta bokadillon bat jan ta, ta hola. Baiño ze artekin? Ta, geo eitten zan garaian zenbat jende etortzen zan kanpotik eta!
-Kanpotik etortzen zien?
-Buenooo! Zumarraga aldetik eta, izugarrizko zea euki gendun guk ordun.
-Eta, Nikolas, kanpotik etortzen zan jende horrek antzerkie ikusteatik zeoez ordaintzen zuen?
-Bai, kobratzen zan. Hoixe. Bere entrada eukitzen zon.
-Eta zuei dirurik ailegatzen zitzaizuen?
-Baa, dirue... Guri aillatu, ez gastatzeko... zerbait zea eitteko. Beti zerbait erosi behar zendun, gauza horik eitteko ta, handik, beste iñundik ez zeon diruik eta. Diruik sekula ez deu guk hortik kobratu.

5.14. Antzezlanetarako atrezzoak

- **Hizlaria(k):** Alustiza Gabiria, Nikolas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** GAB-006/046
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 01:17:39. **Bukatu:** 01:18:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Kultura » Zinema
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena:** Antzerkietarako atrezzoak Larrea familiaren baserritik lortzen zuten.

Transkripzioa

-Jantzik-eta nundik ateratzen zittuzuen?
-Jantzik, baserriko gorabeherak eta nola izaten zien... Geo, hemen etxe bat zeon, Larreaenea, gero haek gastau zien famili hura, ta geo Pavimentos

Arrondo honek erosi zon etxe hori, ta horko bi seme bizi die han. Han zeon familie, Larrea hori, ta hoik eukitzen zuen lehenaoko gauzak. Buuu... Bueno! Etxen. Ikaragarritzko zea zan. Handi gauza asko, beti eamaten. Zoratzen eoten zien een gauzak eamateko. Zenbat gauza eamaten zien handio!? Mueblek ziela, o holako garaitako silloia zala, bestea zala. "Larreaeneti ekarriko deu". Handik eaman ta hola. Jantzik, berriz, orduko jazkerak, ba, Euskal Herriko baserritan lehen ibiltzen zan jantzie izaten zan, ta horik hemen etxe guztittan ta. Jantzikin problema haundiik ez gendun izaten, horkoa eitteko.

5.15. Gabiriatik kanpo emanaldiak eta irratsaioko pasartea

- **Hizlaria(k)**: Alustiza Gabiria, Nikolas
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: GAB-006/047
- **Iraupena**: 0:02:03. **Hasi**: 01:18:41. **Bukatu**: 01:20:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 - Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia
 - Politika » Euskara eta politika
 - Aisia » Kultura » Antzerkia
- **Laburpena**: Gabiriatik kanpo ere joaten ziren antzezlanak erakustera. Behin Donostiara joan ziren pasarte bat grabatzera Radio San Sebastiañen: orduan astelehenetan irratsaio bat egoten zen euskaraz, eta han emateko grabatu zuten pasartea.

Transkripzioa

-Sekula herritik kanpora ein zenduen antzerkirik?

-Bai. Zumarragan'e bai, izan giñen. Legazpin'e bai, Zegaman'e bai, Legorretan'e bai. Besteik ez det uste izan geanik. Zumarraga, Legazpi, Zegama, Legorreta. Beste iñoa ez det uste jun giñenik. Jun giñen pasarte bat ematea Donostira. Garai haitan, `Garai Usaia´n pasarte txiki bat ematea. Radio San Sebastian zeon ordun. Eta, astelehenetan, illuntzaan, ordu laurden bat eo, euskeraz emateko zea zeon. Ta han sartzeko pasarte bat grabatzea Donostiaa, Radio San Sebastianea, jai goiz baten jun giñan. Ez danak, e! Jun giñen "los elegidos" —pasarte bat zan—, ein behar gendunak, dozena erdin bat eo. Ondo goatzen naiz han nola egon giñan Radio San Sebastianen grabatzen.

-Aktore onenan pare.

-Bai, bai. Ordun ez zeon euskeraz iñundik aitzeik ezer ordea.

-Eta, ordun, irratsaio bat egoten zan, tarte bat egoten zan euskaraz?

-Astelehenetan, astelehen illuntzaan. Baiño ordu erdin bat eo hola izaten zan.

-Gogon daukezu ze izen zun irratsaio harek?

-Ez dakit, ez naiz gogoratzen. Ez naiz gogoratzen horrekin. Han tartetxo baten, han grabau ta han ematen zuen, han eman zuen hori. Gero, jendek aittu eitten zon ordun, gaur ikusi eitten dittuzu gauza danak telebixiotik, baiño ordun radiotik hori eman zuen, ta hure, ba, leku askotan. Danen'e ez zan aitzen ondo. Keba! Nola aittuko zan ba! Han izan giñen hori eitten.

5.16. Antzerki-taldearen izena eta garraiobidea

- **Hizlaria(k):** Alustiza Gabiria, Nikolas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** GAB-006/049
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 01:21:04. **Bukatu:** 01:22:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Kultura » Zinema
Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
- **Laburpena:** Antzerki-taldeak ez zuen izen berezirik. Kanpora antzezlanak ematera joan behar izaten zutenean, autobusez joaten ziren, Apaolaza autobusean.

Transkripzioa

-Nikolas, nola izena zun zuen antzerki taldek?

-Harek ez zon izenik!

-Izango zon izenen bat...

-Ez, ez.

-Herritik kanpora juten zinetenen, ze izenekin irteten zineten?

-Gabiriko taldea, Gabiriko talde bat dator, eta kitto. Harek izen espezialik ez zon izan, ez gendun izan. Keba! Garai hartan ez zeon holako beharrik. Gaur izan balitz bai. Ta hala gastatu zan gero hura.

-Eta Nikolas, nola juten ziñeten inguruko herritara antzerkia itera jun behar zenduenen?

-Autobusen.

-Baiña autobusa hortako propio jarritakoa, ala...?

-Bai, autobuse, ez dakit zeñek pagatzen zon. Jun behar zon herrikok eo, harek. Taldea jun behar zon herrikok pagatzen zon. Hemen bertan zeon autobuse, Apaolaza, autobus zea batekin. Han juten giñen. Legorretaa ta, Zegamaa ta, Legazpia ta. Autobusen, bai, bai, bai. Danak batea, autobus baten. Hala juten giñen. Klaro, ez genduken kotxeik gaur bezela ta, hala jun behar. Bestela nola jungo ziñen?

5.17. Antzezlanetako euskara

- **Hizlaria(k):** Alustiza Gabiria, Nikolas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** GAB-006/052
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 01:33:46. **Bukatu:** 01:34:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Kultura » Zinema
Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
Aisia » Kultura » Irakurtzea
- **Laburpena:** Antzezlanak ez ziren batuan izaten, egileek idatzitako moduan baizik. Jacinto Carrasquedok moldatu zuen `Garo usaina´.

Transkripzioa

-Eta batuan izaten zien denak?

-Keba! Keba! Ez zeon batuik ordun.

-Hemengo hizketan? Gabiriko hizkeran jarritakok zien?
-Ez, ez, ez. Hori egillek eindako zea zan, egillek, berak egillek. Hori, lehen esan dizut, `Garoa´ nobelea euskerazkoa, irakurrita daukezun ez dakit, ez zendun irakurriko zuk, ezta? Ba irakurri behar zendun. Berdin da. `Garoa´. Hortik etaa zuen hori, Donostiko zea bat zan. Jazinto Carrasquedo zan horren autore, `Garo Usaia´ ein zona. Handik etaatakoa da. Harek euskerautako, harek euskeraz etaatako... Guk ez giñun ezer'e kanbiatu hori, hola inda dao hori. Baiño euskera, garai hartan... batua gero etorri zan. Hori herri euskeran dao. Baiño horrek dauzke esaldik, buenoo, ikaragarrik.

5.18. Kanturako zaletasun handia izan da Gabirian

- **Hizlaria(k):** Alustiza Gabiria, Nikolas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** GAB-006/054
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 01:35:45. **Bukatu:** 01:37:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Taberna giroa
Aisia » Kultura » Musika
- **Laburpena:** Musika asko gustatu izan zaio beti Nikolasi. Kanturako joera handia zegoen lehen Gabirian. Tabernan elkartzen zirenean, kantatu egiten zuten.

Transkripzioa

-Nikolas, antzerkigintzatikan aparte, nik badakit kantuak-eta ere asko gustatzen zaizkizula.
-Kantue, kantue asko gustau zat nei, bai. Nik hamaika aldiz pentsatu det, ta esan'e ein det nik gaiñea, ni gaurkoa izan balin banitz, ni musikoa o hola izango nitzen. Ona o txarra.

-Baiño musikoa.
-Musikoa izango nitzen. Ni bai, hala izango nitzan. Zenbat gustau zatan. Baiña... Bai, hemen'e kantue elizan ta holakotan...
-Bazeon hemen joera kantun aritzeko?
-E?
-Kanturako joera bazenduen?
-Haundie, haundie. Bai, bai, bai. Askok. Oaiñ ez, oaiñ ez da iñor...
-Nun aritzen ziñeten kantun? Elizan, esan dezu.
-Bueno, elizan... elizako gauzak, baiño... tabernan ta juntautako garaian ta zenbat aldiz kantatu. Ordun dana hola zan, kantue zan ordun. Oso ondo ez, baiño. Geo, hemen soiñujolea zan, bere semea oain Donostin bizi da, zea, Arzelus, Pepe, horren aitte zan soiñujolea, ta harek eman ziun guri zea horik. Geo hue hil ein zan, kanterrakin hil zan. Baiño Gabirin beti kantuako ta. Oain ez, oain e... Oain eskolan ta hor erakusten die ta hor ibiltzen die gauza horik baiño...
-Ordun berezkoa.
-Ordun berezkoa zan, buenoo, alkarreana juntau ta.

5.19. Bertsolariak familian bai, baina bera ez

- **Hizlaria(k):** Alustiza Gabiria, Nikolas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** GAB-006/055
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 01:37:08. **Bukatu:** 01:38:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Kultura » Bertsolaritza
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- **Laburpena:** Bertsotarako ez du inoiz izan taxu handirik; bai, ordea, aitak. Luzio Gabiria bertsolaria aitaren osaba zuen.

Transkripzioa

-Bertsotan ta?

-Bertsotan sekula ez det izan tajuik, ez. Nere aitte zana oso politte emen zala oso... ona zala aittu izandu det. Nik entzun nion behin o behin, baiño ez zan hola ibiltzen zana. Harek ba omen zon. Zuk ez zendun ezautuko, Luzio Gabiria?

-Aitzera badauket baiño ez dakit zein zan.

-Joxemari ezautuko dezu, Joxemari Gabiria. Aitte zan hori, Luzio. Ta Luzio Gabiria hori zan nere lehengusue. Lehengusu doblek giñen gaiñea, aitte ta ama, ta aitte ta ama kruzau ein zien. Nere aitte ta Luzio zanan ama anai-arrebak zien. Luzio bea bertsotan eitten ondo, politte eitten zon Luzio Gabiriak. Gero, bere berso mundu hortan zeon. Ta nik hari entzun izandu nion, zeati bere aitte pontekoa zon nere aitte hori, bere osaba aitte pontekoa zon. Ta haek, nola bere osaba bertsotako hue, bazola harek ona ta. Haen zean bat euko zon. Nik bat'e ez det izan bertsoik, ideiaik arrastoik'e ez.

6. Ekonomia eta industria

6.1. Talogileek alkandora zuria eta gona urdina

- **Hizlaria(k):** Etxeberria Amiano, Eusebia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** GAB-004/021
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:32:28. **Bukatu:** 00:34:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena:** Alkandora zuria eta gona urdina erabiltzen zuten taloak egitera joaten zirenean. Haren gainetik, amantal moduko bat. Elizatarian kokatzen ziren gehienetan.

Transkripzioa

- Euxebe, ze erropa eaman zendun?

- Ba, gu jun giñen lehenbizikon, holaxe bata bat, y un esto crudo, un esto, como una... tenía otra, ebaltzen non sin mangas, jaietan ta txukun antzen eon behar. Beste zea bat, mantal bezela. Baiño mantala ez zan, hola zea bat. Oaindio ganbaran dauzket danak.

- Baiño erropa espeziala zan egun hartako?

- Gero hasi giñen espezialakin. Hor hasi zien espezial jun behar gendula ba: “faldas azul marinos y camisas blancas”. Ordun'e edarki, edarki danok, muy bien.

- Euxebi, ordun, egun hartan, Leazpin aittu ziñeten talo eitten, eta berriz deittu zizuen, beste nunbaittea juteko?

- Bai, berriz'e herria, berriz'e herria.

- Handik hasi ziñeten maitzen?

- Bai.

- Ta beti lau lagun ibiltzen ziñeten?

- Ez, geo gehiau hasi giñen. Ez zeon buru emateik, lau bakarrik.

- Eta eskolan bat eo bazenduen? Eakusten ziozuen bestei talok eitten?

- Hori norberak ikixi behar izaten do, norberak ikixi behar. Batzutan okartxego igual irtengo zizun, baiño norberak ikixi behar. Bai. Esaten giñen: “hala, saiau etxen hasten, ta hurrengoako hobetogo ingo itzue”.

- Talok eitteko pueston bat zeukezuen?

- Bai. Eliz atarie hartu genduen. Zeatio, lehen eitten gendun plazan, baiño plazan'e peligroa jotzen zon. Eurie eitten bazon ez zeon eitteik, busti eitten zan. Ta jendea, dana holaxe kolea eoten zan, zaí. Geo esan gendun, “ba onen-onena eliz atarie deu. Han behintzat ez gea bustiko”. Ta geo eliz atarin eitten gendun. Baiño urte askon.

6.2. Prakagile bati laguntzen

- **Hizlaria(k)**: Etxeberria Amiano, Eusebia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: GAB-004/028
- **Iraupena**: 0:03:32. **Hasi**: 00:48:17. **Bukatu**: 00:51:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- **Laburpena**: Antolarrazpi baserrian neskame ibili zen. Prakagina zen etxeakoandrea eta hari laguntzen ibili zen urte eta erdiz. Jositako prakak Tolosara bidaltzen zituzten. Gizonezkoentzako prakak josten zituzten eta nolakoak ziren deskribatzen du.

Transkripzioa

- Eskola hamabost urtekin utzi zendun. Hamabost urtekin eskola utzita, ze hasi ziñen, lanen?

- Bai, etxen lanen. Geo tenporada bat neskame're ein nun. Han, beheko baserri baten. Bost duro pagatzen zien hillen.

- Ze baserri ta jun ziñen?

- Antolarrazpi. Hantxe eon nitzen.

- Nolatan jun ziñen hautza?

- Harek'e behar zon. Hure're bakarrik arkitzen zan.

- Zer zan, emakumen bat?

- Bai.

- Bea bakarrik bizi zan?

- Gurasokin. Gurasok zeuzken ia edadekok. Lehenbizi ibili nitzen... “Era pantalonera, el cuñado era sastre”, Tolosan bizi zan koiñadoa. Koiñadok bialtzen zion, klaro, harek'e bizi ein behar zon, [...] ta prakak bialtzen zion. Tenporada bat ein non, urtea ta gehiau ingo non, josten, prakak josten.

- Nun josten zittuzun, baserrin bertan?

- Basarrin bertan, bai. Ta bialtzen giñun “en Zepelin, un autobús de

Zumarraga a Tolosa”.

- Zumarragako autobusak Zepelin izena zun?

- Zepelin.

- Handik Tolosa juten zan?

- Bai. Beno, Donostiraiño jungo zan hure. Guk Tolosa bialtzen gendun. Ta geo beak'e atzea bialtzen ziun.

- Zuk ze eitten zendun, barrenak hartu?

- “De todo, de todo”. Prakea konpleto.

- Prakak ein eitten zittuzun?

- Bai. Josi, josi, berrie josi. Bai. De todo.

- Nolako prakak izaten zien?

- Ondo. “Era buen sastre”.

- Neskanak ala mutillenak?

- Motillenak, motillenak.

- Neskantzako izaten al zan ordun prakaik?

- Ez, ez. Ordun ez zan neskantzako. Baiño, gauza ona erten zon e! “Yo prefiero pantalón que minifalda”. Hor, beheko danak ikusiz, minifaldakin. Prakea, mucho mejor.

- Nolako prakak izaten zien?

- Normal, dana normal.

- Baiña pintzadun galtzak ala nolakok?

- Hemen bi pintzakin, “luego aquí un bolsillito general, para el reloj si quería llevar”. Ta geo normal, normal.

- Ze tela ibiltzen zien?

- Ona ibiltzen zon telea, “muy buena tela”.

- Gehienbat ze eitten zien, mahonezko galtzak ala galtza onak, jaietako erropa eitten zendun?

- Ez, ez, ez. Onak, onak. Jaietakok, jaietakok. Maonezkoa're, beai esan ezkeo, eitten zittun, baiño sastre bestelakoa.

- Ta zu hortan aittu ziñen?

- Bai.

- Josten bakarrik, ala etxeko lanetan'e bai?

- Ez, ordun josten bakarrik. Eta gero, ditzosozko gerrea etorri zan, “el cuñado se tuvo que marchar, porque era rojo”. Beak'e bai. Ta ordun egun txarrak pasau giñutzen.

6.3. Lantegi desberdinetan aritua

- **Hizlaria(k)**: Alustiza Gabiria, Nikolas
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: GAB-006/033
- **Iraupena**: 0:01:57. **Hasi**: 00:53:37. **Bukatu**: 00:55:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 - Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
 - Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
 - Lanbideak » Arotzak
- **Laburpena**: "Muebles Ordiziako" lana utzi eta lantegi batean eta bestean ibili zen ordutik. Azkenean, mosaiko-lantegi batean aritu zen lanean.

Transkripzioa

-Hala, hemen udara pasau ta gero berriz'e harea hasi nitzen, ta berriz'e Ordizin hasi nitzen, calle Urdanetan, Pedro Esnaola. Mueblek eitten zittuen han'e. Ta han pasau non beste, ez dakit ba, urte eta erdi o hola. Gero, nere anaiek eta beste batek, ni soldadu jun baiño lehenau, tallar koxkor bat eo zerrea Urretxun jarri zuen. Ta gero harutza... Anaiek harutza eaman nittun, lanea. Bea soldadu zeon gaiñea, anaie. Soldadu zeola han jarri zuen tallar bat, Urretxuko plazan zan, hantxe, udaletxeti gertun, zerra hori. Garai hartako kontuk die hok.

-Asike, egurren...

-Egurren ibili nitzen ni. Gere kontua're euki gendun gero taller txiki bat Zumarragan, baiño ez neon gustoa. Gero, esnetan'e ibili nitzen, esan dizut ba lehen zea asko pasatu dittuala. Egurretik irten, anaiek eta biok euki gendun taller txiki bat Zumarragan, ta gero hure utzi non, esnetan ibili nitzen, esnetai utzi nion, esne saltzei. Ta geo, lehen esan dizuana, lanen ibilita naula hor, pasiotarren etxe hortan, Edersal, mosaikotan. Hor ein nittun beste hiru urte eo. Ta gero hori gaizki zijon, itxi eo. Itxi ez zan ein, baiño...

-Ze lantegi zan hoi?

-Mosaikoa eitten do. Kristala zeatu, iho, iriñe ein kristala, ta horrekin eitten zan mosaiko txikie, ta laben erreta, irtetzen zon horrek, laben. Hori eitten zon. Gero izenez kanbiatu zioen ta berriz'e hor seitzen do oain'e, baiño apenas lan asko daukien eta ez dakit, igual ez do... Baiño gero, ba, ni horti, ba, jubilatatu in nitzen.

7. Politika

7.1. Gerra hasi zenean, izara zuri bat leihoan

- **Hizlaria(k)**: Etxeberria Amiano, Eusebia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: GAB-004/029
- **Iraupena**: 0:02:43. **Hasi**: 00:51:49. **Bukatu**: 00:54:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- **Laburpena**: Gerra hasi eta tropak etxe ondotik pasa zirenean, izara zuri bat jarri zuten leihotik zintzilika. Erreketek bati etxe hartan gizonezkoak ez zegoela esan behar izan zion. Gazte guztiak Gabiriako batzokian elkartuarazi omen zituen alkateak. 18 mutil gabiriar hil ziren gerratean.

Transkripzioa

- Nola akordatzen zea gerra hasi zaneke harekin? Gabiritik pasa zien tropak?

- Bai, geure bista-bistan. Etxen bista-bistan. Eta gure aitte zanak esan zian: "jarri hesolen puntan" —hesolak eukitzen giñutzen baatzan ibiltzeko, bainantzako ta—. Ta jarri non izara zuri bat txintxilika, leihotio. "Yo quería paz, yo no quería guerra". Etxekoaneren zeren lau mutil, zortzi urtekoa ttikie. Ama nearrez txikitzen gure etxen. Jun zikun rekete bat, eta esan nion: "aquí no hay nadie, de aquí ya se han marchado todos". "¿Y a dónde han ido?". "No se sabe. No sabemos nada. Pero no creo que estarán en el pueblo". "No, en el pueblo no hay nadie". "Pues no sabemos nada. Aquí no

hay más que hijas, y ahí ese chaval". Hure're pasau gendun. Aquello también ya pasamos.

- Ze akordu daukezu? Zuen etxe ingurutik pasau zien?

- Bai, hantxe goien ikusten zien, "con sus caballos". Uuu! Ze bildurre ematen zon.

- Tiroik o bonbaik o entzun zenduen?

- Ez, ez, tiroik eta ezer ez. Klaro, no había nadie. Ez zeon kontrarioik.

- Herriko jendek ihes ein zon?

- Bai. Hemezortzi motil hil zien Gabirin.

- A bai? Nola pasau zan hori?

- Fueron hasta eso, hor nun harrapatzen zittuen? "Como era ese pueblo...", Gernikati aurea? "En Laredo, en Laredo les pillaron". Baiño esanda zeuzken alkatek "que no les hicieran nada". Beak zauken kulpea ta. Herriko motil danak Batzokia ingurau zittun, ta gero "se escapa él a Ormaiztegi, donde ellos".

- Gabirin Batzokie bazan?

- Bai, oaiñ'e han eongo da. Dotorea gaiñea.

- Ikusten zan, mugimendue bazeon? Batzokin ingurun jende asko biltzen zan?

- Bai, "todos los jóvenes". Gazte danak, gazte danak.

7.2. Gerraosteko gosea

- **Hizlaria(k)**: Etxeberria Amiano, Eusebia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: GAB-004/031
- **Iraupena**: 0:02:24. **Hasi**: 00:56:11. **Bukatu**: 00:58:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Gerraostean gose handia pasa zuten. Errazionamenduan emandako janaria txarra zen eta ez zegoen jaterik. Alkatea hasi zen, hilean behin, errazionamenduan azukrea eta olioia ematen. Eurak ez zuten estraperlorik egiten.

Transkripzioa

- Gerra ondoren hartan goseik pasa zenduen?

- Bai. Asko pasau gendun. Ogiik ez zan. Ogiik ez zeon ta.

- Errotak prezintatuta zeuden? Itxi ein zituen?

- Zan, como... nik ez dakit hure zerekin eitten zuen.

- Razionamenduko ogie, esaten dezu?

- Como algarroba o. Hue ez zeon jateik. Esaten gendun: hau ez jatea hobe da, jatea baiño. Razionamentun sobrau zikun artokin batek ein ziun faborea iriñe ekartzeko, ta haretxekin goizen taloa ta esnea. Amak ematen ziun penaik gehiena. Ogiik ez, ta pasau ein behar, pasau ein behar.

- Razionamenduko jana, nun erosten zenduen?

- Geo alkatea hasi zan ematen, aiuntamentun goien, goien ematen zon, herrin.

- Herriko jendea jun ta illaran jartzen ziñeten hartzeko?

- Bai.

- Zenbatero ematen zun?

- Ordun ematen zon, cada persona, medio kilo, creo.

- Baiño egunero ez ziñeten jungo. Asten behin ala?

- Hillen behin. Hillen.
 - Eta pertsonako zenbat?
 - Medio kilo, uste det, azukarra. Ta harekin pasau ein behar zan.
 - Alkatek ze ematen zun: azukrea, ta ze gehio?
 - Oliao, ta gehiau ez dakit ze ematen zon. Ez dauket oain gogon. Hainbeste urte da.
 - Estraperloa're izango zan.
 - Ibiliko zon jendek, ibiliko zon. Gu ez giñen iñoa're moitzen. Aitte're ez zan moitzen, ta hobe gaiñea ez moitzea. Esaten gendun, disguston bat etortzeko? "Nada. Pasar con lo que hay, y tirar para adelante". Ta holaxe pasau gendun. Baiño geau giñen kandealea bezelaxe, flakauta.

8. Euskara

8.1. Hika, zuka ala berorika

- **Hizlaria(k)**: Etxeberria Amiano, Eusebia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: GAB-004/033
- **Iraupena**: 0:01:01. **Hasi**: 00:59:54. **Bukatu**: 01:00:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Euskara » Tratamenduak
 Euskara » Tratamenduak » Berorika
 Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- **Laburpena**: Medikuari eta apaizari berorika egiten zieten. Alkateari eta gurasoei zuka. Gurasoek seme-alabei aldiz, hitanoz. Eta anai-arrebekin ala lagun arten ere hika.

Transkripzioa

- Nola hitzeitten ziozuen meikui?
 - Nola hitzein? Beori. Y hablando, usted.
 - Zeni hitz eitten ziozuen gehio berorika? Apaizei?
 - Apaizei're bai.
 - Apaizai, meikui ta zeñi gehiau?
 - Gehiau iñoi ez.
 - Alkatei ez? Alkatei ez zitzaion berorika eitten?
 - Ez. Alkatei zu. Zu.
 - Zuek etxen? Ahizpan arten?
 - Ahizpan arten hi, ta gurasokin zu.
 - Ta gurasok zuei?
 - Haak jenealen, hi. Bai. Nunbait iruitzen zaten, más corriente eo.
 - Ta lagunekin nola eitten zendun, hika?
 - Bai, hika, launekin'e. Konfiantza gehiau.

8.2. 'Garo-usaina' antzezlan buruan oraindik

- **Hizlaria(k)**: Alustiza Gabiria, Nikolas
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: GAB-006/051
- **Iraupena**: 0:10:30. **Hasi**: 01:23:16. **Bukatu**: 01:33:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**

Euskara » Euskararen egoera

Aisia » Kultura » Zinema

- **Laburpena:** Garo-usaina antzezlaneko zati bat gogoan du.

Antzezlanaren testuingurua azaltzen du, eta elkarrizketa buruz errezitatzen du.

Transkripzioa

-Gogoan daukezu ein zendun obran bateko pusketan bat?

-Jo, pusketak, pusketak... `Garo Usaia´ horrek, oso ona zan hori, eta bi... Klaro, ni zaharra naiz, Joanes. Ordun, ba, ia etxeko zaharra, zahartuta zan, ta beste lagun bat, Joanes horrek beste lagun bat zon Agustin izena zona. Ta gaztetan alkarrekin asko trato haundik eukitzen zuena. Baiño Agustin hori ez zan... Joanes hau... Oñatiko zean dao hau einda, Oñatiko inguruti dao, Arantzazua bittarten, Azkarraga ta, baserrik ta orduko izenak. Hor dao einda. Baiño Agustin hori bizi zan beste toki baten. Lagunak zian bik. Eta aizkora apustu bat zeon Oñatin, igande baten, ta aizkora apustu hortaa etorri zan Agustin hori, bere semekin. Semek'e nahi zon etorri aizkora apustu hortaa, aizkora apustu hortako jokalaria bat Joanes, beno, nere semea zan, oñatiarra. Ta bestea ez dakit ba nungoa zan. Ta, ordun, etorri zien aizkora apustu hori ikustea, Oñatia. Ta Agustin hori edadekoa zan, bazeekin nun bizi zan bere lagun hori, zaharra, Joanes, han Oñatiko baserrin baten, Zabaleta baserrie, Zabaleta izena. Harek aizkora apustua ikusteko gogoik ez zon eukiko, hango giro hure ez zitzaion zeatzen, hori hala azaltzen da obran azaltzen da hori. Harek, bestek han aizkora apustue ikusten geldittu, eta Zabaleta baserria jun zan Joanes horri bixitatzea. Ta bik han topo eitten due, ta elkarrizketa hure da ona, earra, oso. Han bik alkartzen die.

-Gogon daukezu?

-Bai.

-Nola zan?

-Gogon dauket. Han bik alkartzen die. Eta, jun da hautza, bere Joanes horren baserrira Agustin hori, ta atea jo dio, ta han zabalduko zon, zeatik bestek gaiñantzeko etxeko gehienak aizkora apustua junda, zeati bere semea baizan jokutzen zona aizkora apustua. Bestea kanpokoa zan, baiño, hola. Eta esaten dio Agustin horrek, junda: "Egunon", esaten dio. Ta bestek, "egunon", atzea kontestatzen dio. "Ez al nazu ezautzen?", Agustinek esaten dio. "Ez", ez zon ezautzen Joanesek Agustin. "Oain dala hogeita hamar urte alkarrekin jan genduan arrautzaopilla Urkiolan", esan zion. "Baleike", esaten dio bestek, "baleike", baiño ez zan konturatzen. "Bai, bai. Eta gaiñea, esango dizut, Bergarako azokan saldu ziazun esne-behi eder bat". "Aaaaa", ordun akordatzen da, "bai, zu Agustin zea!", esaten dio. "Bai". "Elgetan jaioa". "Bai, Elgetan jaioa, baiño igarotako -ez dakit zenbat urte esaten dion— Arriolan bizi naizena", esaten dio. "Aspaldiko Agustin", esaten dio ordun, "urteak dira ikusi ez gerala ta". "Esan det hogeita hamar". Hogeita hamar urte arrautza-opilla jan zuela Urkiolan. "Geroztik ez al gea iñun ikusi?", bestek galdetzen dio. "Ez, geroztik nik ez zaittut iñun begiz ikusi. Lehenago bai, lehenago sarri ikusi ohi giñan". Ta bestek esaten dio ordun: "Bai hoixe, bai hoixe. Zuk eta nik, Azurtzako Melitonek eta Irigoienko Kaxparrek, alkar billatzen bagendekian", esaten dio. "Bai. Zer egin zuen gizon haek?". "Hil zian", esaten dio ordun bestek; "hil ziran. Bai, baita Zezeagako Toribio eta Eguzkitzako Txomin ere". Bestek esaten dio ordun, Joanesek esaten dio ordun: "Gizon zintzoak, gizon leialak". Eta bestek esaten dio: "Bai, gaurko egunean gutxi bezelakoak". Eta Joanesek esaten dio: "Gaurkoak ere,

gaurkoak ere, gure ondorengoak dira”, esaten dio. Ta Agustinek esaten dio: “Bai, gure ondorengoak, baina gugandik etenak. Adarrak, adar igarrak dirudite”. Eta... dios, nola zan. “Gugandik etenak, zugaitzetatik ebakitako adarrak dirudite. Adar igarrak. Galeran dijoatz euskaldunak, eta bazter hauek berak ere galeran dijoatzela derizkiot”. Hori esaten dio Agustinek Joanesi, “galeran dijoatzela derizkiot”. “Aramaionara ezkondata daukaten seme batek ekarri nau. Aizkora apustura etorri da. Ez al da zure semea hemengo jokalaria?”, galdetzen dio Joanesi, ta bestek esaten dio ordun: “Bai, nigandik etendako adar bat”. Ta ordun esaten dio, Agustinek ematen dion esplikazioa: “Bai, jende asko bildu da hor herrian, bata dala, bestea dala. Ezagun asko ikusi det, baiño alkarrentzako oso hitz hotzak izan ditugu, ta ez det gogorik izan han gelditzeko, eta baztar hauek ikusiaz, zuri bixita bat egitera etorri naiz”. “Eskerrik asko”, esaten dio, “eskerrik asko, Agustin, eskerrik asko”. “Horra ba”, esaten dio ordun Joanesek, “horra ba. Neroni ere zerbait gogoratzen ari nitzan. Eta zure iritziak nere iritziaren atal bat dirudi. Gu zaharrak gera, Agustin, nahigabetuak gaude. Ta bihotz nahigabetuak hitz garratzegiak ohi ditu. Gure gaztetako egun alaiak joan zitzaizkigun, eta egun haientzat gordetzen degu oraindik geure arimetako maitetasuna. Nork daki gure ustea ziurra dan ala ez?”, esaten dio, bestek esaten dio: “Neuk dakit, eta zeuk ere jakin behar zenduke. Oraingo Euskal Herria eta nere umetakoa ez dira berdiñak. Ordukoa hobe zan”, esaten dio. Bestek esaten dio: “Oraingo eguzkia ta nere umetakoa berdiña ziran. Orduko lorea eta oraingoa berdiñak, baiño gaurko liliari ez diot usairik hartzen. Gaurko eguzkiak ezin poztu nau, lurraldeak itsusiak daudela derizkiot. Gu gaude alperrik galduak, Agustin, gu!”. Bestek ordun esaten dio: “Joanes, ez zera nere oihartzuna, edo ni txurikatzeagatik, zure iritziaren atalen bat barruan gordetzen didazu. Badakit gure zentzuak galduak ditugula, baiñan ez gure arimak. Aitortzen det lehengoak dirala eguzkia, loreak eta lurraldeak, baiño ezingo dezu ukatu hau ez dala lehengo Euskal Herria. Lehen, euskal usaia, garo usaia nabaritzen zan edonun. Gaur, mendietako egurats garbia ere kiratsak ez ote digu jo?”, esaten dio. Bestek esaten dio: “Bai ote?”. Ta, makillea dauke eskutan, ta “makilla hau eskutan daukadan bezela”. Ta bestek esaten dio ordun: “Ta zeñek kirastu du?”. “Zeñek? Danak eta danok”, ematen dio han esplikazio bat, hori ez dauket gogon zein dan. “Danak eta danok. Zu pekataria esaten badakit, baiña ni pekataria ez naiz oraindik ahaztu”. Ta ordun, esaten dio: “Edarki mintzatu zera, Agustin, ederki. Goazen barrura –hoi eszenarioti—, goazen barrura. Pipakada bana erreaz ta tragotxo bat hartuaz, gauza hauek hobetogo argitaratu ditzagun”. Hoi zan pasarte bat, osoa. Ikaragarritzko txalok jo zien ordun. Oso ona da hori. -Txalo jotzekoa da oaindikan ´e burun eukitzea hoi dana. -Hoi dana burun dauket. Gehiao’re banittun. Oso, ikaragarriko lana euki non nik hor, e!

8.3. Politena Tolosako euskara

- **Hizlaria(k)**: Alustiza Gabiria, Nikolas
- **Elkarriketatzaila(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: GAB-006/059
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 01:42:59. **Bukatu**: 01:44:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
Iritziak

- **Laburpena:** Tolosako euskara gustatzen zaio gehien. Goierriko inguruko herrietan kanpoko jendea etorri izanak kalte egin dio euskarari.

Transkripzioa

-Nikolas, bukatzeko galdera bat eingo dizut. Nungo euskera da zuretzat polittena? Nungo euskera gustatzen zaizu gehiena?

-Nei, euskerea? Tolosakoa. Dudaik be. Oaintxen'e Tolosan ondo hitz eitten da, e. Joeee. Gozoa. Neetzako bai.

-Zure edade inguruko gehienak esaten dezue beti Tolosa.

-Bai? Esaten due?

-Zeatik da hori?

-Hala izan da! Hala izan da! Ez zazu konparatu Beasain Tolosakin, e! Ordizi're ez, Legazpi're ez, ta Zumarraga're ez. Beasain'e, euskerakin ibiltzeko txarra izan da, e! Kanpotik etorritako jende hori.

-Fabrika haundira etorritako jende asko're bai ta...

-Bai. Ta Zumarraga ta hori. Ta zenbat lotsa hartu deu guk Beasaiñea jun ta, enkargun batea jundako garaian ta, joe, erderaz zean, erderaz jakin ez galdetzen. Lotsatu e! Lotsatu. Ta hori txarra da e! Tolosako euskerea gozoa izan da. Neetzako bai.

9. Lanbideak

9.1. San Roke eguneko giroa ostatuan

- **Hizlaria(k):** Alustiza Gabiria, Nikolas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** GAB-006/036
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 01:03:03. **Bukatu:** 01:05:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Negozioak, dendak
Aisia » Taberna giroa
Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- **Laburpena:** Tabernarako dirua lortzeko, aurrezki kutxan mailegua eskatu zuten. Zerbitzari ona izan zuten 20 urtean. Festa-giroan jendeak xanpaina edaten zuen.

Transkripzioa

-Herriari bizitasun haundie, gaiñera.

-Izugarrie. Garai hartako festatan ze jendek etortzen zien honutza, herri txiki batea... Desbordauta eoten zan hori San Roke Txiki egunen eta. Ze jendek! Lana ein? Ni harrittuta. Pentsaizu, guk diruik ez gendukan. Nola eukiko gendun ba, famili bat eta diruik ez eta. Klaro, holoko zea bat jartzeko behar dezu esku arten dirue. Kajaorosen lehengusue neuken nik, Lucio Gabiria, hil zan, Zumarragan bizi zan. Eta hari esanda neon, "hi nik prestamoa ta", "bai, bai, hik eskau zak prestamoa, eta emango diau, eon lasai". Festak, esan dizut ba, zortzin sartu, ta hamabosten zien festak. Festa haetan ein gendun lana! Gero, kamarero bat'e oso ona, Legazpikoa, oñatiarra izatez, Legazpin fabrikan lana eitten zon, ta bea Legazpiko Bar Patxi o han zeon, ta artista zan. Hure hogeit urten etorri zan gure etxea fiestatan kamarero, ikaragarri balio zon harek. Festak eitten lana ein?

-Nolakoa zan giroa ordun tabernan? Gaurkoa bezalakoa ez zan izango,

noski.

-Ordun txanpaiñe saltzen zan asko, behintzat. Txanpaiñe kantidadea hartzen zon jendek. Txanpaiñe, bai.

-Ze txanpain izaten zan?

-Txanpaiñe, Codorniu eo eozein marka. Baiño eoten zien Saint Peti esaten zioen botilla txikik. Horik kantidadea saltzen zan. Ta hori´re bere alanbrekin-eta lotuta etortzen zan, askau ein behar zendun, atzapar hok danak dana odoletan jarritta, horik askatzen. Gero, botilla haundik, oraingo botilla berdiñak.

-Gaur konbinatuk-eta edaten dien bezala, ordun zer zan, ardoa?

-Ardoa ta zea, esto, kokakolakin, zea bai, estooo, nola esaten zaio ba kokakola ta ardoi esaten zaion horri?

-Kalimotxoa?

-Kalimotxoa.

-Ordun ´e bazan kalimotxoa?

-Bazan kalimotxoa, bai. Baiño beste konbinazio zea horik ez zien hoinbeste. Txanpaiñe asko. Txanpaiñe, joe, baiño, pillak eaten zien. Ta dirue uzten zizun txanpain botilla batek. Oain festatan ez da txanpaiñik eaten; ordun? Bueno! harrigarrie!

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Fisikako ikasketak bukatu eta Donibaneko ikastolan hasi (GAB-013/004)

Fisika ikasi zuen Emik eta karrera bukatzen zebilela, Pasai Donibane eta Antxoko ikastolatik joan ziren bere bila, matematika, fisika eta kimika emango zituen irakasle tituludun bat behar zutelako. Zalantzak izan zituen, baina Donibaneko ikastolan hasi zen lanean.

2. Donibaneko hasierako ikastolako matematikako irakaslea (GAB-013/005)

Lau eraikin edo lokaletan zegoen banatuta Donibaneko ikastola, Emi bertan lanean hasi zenean. Karmele, Lourdes eta Gemma Sistiaga, Joxe Antonio Etxezarreta eta Manu Labaien ziren irakasleak. Gipuzkoako ikastoletako irakasleetatik, seminariok pasatu ez zen lehenengo izan zen Emi. Ez zegoenez materialik, Erein argitaletxean talde bat sortu zuten fisikako eta kimikako liburuak sortzeko.

3. Hasierako Donibaneko ikastola (GAB-013/007)

Donibaneko hasierako ikastolako geletan baldintza minimoak betetzen ziren. Ikastola ilegala zen eta ikuskatzailea joan behar zenean, titulu gabeko irakasleak ezkutatzen ziren eta zeukaten guztiak agertzen ziren. Gurasoek, ikastolan parte hartzen zuten eta inplikazioa totala zen.

4. Lehenengo andereñoen ikastolak etxeetan (GAB-013/008)

Gaur egun ezagutzen dugun ikastolak sortu aurretik, andereñoek etxean ematen zituzten euskarazko klase partikularrak.

5. Ikastolako lokalak Pasaiaiko badia guztian sakabanatuta (GAB-013/011)

Donibaneko ikastolak izan dituen eraikin edo lokal ezberdinak aipatzen ditu: kooperatiba baten baxuetan, Itsasmendi elkartearen lokaletan, Tisbe-ko lokaletan... Gainontzeko herrietan ere berdina gertatzen zen. Antxoko 2. hezkuntzako ikastolako ikasleak Beraunen (Errenteria) jasotzen zituzten klaseak.

6. Pasaia-Lezo lizeoa sortzearen beharra (GAB-013/012)

Pasaia-Lezo lizeoa sortzearen beharraz hitz egiten du. Ikastola legeztatzeaz gain, haurrak elkartzeko beharra zegoen, klaseak oso txikiak zirelako. 1970eko hamarkadaren hasieran, badiako ikastola txikiko jendea elkartzen hasi zen, zer egin zitekeen aztertzeko. Herrerako auzoa proiektutik kanpo geratzea erabaki zuen eta Pasaia eta Lezo jarraitu zuten aurrera. "Gaztelutxo"elkartea sortu zen lizeoaren proiektua aurrera eramateko. Hamar kideko batzordea zen (bi pertsona herri bakoitzeko).

7. Proiektu komuna, bost herritan banatuta (GAB-013/013)

Ikastetxe bat sortzeko, gutxienez maila edo lerro bakoitzeko gela bat bete behar zen. Ikastola guztiak elkartuta, bi lerro zituzten lizeoan. Lizeoaren prozesua luzea izan zen, gehienbat eraikinagatik. Lizeoa zabaldua zen arte, nahiz eta proiektu amankomuna egon, herri bakoitzean ikastolako gelak zeuden.

8. Pasaia-Lezo lizeoko lehenengo ikasleak, bigarren hezkuntzakoak (GAB-013/014)

Lizeoa zabaldu arte, ikasleak ahalik eta gutxien mugitzea zen helburua. Lehen hezkuntza herri bakoitzean zegoen eta bigarren hezkuntzarako Beraunen elkartzen ziren batzuk. Lizeoa zabaldu zenean, hasieran bigarren hezkuntzako ikasleak pasatu ziren.

9. Pasaia-Lezo lizeoaren kokapena (GAB-013/016)

Lizeoa eraikitzeko, Pasaiaiko Udalak Donibanen lur batzuk eskaini zituen baina ez zen egokia ikusi, herrian bertan zegoelako eta etxez inguratuta. Hilerri ondoko lur batzuk erabiltzea proposatu zen eta birkalifikatu ondoren, eraikitzen hasi ziren. Uranga (Hondarribia) eta Emilio Chinarro (Madrid) izan ziren arkitektoak.

10. Lizeoa eraikitzeko kredituak, kuotak eta diru-bilketak (GAB-013/019)

Lizeoa eraikitzeko banketxeari kreditua eskatu zitzaion eta guraso bakoitzak 10.000 pezeta jarri zituen. Jendea oso prest agertu zen proiektuarekin. Jaietan, beti antolatzen ziren dirua biltzeko ekimenak eta irakasleek zein gurasoek hartzen zuten parte.

11. Lizeora igotzeko bidea, ikasleak egindakoa da (GAB-013/020)

Lizeoa zabaldu zenean, bukatu gabe zegoen. Bertara heltzeko bidea egin gabe zegoen eta ikasleek egin zuten bide hori.

12. Ikastolaren metodologia berritzaitzea (GAB-013/021)

Lizeoan zein ikastola txikietan, naturarekiko harremana oso garrantzitsua zen. Baratzea jarri, irteerak... Garai hartarako, metodologia berritzaileak erabiltzen ziren baina guraso batzuek metodologia klasikoa nahiago zuten.

13. Ikastola txikietatik lizeora, aldaketa izugarria (GAB-013/023)

Pasaia-Lezo lizeoko lehenengo zuzendaria izan zen eta bertan aritu zen zortzi urtez. Ikastola txikietatik lizeorako aldaketa oso handia izan zen. Autobus zerbitzua izugarria zen.

14. Madrilera joan zen batxilergoa lizeoan emateko baimenaren bila (GAB-013/024)

Ez zeukaten euskarazko irakaskuntzako materialik. Irakasleek sortzen zituzten edo gaztelaniazko liburuak erabiltzen zituzten. Hasieran ez zuten batxilergoa eskaintzen eta Madrilera joan behar izan zuen baimena eskatzera.

15. Pasaia-Lezo lizeoa ofizialki 1979an inauguratu zen (GAB-013/025)

Lizeoa ofizialki 1979an inauguratu bazen ere, 1977az geroztik, bigarren hezkuntzako ikasleak bertara joaten ziren. Eraikinaren erdia zegoen eginda ordurako.

16. Ikastolako bigarren hezkuntzako ikasleak Beraunen (GAB-013/028)

Lizeoa egin bitartean, bost herrietako ikastolako bigarren hezkuntzako ikasleak Beraunera joaten ziren, denak elkarrekin. Herri ezberdinetako ikasleen arteko pikeak. Ikasleak oso ezberdinak ziren.

17. Pasaia badiako herrietako desberdintasunak (GAB-013/030)

Pasaia eta Lezoko herritarren arteko janzkera ezberdina zen, eta ikasturte hasieran, Emi guraso bakoitza nongoa zen asmatzen saiatzen zen. Euskararen erabileran ere euskalkiak ere, ezberdintasun handiak zeuden.

18. Gabiriako maisua 1930etik 1957arte (GAB-013/037)

Emiren aita, 27 urtez Gabiriako maisua izan zen, 1930etik 1957ra arte. Klase bakarrean, 5-10 urte bitarteko 50 bat ikasle zituen. Klaseak gaztelaniaz eman behar zituen, baina euskaltzalea zenez, hurrekin euskarazko antzerki talde bat sortu zuen eta herriz-herri ibiltzen ziren.

19. Ez zekien umetako lagunak euskaldunak zirela (GAB-013/038)

Orain dela urte batzuk arte ez du jakin umetako lagunak euskaldunak zirela. Etxean bakarrik egiten zuten euskaraz, ezkutuan.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-02

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com